

12

COLECCIÓN **GAZTEAK**BILDUMA

**KGK**

# Gazteen emantzipazioa Euskadin 2015

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

ENPLEGUKO ETA GIZARTE  
POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE EMPLEO  
Y POLÍTICAS SOCIALES



12  
COLECCIÓN **GAZTEAK**BILDUMA

**KG**  
**k**

# Gazteen emantzipazioa Euskadin 2015

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

ENPLEGUKO ETA GIZARTE  
POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE EMPLEO  
Y POLÍTICAS SOCIALES

**Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia**

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2017

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzaren *Bibliotekak* sarearen katalogoan aurki daiteke: <http://www.bibliotekak.euskadi.eus/WebOpac>

|                             |   |
|-----------------------------|---|
| <b>Argitaraldia:</b>        | 1.º, 2017ko iraila  |
| <b>Ale-kopurua:</b>         | 500 ale   |
| <b>©</b>                    | Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa<br>Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saila  |
| <b>Internet:</b>            | <a href="http://www.euskadi.eus">www.euskadi.eus</a>  |
| <b>Argitaratzailea:</b>     | Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia<br>Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco<br>Donostia-San Sebastián, 1-01010 Vitoria-Gasteiz |
| <b>Egilea:</b>              | Miren Bilbao Gaztañaga, Oskar Longo Imatz eta Nieves Corcuera Bilbao  |
| <b>Koordinazioa:</b>        | Gazteen Euskal Behatokia  |
| <b>Bildumaren diseinua:</b> | Canaldirecto • <a href="http://www.canal-directo.com">www.canal-directo.com</a>   |
| <b>Azaleko irudia:</b>      | iStockphoto   |
| <b>Maketazioa:</b>          | Composiciones RALI, S.A.  |
| <b>Imprimatzea:</b>         | Gráficas DOSBI, S.L.  |
| <b>ISBN:</b>                | 978-84-457-3419-3   |
| <b>L.G.:</b>                | VI 405-2017   |

# Aurkibidea

|   |           |
|---|-----------|
| <b>AURKEZPENA</b> .....   | <b>9</b>  |
| <b>SARRERA</b> .....  | <b>11</b> |
| <b>METODOLOGIA</b> .....  | <b>13</b> |
| <b>1. GAZTEEN LAN-EGOERA ETA INDEPENDENTZIA EKONOMIKOA</b> .....                        | <b>15</b> |
| 1.1. 16-29 urteko gazteen lan-egoera eta egoera ekonomikoa .....                        | 15        |
| 1.2. 30-34 urteko pertsonen lan-egoera eta egoera ekonomikoa .....                      | 21        |
| 1.3. Kapituluaren laburpena .....   | 23        |
| <b>2. EMANTZIPATUTAKO GAZTEEN ZIFRAK ETA EZAUGARRIAK</b> .....                          | <b>25</b> |
| 2.1. Zenbat gazte daude emantzipatuta? .....  | 25        |
| 2.2. Emantzipatutako gazteen eta emantzipatu nahi dutenen arteko aldea .....            | 29        |
| 2.3. Norekin bizi dira emantzipatutako gazteak? .....                                   | 31        |
| 2.4. Zer arrazoi nagusik bultzatu dituzte pertsona horiek emantzipatzera? .....         | 34        |
| 2.5. Zer alde dago 30-34 urteko pertsonekin? .....                                      | 36        |
| 2.6. Kapituluaren laburpena .....   | 40        |
| <b>3. EMANTZIPAZIO-MOTAK ETXEBIZITZAREN ARABERA</b> .....                               | <b>41</b> |
| 3.1. 16-29 urteko gazte emantzipatuek etxebizitza hartzeko modalitateak .....           | 41        |
| 3.2. Etxebizitza jabetzan hartzea .....   | 44        |
| 3.3. Etxebizitza alokairuan hartzea .....   | 46        |
| 3.4. Etxebizitza babestua hartzea .....   | 47        |
| 3.5. Etxebizitza hartzeko modalitateak 30-34 urteko pertsona emantzipatuen taldean .... | 49        |
| 3.5.1. Jabetzako etxebizitza .....  | 51        |
| 3.5.2. Alokairuko etxebizitza .....   | 52        |
| 3.5.3. Etxebizitza babestua .....   | 53        |
| 3.6. Kapituluaren laburpena .....   | 54        |

|  |            |
|--|------------|
| <b>4. EMANTZIPATUTAKO GAZTEAK BIZI DIREN ETXEBIZITZEN EZAUGARRI FISIKOAK .....</b>   | <b>57</b>  |
| <b>4.1. 16-29 urteko gazteek emantzipatzeko hartzen dituzten etxebizitzaren ezaugarri fisikoak. .</b>  | <b>57</b>  |
| <b>4.2. 30-34 urteko pertsonen emantzipatzeko hartzen dituzten etxebizitzaren ezaugarri fisikoak.....</b>  | <b>60</b>  |
| <b>4.3. 16-34 urteko pertsonen emantzipatzeko hartzen dituzten etxebizitza libreen eta babestuen ezaugarri fisikoen arteko aldeak .....</b>                          | <b>63</b>  |
| <b>4.4. Kapituluaren laburpena .....</b>   | <b>64</b>  |
| <b>5. EMANTZIPATUTAKO GAZTEEK AURRE EGIN BEHARREKO ETXEBIZITZA-GASTUAK ETA ZAILTASUN EKONOMIKOAK .....</b>   | <b>65</b>  |
| <b>5.1. 16-29 urteko gazte emantzipatuek hipoteka-kuotagatik edo alokairu-errentagatik ordaindu behar duten hileko gastuaren zenbatekoa .....</b>                    | <b>65</b>  |
| <b>5.2. Nork egiten du hipoteka-kuotaren edo alokairu-errentaren hileko ordainketa? .....</b>  | <b>67</b>  |
| <b>5.3. Diru-sarreretatik hipoteka-kuota edo alokairu-errenta ordaintzeko erabili behar den ehunekoa .....</b>   | <b>68</b>  |
| <b>5.4. Etxebizitza-gastuei aurre egiteko zailtasunak dituzten gazte emantzipatuak .....</b>   | <b>71</b>  |
| <b>5.5. Familiaren diru-laguntza jasotzen duten gazteak .....</b>  | <b>73</b>  |
| <b>5.6. Etxebizitza-gastuak eta haiek ordaintzeko zailtasunak 30-34 urteko pertsonen taldean</b>   | <b>74</b>  |
| <b>5.7. Etxebizitza-gastuak eta haiek ordaintzeko zailtasunak etxebizitza babestuaren modalitatearen bidez emantzipatutako 16-34 urteko pertsonen multzoan .....</b> | <b>81</b>  |
| <b>5.8. Kapituluaren laburpena .....</b>   | <b>83</b>  |
| <b>6. EMANTZIPATU GABEKO GAZTEEN EMANTZIPAZIO-ESPERIENTZIA ETA -AURREIKUSPENAK ..</b>  | <b>85</b>  |
| <b>6.1. 16-29 urteko gazteen emantzipazio-esperientzia .....</b>   | <b>85</b>  |
| <b>6.2. Emantzipazio-aurreikuspena .....</b>   | <b>87</b>  |
| <b>6.3. Gurasoen laguntza etxeko gastuak ordaintzen .....</b>  | <b>90</b>  |
| <b>6.4. 30-34 urteko pertsona emantzipatu gabeen egoera .....</b>  | <b>91</b>  |
| <b>6.5. Kapituluaren laburpena .....</b>   | <b>94</b>  |
| <b>7. EMANTZIPATZEKO ZAILTASUNAK ETA BALIABIDEAK .....</b>   | <b>97</b>  |
| <b>7.1. Emantzipazioa atzeratzea .....</b>   | <b>97</b>  |
| <b>7.2. Emantzipatzeko zailtasunak .....</b>   | <b>101</b> |
| 7.2.1. Etxebizitza garesti egotea, erosteko zein alokatzeko .....  | 101        |
| 7.2.2. Diru-sarrera propioak izateko zailtasunak .....   | 103        |
| 7.2.3. Banku-maileguak eskuratzeko zailtasuna .....  | 104        |
| 7.2.4. Familiaren oposizioa .....  | 106        |

|   |            |
|---|------------|
| 7.2.5. Familiarekin bizitzen izaten den erosotasuna galdu nahi ez izatea .....  | 107        |
| <b>7.3. Etxebizitza-zerbitzu publikoak, emantzipazioa errazteko baliabidea.....</b>   | <b>108</b> |
| <b>7.4. Emantzipatzeko zailtasunak eta baliabideak 30-34 urteko pertsonen taldean .....</b>                                 | <b>111</b> |
| <b>7.5. Kapituluaren laburpena .....</b>  | <b>114</b> |
| <b>8. ALOKATZEA ALA EROSTEA? .....</b>  | <b>115</b> |
| <b>8.1. Etxebizitza erostearen ala alokatzearen alde egitea 16-29 urteko gazte emantzipatuen artean .....</b>               | <b>115</b> |
| 8.1.1. 16-29 urteko gazte emantzipatuek hautatutako aukera.....   | 115        |
| 8.1.2. 16-29 urteko gazte emantzipatuen taldean, etxebizitzaz aldatzeko asmoa dutenek hautatuko luketen aukera .....        | 118        |
| <b>8.2. Etxebizitza erostearen edo alokairuan hartzearen alde egotea, 16-29 urteko gazte emantzipatu gabeen artean.....</b> | <b>119</b> |
| <b>8.3. Etxebizitza erostearen edo alokairuan hartzearen alde egotea, 30-34 urteko pertsonen taldean .....</b>              | <b>121</b> |
| <b>8.4. Kapituluaren laburpena .....</b>  | <b>125</b> |
| <b>9. EMAITZA ESANGURATSUENAK .....</b>   | <b>127</b> |
| 9.1. 16-29 urteko gazteak .....   | 127        |
| 9.2. 16-29 urteko pertsonen eta 30-34 urteko pertsonen arteko alderaketa.....   | 132        |
| 9.3. Laburpena .....  | 136        |
| <b>BIBLIOGRAFIA .....</b>   | <b>139</b> |
| <b>GRAFIKO ETA TAULEN AURKIBIDEA .....</b>  | <b>141</b> |
| <b>Grafikoen aurkibidea .....</b>   | <b>141</b> |
| <b>Taulen aurkibidea .....</b>  | <b>145</b> |



# Aurkezpena

Ikerketa berri honen bidez, Gazteen Euskal Behatokiak Euskadiko gazteen errealitateari buruzko informazioa aldizka emateko konpromisoa bete nahi du.

Oraingoan, gazteek emantzipatzeko eta etxebizitza hartzeko duten egoera izango da txosten honen ardatza, erabat. Emantzipatzeko zailtasunak ez ziren krisiarekin batera hasi, baina lan-merkatuan sartzeko zailtasunek eta enpleguaren ezegonkortasunak azken urteotan okerrera egin dutenez, bizitegi-emantzipazioa zaila da une honetan, are gehiago gure gizartean orain arte nagusi izan den ereduari (etxebizitza librea erostean oinarritua).

Txosten hau inkesta baten emaitza da. Inkesta horren hirugarren edizioa da jada, eta 16-34 urteko ia 2.000 gaztek erantzun diete galderari. Txostenean, honako hauek aztertzen dira: emantzipatzeko zailtasunak, etxebizitza jabetzan edo alokairuan hartzearen artean zerk duen lehentasuna, eta jatorriko familiaren etxetik kanpo bizi direnen bizi-baldintzak. Halaber, orrialde hauetan, zorpetze-maila eta etxebizitza babestuen hedadura aztertzen dira, bai eta beste gai batzuk ere; esaterako, emantzipazioaren itzulgarritasuna.

Datuek adierazten dute emantzipatzeko gogoak ez duela behera egin krisi ekonomikoaren ondorioz. Emantzipatutako gazteen kopuruak gora egin du krisiaren aurreko urteen aldean, baina pertsona horien laurdenak arazoak dituzte etxebizitzaren gastuak ordaintzeko. Aipatzekoa da gazteen aukerak aldatu egin direla, gehienek alokairuaren alde egiten baitute, bai emantzipatutako pertsonen taldean, bai etorkizunean emantzipatzeko asmoa dutenen artean.

Gazteen Euskal Behatokiaren argitalpen berri honen bidez, euskal gazteen errealitatea hobeto ezagutzeko ekarpena egin nahi dugu, politika egokiak ezartzen laguntzeko, haien jarraipena egin ahal izateko eta neurrien eraginkortasuna neurtzeko.



Marcos Muro Nájera  
Enplegu eta Gazteriako sailburordea  
Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila



# Sarrera

Gazteen Euskal Behatokiak gazteei buruzko ezagutza kudeatzeko eginkizuna du, bai eta gazteen errealitateari buruzko datu fidagarriak ematekoa ere, gizarteari, esparru akademikoari, gazteekin lan egiten duten profesionaleri eta, batik bat, gazte-politikak egiteko arduradunei. Eginkizun horretan, gazteen emantzipazioa lehenasunez aztertze gaitzat hartzen du Behatokiak.

Bizi-proiektu independentea izateko aukera gazteen oinarritzko nahi bat da. Eta ordaindutako enplegua izatea ezinbesteko baldintza da baliabide ekonomikoak izateko. Baliabide horiek, hain zuen, emango diete aukera gazteei gurasoen etxetik emantzipatzeko eta beren bizi-proiektu heldu eta independentea hasteko.

Gazteen Euskal Behatokiak azterketa hau aurkezten du, gai hauei buruzko informazio erabilgarria azaltzeko: Euskadiko gazteen bizitegi-emantzipazioaren errealitatea, emantzipazio-motak, emantzipatzeko zailtasunak eta oraindik gurasoen etxean bizi diren gazteen nahiak.

Azterketaren oinarria 16-29 urteko gazteek gai horren inguruko inkesta espezifiko bati emandako erantzunak dira. Adin-tarte horretako beheko muga gisa 16 urteko adina hautatu izanaren arrazoiak hauek dira: batetik, tradizioz, 15 urtetik gorako pertsonak hartzen dira gaztetzat, baina, bestetik, 16 urtetik aurrera lor daiteke legezko emantzipazioa, oraindik adin nagusikoa (18 urte) izan gabe, nahiz eta, benetan, oso pertsona gutxi egiten duten hori. Adin-tartearen balio handiena (29 urte), berriz, Euskadin eta Espainian gazteei buruz egiten diren ikerketetan tradizioz ezartzen den muga da. Muga hori ezartzen da, halaber, Europako estatistika ofizialetan. Nolanahi ere, galdera berdinak egin zaizkie 30-34 urteko taldekoei, aztertze ea nola aldatzen den (edo ez) pertsona gazteen bizitegi-egoera adinean aurrera egin ahala. Guztira, Euskadin bizi diren 16-34 urteko ia 2.000 pertsona gaztek hartu dute parte, borondate onez.

Gai hau zinez garrantzitsua da, eta ikerketa ez da euskal gazteen egoeraren argazki estatiko bat. Lehenago, beste bi ikerketa egin ziren, 2011. eta 2013. urteetan, eta horrek aukera eman digu aztertutako alderdi gehien bilakaera aztertze.

Egoeraren eta gazteen portaera eta iritzien bilakaera aztertzeaz gain, batzuetan, haiei buruzko datuak Espainiako eta Europako gazteei buruzko datuekin alderatu ahal izan ditugu. Horretarako, Eurostat Europako Erkidegoko Estatistika Bulegoak argitaratutako datuak hartu ditugu oinarri. Erakunde horrek Europar Batasuna osatzen duten 28 herrialdeei buruzko informazioa jasotzen du.

Beraz, hau da txostenaren egitura: azterketa honetako datuak biltzeko erabili den metodologiari buruzko atalaren ondoren, zortzi kapitulu daude. Lehenik eta behin, gazteen lan-egoera eta egoera ekonomikoa aztertzen dira, emantzipatzeko aurretiko baldintzak diren aldetik, eta gero, gazteen etxebizitza- edo emantzipazio-egoera, emantzipazio-motak, emantzipatzeko aurreikuspenak eta emantzipatzeko zailtasunak aztertzen dira. Kapitulu horietako bakoitzean, 16-29 urteko pertsonen kolektiboaren egoera edo jarrerak aztertzen dira. Gai jakin baten inguruan aurreko urteetako edo beste geografia-eremu batzuetako datuak izanez gero, bilakaera eta/edo Europako beste herrialde batzuekiko aldeak aztertu dira. Kasu guztietan, 30 urtetik beherako pertsonen eta 30-34 urteko

taldeko pertsonen egoerak alderatu dira, eta, halaber, aztertu da ea aldeak dauden bi talde nagusi horiek osatzen dituzten kolektiboen artean. Kolektibo horien azterketan erabilitako aldagaiak desberdinak dira, aztertutako gaiaren arabera. Txostena amaitzeko, azterketako emaitza aipagarrienen laburpena dago.



Ander Añibarro Maestre  
Gazteriako zuzendaria  
Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila

# Metodologia

Erabilitako metodologia kuantitatiboa izan da eta, horretarako, elkarrizketa indibidualak egin zaizkio Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) lurralde historiko bakoitzeko 16-34 urteko gazteen lagin adierazgarri bati. 1.938 inkesta egin dira, guztira: 485 Araban, 770 Bizkaian eta 683 Gipuzkoan.

Elkarrizketak etxez etxe egin dira eta, horretarako, galdeketa egituratuak erabili dira. Galdera gehienetan erantzun itxiak eskatu dira, hau da, eskainitako erantzun-aukeren artean bat hautatzeko. Beste galdera batzuetan, ordea, parte-hartzaileen erantzun ireki eta espontaneoak eskatu dira. Elkarrizketak euskaraz edo gaztelaniaz egin dira, inkestari erantzun dioten gazteek nahi zuten hizkuntzaren arabera.

Inkestari erantzuteko pertsonen hautapen-prozedura fase anitzeko laginketarekin eta laginketa geruzatuarekin egin da. Batetik, ibilbide-kopuru bat zehaztu da lurralde historiko bakoitzeko, eta inkestak egiteko udalerrien hautaketa doitu egin da lehenago ezarritako ibilbide-kopurura eta gazteen udalerrri-banaketara. Udalerrriak tamainaren arabera sailkatu dira (10.000 biztanletik beherako udalerrriak, 10.000-120.000 biztanleko udalerrriak, eta hiriburuak). Udalerrri bakoitzean bisitatu beharreko etxebizitzak aukeratzeko, abiapuntu aleatorio bat adierazi da, eta ezarritako ibilbidea jarraitu da, txandakako ezkaratzetara joanda. Ezkaratz bakoitzeko solairu bakoitzean inkesta bat egiteko muga jarri da, eta hamar etxebizitzako multzo bakoitzeko ezin zen inkesta bakar bat baino gehiago egin. Elkarrizketatu beharreko gazteak aukeratzeko azken irizpideak sexuarekin, adinarekin eta okupazio nagusiarekin lotutako kuotak izan dira.

Landa-lan hau 2015eko azaroaren 10etik abenduaren 1era egin da.

Aurkezteko, emaitzak haztatu egin dira lurralde historiko bakoitzeko biztanle gazteen banaketaren arabera eta aintzat harturiko adin-taldeetan duten banaketa errealaaren arabera.

Lagin-errorea, lagin erabat aleatorio izateari legokiokeena,  $\pm$  % 2,2koa da EAEko gazteen artean, konfiantza-maila % 95,5koa eta  $p=q=0,5$ .

Lagin orokorrean kolektibo jakin bateko banakoak aukeratzeak hasierako lagin-errorea handiagoa izatea dakar. Horregatik, zenbait datu aztertutako fenomenoaren hurbilketak dira, magnitude zehatzak baino gehiago.

Ikerketaren diseinua, emaitzen azterketa eta txostenaren idazketa Gazteen Euskal Behatokiaren erabateko erantzukizuna dira.

Landa-lana, berriz, *Ikertalde Grupo Consultor* enpresak egin du, Gazteen Euskal Behatokiak espresuki adierazitako jarraibideak jarraituta.



# 1

## Gazteen lan-egoera eta independentzia ekonomikoa

Diru-sarrera nahikoak eta jarraituak izatea funtsezko baldintza da alokairu-errenta bat edo hipoteka bat ordaintzeko. Horregatik, zenbat gazte dauden emantzipatuta eta zer baldintzatan bizi diren aztertu aurretik, aztertuko dugu ea badituzten emantzipazioari aurre egiteko baliabide ekonomikoak.

### 1.1. 16-29 URTEKO GAZTEEN LAN-EGOERA ETA EGOERA EKONOMIKOA


Lehenik eta behin, aipatu behar da lana dela 16-29 urteko gazteen herenaren baino zertxobait gehiagoren (% 34,8) okupazio nagusia (beste % 6,6k lanaren bat dute ikasketen osagarri gisa, baina ikasketak dira haien okupazio nagusia).

Bestalde, gazteen % 3,3k langabezia-prestazioa kobratzen ari direla diote. Pertsona horiek gazteen langabeziaren icebergaren tontorra baino ez dira, askoz gehiago baitira (% 12,0) langabezian prestaziorik kobratu gabe daudenak.

Gazteen talde handienaren okupazio bakarra ikasketak dira (% 40,2). 20 urtetik beherako pertsonen artean, % 87,4k jarduten dute ikasten soilik. Lanean ari direnak, berriz, % 4,2 baino ez dira. 25 urteko adinera heltzean, orduan ari dira lanean gazteen erdia baino gehiago.

## 1.1 grafikoa

16-29 URTEKO GAZTEEN OKUPAZIO NAGUSIA, ADIN-TALDEEN ARABERA (%)



Lan egiten ari direnen artean, erdiak soilik dute nolabaiteko lan-egonkortasuna: % 43,5ek kontratu mugagabea edo aldizkako kontratu finkoa dute edo kooperatibistak dira, eta % 6,1ek beren kontura egiten dute lan. Gainerakoek aldi baterako kontratua dute (% 44,2) edo kontraturik gabe ari dira lanean (% 5,9). Laneko egonkortasunak eragina du emantzipatzeko eta hipoteka-mailegu bat lortzeko aukeretan, etxebizitza erostea aukeratzuz gero.

Lan-egonkortasunak eragin handiagoa du emakumeengan gizonengan baino. 30 urtetik beherako emakume landunen % 51,0k aldi baterako kontratua dute. Gizonezkoen kasuan, ehuneko hori % 32,8 da.

2015ean, 30 urtetik beherako pertsonen batez besteko soldata ozta-ozta iristen zen 1.000 eurora (996 euro, hain zuzen, okupazio nagusizat lana duten gazteek adierazitakoaren arabera). Horrez gain, aipatu behar da lan egiten dutenen herenak (% 34,6) lanaldi partziala dutela, eta pertsona horien batez besteko soldata hilean 605 eurokoa dela.


Alderdi horretan ere, aldeak daude gizonen eta emakumeen artean. Emakume gazteek 867 euro kobratzen dituzte batez beste, gizon gazteek baino dezente gutxiago (1.125 euro hilean). Soldaten arteko desparekotasun hori eragiten duen faktore nagusietako bat da handiagoa dela lanaldi partzialean jarduten duten emakumeen proportzioa (emakume landunen % 48,9k lanaldi partzialeko kontratua dute), baina ez da arrazoi bakarra, gizonen emakumeek baino soldata hobeak baitituzte lanaldi osoko kontratuetan ere: 1.242 euro gizonentzat eta 1.119 euro emakumeentzat.

Okupazio-maila eta batez besteko soldatak kontuan hartuta, ez da harrizkoa gazte gehienek esatea familiaren diru-sarreretatik bizi direla (% 55,7); hau da, gurasoen, anaia-arreben edo beste senideen diru-sarreretatik bizi direla. Gazteen beste % 15,5ek diote beren diru-sarrerak familiaren diru-sarrerekin osatu behar dituztela.

Gazteen % 13,8 soilik bizi dira erabat beren diru-sarreretatik. % 8 beren diru-sarreretatik eta bikotekidearen diru-sarreretatik bizi dira, erdi bana. Eta % 5ek adierazten dute bikotekidearen diru-sarreraren mende daudela, erabat, bizitzeko. Egoera hori hedatuago dago emakumeen artean (% 7,8) gizonen artean baino (% 2,3), eta desparekotasunezko eta menpekotasun ekonomikoko egoerak sortzen dira, emakume gazteen kalterako. Guztira, 30 urtetik beherako gazteen laurdenak baino zertxobait gehiagok (% 26,8) diote beren diru-sarreretatik eta/edo bikotekidearen diru-sarreretatik bizi direla; hau da, ez daudela familiaren mende (hau da, gurasoen, aitona-amonen, aita-amaginarreben eta abarren mende).

## 1.2 grafikoa

16-29 URTEKO GAZTEEN DIRU-SARREREN JATORRIA (%)



Bereziki kezagarria da gazte landunen erdiak soilik (% 50,2) diotela beren diru-sarreretatik eta/edo bikotekidearen diru-sarreretatik bizi direla, batik bat edo erabat. Lan egiten duten gainerako gazteetatik % 30,7k familiaren diru-sarrerekin osatu behar dituzte beren diru-sarrerak, eta % 17,0 familiaren diru-sarreretatik bizi dira batik bat, eta ez beren diru-sarreretatik, nahiz eta lanean ari diren.

Langabezia-prestazioa kobratzen duten gazteen % 43,9k familiaren diru-sarrerak behar dituzte bizitzeko.


Laburbilduz, 16-29 urteko gazteen herena baino zertxobait gehiago (% 38,1) lanean ari dira (okupazio nagusi gisa) edo langabezian daude, langabezia-prestazioa kobratzen, hau da, diru-sarrera propioak dituzte (txikiak badira ere), eta are gutxiago dira bizitzeko familiaren diru-sarrerak behar ez dituztela diotenak (% 26,8).

Kasu horretan, 28 urterekin ahal dute pertsona gazteen erdiak baino gehiagok beren diru-sarreretatik eta/edo bikotekidearen diru-sarreretatik bizi, beste senide batzuen dirurik gabe.

Eta, are zorrotzago, beren diru-sarreretatik bizi direnak edo bikotekidearekin diru-sarrerak erdi bana jarrita bizi direnak kontuan hartuta, —beste pertsona batzuen diru-sarreraren mende egon beharrik gabe bizi direnak, alegia (ezta bikotekidearen mende soilik ere)—, talde hori gehiengoa da 29 urte dituztenen artean (talde horretan, % 60,1 dira), baina ez lehenago.

## 1.3 grafikoa

16-29 URTEKO GAZTEEN DIRU-SARREREN JATORRIA, ADIN-TALDEEN ARABERA (%)




Alde batera utzita bai diru-sarreraren jatorria (ordaindutako lana, langabezia-prestazioa, ikasketa-beka bat, gizarte-laguntza bat...), bai diru-sarrerak nork jartzen dituen (gazteak berak, familiak, bikotekideak...), aztertuko dugu zenbat diru duten hilean 30 urtetik beherako gazteek Euskadin.

Gazteen ia erdiak (% 47,7) hilean 300 euro baino gutxiago dituzte, eta hori ez da harrizkoa, % 40,2k, lehen aipatu dugun moduan, ikasten jarduten dutelako erabat, eta ez dutelako inolako lan osagarri egiten diru-sarrerak eskuratzeko.

% 11,0k hilean 301-600 euro dituzte; % 10,2k, hilean 601-900 euro; % 9,8k, 900-1.200 euro; eta % 12,8k, berriz, 1.200 eurotik gora. Gainerako % 8,6k ez diote galderari erantzun (ea hilean zenbat diru izaten duten, batez beste).

### 1.4 grafikoa

16-29 URTEKO GAZTEEN BANAKETA, HILEAN DUTEN DIRU-KOPURUAREN ARABERA (%)



Hala ere, egoera horri dagokionez, alde handiak daude, gazteen okupazio nagusiaren arabera. Ikasleen taldean, hilean 300 euro baino gutxiago dituztenen ehunekoa % 79,4 da. Lanean ari direnen artean, berriz, % 7,2 daude egoera horretan.

Lanean ari direnen artean, % 14,2k hilean 301-600 euro dituzte; % 18,1ek, hilean 601-900 euro; % 21,6k, 900-1.200 euro; eta % 31,2k, berriz, 1.200 eurotik gora.

Eta zenbat diru dute hilean beren diru-sarreretatik eta/edo bikotekidearen diru-sarreretatik bizi direla diotenen? Kolektibo horretako herenak baino gehiagok (% 37,5) 900 euro baino gutxiago dituzte hilean. Beste muturrean, % 19,2k 1.500 euro baino gehiago dituzte hiler. Bi talde horien artean beren eta/edo bikotekidearen diru-sarreretatik bizi diren horietatik % 33,8k diote 900-1.500 euro izaten dituztela hilean. Gainerako % 9,5ek ez dute erantzun.

#### Zer bilakaera izan dute datu horiek?

Lanean ari diren gazteen ehunekoa txikiagoa da 2015ean (% 34,8) 2004-2011 aldian baino, baina zertxobait igo da 2013. urtetik. Izan ere, urte horretan izan zen txikiena ehuneko hori (% 30,9).

Lan egonkorra dutenen ehunekoa (hau da, lan-kontratu mugagabea edo aldizkako kontratu finkoa dutenak, kooperatibista direnak edo beren kontura lan egiten dutenak, guztira) 2013ko ehunekoaren antzekoa da (gazte landunen % 50,8 izan zen urte horretan, eta % 49,6, berriz, 2015ean), baina bi kasuetan txikiagoa da 2011koa baino (% 53,9).

Gazteen batez besteko soldata zertxobait igo da 2013ko soldatarekiko (hilean 966 eurokoa zen), eta 2011ko soldataren maila berdinerira iritsi da, baina kontuan izan behar da gazte guztien batez besteko soldataz ari garela. Bilakaera ez da berdina izan gizon eta emakume gazteentzat. Gizonezkoen batez besteko soldatak igoera izan du 2013ko soldataren aldean, eta emakumeen soldatak, berriz, behera egin du. Horren arrazoia da 30 urtetik beherako emakumeen artean asko ugartu direla lanaldi partzialeko enpleguak: 2013an, % 39,0 ziren lanaldi partzialeko lana zuten emakume gazteak, eta 2015ean, berriz, % 48,9 (lanaldi osoko enplegurik aurkitu ez zutelako, batik bat).


Beren eta/edo bikotekidearen diru-sarreretatik bizi diren gazteen ehunekoak behera egin du etengabe 2008tik. Urte hartan, gazteen % 33,6 zeuden egoera horretan. 2013. urtera arte, jaitsiera hori bat etorri zen lanean ari ziren gazteen ehunekoaren jaitsierarekin. 2013tik 2015era bitarteko bilakaera, berriz, ez da berdina izan bi adierazleetan: lanean dauden gazteen ehunekoa gora egiten hasi da, baina beren eta/edo bikotekidearen diru-sarreretatik bizi diren gazteen ehunekoak behera egiten jarraitu du.

Halaber, hilean 900 eurotik gora dituzten gazteen ehunekoa 2008an izan zen handiena (urte hartan 30 urtetik beherako gazteen % 22,7k zioten hilean diru-kopuru hori zutela, eta egoera hori bat zetorren enplegu-tasa handienekin), gero behera egin zuen, eta 2015ean berriro igo da % 22,6raino, enpleguaren berreskuratzearekin batera, eta 2008ko ehunekoaren berdina da ia.

Hilean 900 eurotik gora dituztenen bilakaera aztertzea hartu dugu irizpidetzat, erreferentzia hauek kontuan hartuta: batetik, hileko batez besteko soldatak 900 eta 1.000 euroren arteko tartean ibili direla azken urteotan, eta, bestetik, alokairuko etxebizitza libreen batez besteko alokairu-errentak hilean 872 euro izan direla 2015ean (Etxebizitzaren Euskal Behatokia argitaratutako datuen arabera<sup>1</sup>); beraz, 900 euro izango litzateke emantzipatu ahal izateko izan beharreko diru-sarreraren gutxiengo zenbatekoa, soldata oso bat alokairu-errenta ordaintzeko erabilita.

### 1.5 grafikoa

16-29 URTEKO PERTSONEN DIRU-SARRERA PROPIOEI BURUZKO ADIERAZLEEN BILAKAERA (%)



<sup>1</sup> Etxebizitzaren Euskal Behatokia (2016): *Higiezinaren merkatua EAEn, 2015. Laborpen-txostena*. Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila [Eskuragarri online, PDF formatuan] [http://www.garraioak.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/ovv\\_adm\\_sintesis15/eu\\_ovv\\_admi/adjuntos/informeSintesis2016-EU.pdf](http://www.garraioak.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/ovv_adm_sintesis15/eu_ovv_admi/adjuntos/informeSintesis2016-EU.pdf) [Kontsulta:2016/11/21]

Beraz, ikusten da azken bi urteetan, 2013tik 2015era, enplegua berreskuratu dela, bai eta gazteen diru-baliabideak ere, baina hala ere gehienetan ez dira nahikoak independizatzuta bizitzeko.

## 1.2. 30-34 URTEKO PERTSONEN LAN-EGOERA ETA EGOERA EKONOMIKOA

### 30 urtetik aurrera, gora egiten al dute diru-sarrerek eta autonomia ekonomikoa?

Lehenik eta behin, aipatu behar da 30-34 urteko pertsonen taldean lanean ari direnen ehunekoa bikoitza dela (% 69,0) 30 urtetik beherako taldean baino (% 34,8). Bestalde, 30-34 urtekoen artean, % 5,9 langabezian daude, langabezia-prestazioa kobratzen. Horrenbestez, adin-tarte horretan, lau lagunetik hiruk (% 74,9) nolabaiteko diru-sarrera ekonomikoa dute (soldata edo langabezia-prestazioa).

Adin-tarte horretan, lan-baldintzak hobeak dira: lan-kontratu mugagabeen eta aldizkako lan-kontratu finkoen ehunekoak handiagoak dira (adin horretan, kontratuen % 61,0), eta gehiago dira beren kontura lan egiten duten pertsonak (langileen % 12,2).

30-34 urteko lau langiletik hiruk (% 77,2) lanaldi osoko kontratua dute, eta adin horretan, batez besteko soldata 1.242 eurokoa da (hilean 1.374 euro lanaldi osoan jarduten dutenentzat, gehiengoarentzat alegia, eta 784 euro lanaldi partziala dutenentzat)

30-34 urteko gazte landunen batez besteko soldata hilean 1.242 eurokoa da, 30 urtetik beherako taldean baino 246 euro gehiago (talde horretan, batez besteko soldata hilean 996 eurokoa da).

30-34 urteko taldeko pertsonak hilean duten zenbatekoa aztertuta (talde osoa hartuta, lan-egoera dena delakoa izanda ere), % 23,8k 600 eurotik beherako diru-baliabideak dituzte hilean (30 urtetik beherako taldean, gehienek 600 euro baino gutxiago zituzten hilean); % 26,5ek 600-1.200 euro dituzte; eta % 38,7k, berriz, 1.200 euro baino gehiago.

Datu horiek 16-29 urteko taldeari buruzko datuekin alderatzeko muga 900 eurotan ezartzen badugu, ikusiko dugu gazteen % 22,6k eskuratzen dutela zenbateko horretatik gora 30 urtetik beherako taldean, eta % 54,6k (gehiengoa) 30-34 urteko taldean. Adin-tarte horretan (30-34 urte) lan egiten dutenetatik bi herenek (% 66,4) 900 euro baino gehiago dituzte hilean.


Adin-talde horretakoek hilean dituzten diru-baliabideen bilakaera 2011tik 2015era baino ezin dugu aztertu, ez baitugu lehenagoko daturik. Bilakaera horrek adierazten digu hilean 900 eurotik gora dutenen ehunekoak gora egin duela 2011. urtearekiko (urte hartan, adin-tarte horretako pertsona guztien % 47,2 ziren), eta, batik bat, 2013. urtearekiko (urte horretan, hilean 900 eurotik gora zituztenen ehunekoa are txikiagoa zen, % 40,9 hain zuzen ere).

Hileko diru-sarreraren bilakaerak hileko batez besteko soldataren joera berdina du. 2011n, 30-34 urteko pertsona landunen taldeko batez besteko soldata hilean 1.210 €-koa zen; 2013an, 1.186 eurora jaitsi zen; eta 2015ean, berriz, berreskuratu egin da eta 2011ko zenbatekoaren ginetik dago (1.242 euro hilean).

Joera hori ez da berdina 30-34 urteko eta 16-29 urteko arteko taldeetan. Adin handiagokoen taldean, batez besteko soldatak eta hileko diru-sarrerak handiagoak dira 2015ean 2011n baino. 30 urtetik beherako taldean, berriz, 2015eko zenbatekoak 2011koen parekoak dira baina 2013koak baino handiagoak.

## 1.6 grafikoa

GAZTE LANDUNEN BATEZ BESTEKO SOLDATAREN ETA HILEAN 900 €-TIK GORA DITUZTEN PERTSONEN EHUNEKOAREN BILAKAERA. 30 URTETIK GORAKOEN ETA BEHERAKOEN ARTEKO ALDERAKETA




30-34 urteko pertsonak dituzten diru-sarreraren iturriari dagokionez, adin horretako pertsonen % 73,3k diote beren diru-sarreretatik eta/edo beren bikotekideen diru-sarreretatik bizi direla. % 11,8 familiaren diru-sarreraren mende daude erabat, eta beste % 12,4k beren diru-sarrerak osatzen dituzte jatorriko familiaratik eskuratutako diru-sarrerekin (gurasoak, anaia-arrebak, aitona-amonak...). Lanean ari direnen artean, beren eta/edo bikotekidearen diru-sarreretatik bizi direnen ehunekoa % 80,6ra arte iritsi da, baina oraindik ere, % 17,8 ez dira ekonomikoki independenteak, nahiz eta ordaindutako lana duten.

Beren eta/edo bikotekidearen diru-sarreretatik bizi direnen ehunekoa handiagoa da adin-talde horretan (% 73,3) 30 urtetik beherako pertsonen taldean baino (% 26,7). Nolanahi ere, joera bera dago bi adin-taldeetan: 2011tik 2015era, beren eta/edo bikotekidearen diru-sarreretatik bizi direla dioten ehunekoak etengabeko beherakada izan du. Aztertzen ari garen taldean (30-34 urte) % 81 zen 2011n, % 78,0, 2013an; eta % 73,3, berriz, 2015ean.

### 1.7 grafikoa

LANEAN ARI DIREN GAZTEEN ETA BEREN DIRU-SARRERETATIK ETA/EDO BIKOTEKIDEAREN DIRU-SARRERETATIK BIZI DIREN GAZTEEN EHUNEKOEN BILAKAERA. 30 URTETIK GORAKOEN ETA BEHERAKOEN ARTEKO ALDERAKETA (%)



Halaber, bi adin-taldeak alderatzean, ikusten da 30 urtetik beherako taldean gehiago direla lana dutenak beren diru-sarreretatik eta/edo bikotekidearen diru-sarreretatik bizi direnak baino, baina 30-34 urteko taldean, gehiago dira beren diru-sarreretatik edo bikotekidearen diru-sarreretatik bizi direnak lana dutenak baino. Horrek adierazten du bigarren talde horretan pertsona gehiago bizi direla bikotekidearekin, harekiko menpekotasun ekonomikoa izanda.

Nolanahi ere, atal hau amaitzeko, aipatuko dugu azken urteotan 30-34 urteko pertsonen batez besteko soldatak gora egin duela, bai eta hilean 900 eurotik gora dutela diotenen ehunekoak ere, baina hala ere, adin horretan, gero eta txikiagoa da beren eta/edo bikotekidearen baliabide ekonomikoetatik bizi direnen ehunekoak.

## 1.3. KAPITULUAREN LABURPENA

30 urtetik beherako gazteen herena baino zertxobait gehiago ari dira lanean, eta gutxiago dira familiaren diru-sarreraren mende ez daudenak eta beren eta/edo bikotekidearen diru-sarreretatik bizi direnak (gazteen laurdena, gutxi gorabehera), eta are gutxiago dira hilean 900 eurotik gora dituzten 16-29 urteko gazteak.

Adierazle horien bilakaerak erakusten du 2015ean egoera hobea dela 2013an baino, baina okerragoa dela 2011n baino, orduan baino gutxiago baitira lanean ari diren gazteak eta txikiagoa da beren eta/edo bikotekidearen diru-

sarreretatik bizi diren pertsonen ehunekoa (hau da, jatorrizko familiaren mende egon beharrik gabe), nahiz eta hilean 900 eurotik gorako diru-sarrerak dituzten gazteen ehunekoa antzekoa den bi urteotan.

Egoera hori dela eta, 30 urtetik beherako pertsonen taldean, ondoriozta daiteke oso gutxik dituztela emantzipatu ahal izateko baliabide ekonomikoak, eta gainera, haien egoerak okerrera egin duela azken lau urteotan.

30-34 urteko pertsonen taldean, lanean ari diren pertsonen ehunekoa bikoitza da 30 urtetik beherakoen taldearen aldean, eta gainera, batez besteko soldata handiagoa da. Adin horretako pertsona gehienek hilean 900 euro baino gehiago dituzte, eta lautik hiruk diote beren diru-sarreretatik eta/edo bikotekidearen diru-sarreretatik bizi direla. 2011tik 2015era bitarteko bilakaerak erakusten du hilean 900 eurotik gora dituzten pertsonen ehunekoak gora egin duela, baina beren eta/edo bikotekidearen diru-sarreretatik bizi direnen ehunekoak, aldiz, behera egin duela.

# 2

## Emantzipatutako gazteen zifrak eta ezaugarriak

Kapitulu honetan, aztertuko dugu zenbat gazte bizi diren emantzipatuta eta zer ezaugarri soziodemografiko dituzten. Ikusiko dugu zer arrazoi direla-eta emantzipatu diren eta norekin bizi diren gaur egun. Halaber, gizon eta emakume gazteen arteko aldeak aztertuko ditugu.

Bestalde, ikusiko dugu zer bilakaera izan diren azken urteotan, bai emantzipatutako pertsonen ehunekoetan, bai pertsona horien ezaugarrietan.


### 2.1. ZENBAT GAZTE DAUDE EMANTZIPATUTA?

16-29 urteko gazteen taldean, % 26,8 bizi dira emantzipatuta, jatorriko familiaren etxebizitzatik kanpo; hau da, gurasoen, anai-arreben eta abarren etxetik kanpo.

Edonola ere, gehiengoa dira beren jatorriko familiarekin bizi direla diotenak (2015ean, % 71,5). Ehuneko hori handiagoa da Europar Batasuna (EB) osatzen duten 28 herrialdeen batezbestekoa baino (2013an, % 66,1).

### 2.1 grafikoa

GURASOEKIN BIZI DIREN 16-29 URTEKO GAZTEAK.  
ALDERAKETA EUSKADIREN ETA EB-REN ARTEAN (%)




Euskadin, emantzipatutako gazteen ehunekoak zertxobait behera egin du 2013tik, urte hartan 16-29 urteko gazte guztien % 27,2 baitzeuden emantzipatuta, baina handiagoa da 2011. urtean baino (% 25,0) eta, batik bat, 2008an (% 19,8) eta 2004an (% 14,4) baino.

2008an izan ziren, hain zuzen, gazte landunen, beren diru-sarreretatik eta/edo beren bikotekidearen diru-sarreretatik bizi ziren gazteen, eta hilean 900 eurotik gora zituzten gazteen ehunekorik handienak (1. kapituluan aipatu dugun moduan). Urte horretan, ordea, emantzipatutako pertsonen kopuruari dagokionez, 2015ekoa baino txikiagoa izan zen, % 7, hain zuzen. Izan ere, 2008an egon ziren garestien etxebizitzaren prezioak. Horren erakusgarri, esan daiteke Euskadiko etxebizitza libreen batez besteko alokairu-errenta 969 euro zela, eta urte horretan eratutako hipotekaren batez besteko hileko kuota, berriz, 959 euro<sup>2</sup>.

<sup>2</sup> Etxebizitzaren Euskal Behatokia. *Ibidem*.

## 2.2 grafikoa

EUSKADIKO HIPOTEKA-KUOTEN ETA ALOKAIRU-ERRENTEN ZENBATEKOEN BILAKAERA, ETA 16-29 URTEKO TALDEAN LANEAN ARI DIREN GAZTEEN ETA GAZTE EMANTZIPATUEN EHUNEKOEN ARTEKO ALDERAKETA



Batez besteko alokairu-errenten eta hipoteken kuoten datuen iturria: Etxebizitzaren Euskal Behatokia (Higiezinaren merkatua EAEn 2015)

### Zer kolektibotan daude pertsona emantzipatu gehien?


Emakume gazteen artean gizon gazteen artean baino handiagoa da emantzipatuen ehunekoa (% 31,9 eta % 22,1, hurrenez hurren; hau da, ia hamar puntuko aldea dago).

Gazte emantzipatu gehienak 25-29 urteko taldekoak dira (% 46,0). Ehuneko hori nabarmen txikiagoa da gazteagoengan (20-24 urtekoen taldean, % 19,0, eta 16-19 urtekoen taldean, % 3,9).

Adinen arteko aldeei urtetik urtera erreparatuz gero, ikusten da 28 urtetik aurrera hasten dela gazte emantzipatuen ehunekoa gehiengoa izaten.

### 2.3 grafikoa

16-29 URTEKO PERTSONA EMANTZIPATUAK, ADIN-TALDEKA (%)




Lanean edo langabezian dauden gazteen artean, emantzipatuen ehunekoak askoz handiagoak dira ikasleen artean baino: lanean ari direnen % 44,2 eta langabezian dauden % 44,0 emantzipatuta daudela diote; batik bat ikasten jarduten dutenetatik, berriz, % 6,5 daude emantzipatuta.

Halaber, emantzipazioari dagokionez, alde handiak daude hilerako diru-baliabideen eta gizarte-klasearen arabera. Hilean 1.200 eurotik gora dituztenen artean, emantzipatuen ehunekoa % 60,6ra iristen da. Gizarte-klaseari dagokionez, berriz, kontrakoa gertatzen da: beren burua behe-mailako edo maila ertain baxuko gizarte-klasekotzat hartzen dutenen artean handiagoa da gazte emantzipatuen ehunekoa beren burua goi-mailako edo maila ertain altuko gizarte-klasekotzat hartzen dutenen artean baino (% 43,4 eta % 22,5, hurrenez hurren). Baina kontua da gizarte-klasearen atzean jatorriaren eragina dagoela. Gazte etorkinetatik (atzerrian jaiotakoak) erdiak baino gehiagok emantzipatuta daudela diote (% 55,3). Euskadin jaiotako gazteen artean, % 19,2 daude emantzipatuta. Eta gehiago dira beren burua behe-mailako edo maila ertain baxuko gizarte-klasekotzat hartzen dutenak atzerrian jaiotako gazteen artean Euskadin jaiotakoen artean baino.

30 urtetik beherako gazte emantzipatuen ehunekoaren bilakaera aztertzen badugu, Euskadin eta atzerrian jaiotako pertsonak bereizita, ikusten da Euskadin jaiotako direnen artean ehuneko horrek gora egin duela 2004ko datuen aldean, baina apenas iristen da adin horretako pertsona guztien % 20ra. Hain zuzen ere, 2004an, % 12,4 ziren; 2008an, % 14,9; 2011n, % 19,5; 2013an, % 20,4; eta 2015ean, % 19,2. Atzeritarren artean, aldiz, bilakaerak erakusten du atzerriko gazte gehienak emantzipatuta zeudela urte horietan, 2004an izan ezik (2004an, Euskadin bizi ziren gazte atzeritarren proportzioa orain baino askoz txikiagoa zen, eta, beraz, pertsona gutxiago zeuden laginean ezaugarri horiekin, eta horrek eragina du datuen fidagarritasunean).

**2.4 grafikoa**

16-29 URTEKO PERTSONA EMANTZIPATUEN BOLUMENAREN BILAKAERA,  
JAIOTZA-LEKUAREN ARABERA (%)



## 2.2. EMANTZIPATUTAKO GAZTEEN ETA EMANTZIPATU NAHI DUTENEN ARTEKO ALDEA

Aipatu berri dugu 16-29 urteko pertsonen % 26,8 emantzipatuta daudela. Baina kontuan izan behar da 16-29 urteko gazteen taldean era guztietako egoerak daudela, eta alde handiak daudela adinaren arabera, bai bizi diren lekuari dagokionez, bai bizitzeko nahi duten lekuari dagokionez.

Oro har, gazte gehienek (% 87,9, hain zuzen) jatorriko familiaren etxebizitzatik kanpo bizi nahi dute edo nahiko lukete. Ehuneko hori handiagoa da adinean gora egin ahala: 16-19 urteko taldean, % 80,2; 20-24 urteko taldean, % 88,1; eta 25-29 urteko taldean, berriz, % 92,1. Halaber, familiaren etxebizitzatik kanpo bizitzeko gogo handiagoa da lanean ari direnen artean ikasleen artean baino (% 92,1 eta % 83,8, hurrenez hurren).

Hori dela eta, 30 urtetik beherako gazteen taldean, zenbateko aldea dago emantzipatuta bizi nahi duten edo nahiko luketen (oraingoz horretarako bitartekorik ez badute ere) gazteen eta familiaren etxebizitzatik jada emantzipatu direnen artean? Hain zuzen, 61,1 puntuko aldea dago batzuen eta besteen ehunekoaren artean; hau da, gazte gehienek emantzipatu nahi dute baina ezin dute hori egin.

Nahiaren eta errealitatearen arteko alde handienak 20 urtetik beherako pertsonen eta ikasleen artean dauden arren (emantzipatzeko gogo handia dute, nahiz eta horretarako baliabiderik izan ez), bereziki kezagarria da 47,9 puntuko aldea izatea lana okupazio nagusitzat dutenen kolektiboan; izan ere, lana izan arren, ez daude emantzipatzeko moduko egoeran (ez nahi duten moduan, behintzat).

## 2.1 taula


16-29 URTEKO TALDEAN, EMANTZIPATU NAHI DUTEN ETA ADIN HORRETAN EMANTZIPATU DIREN GAZTEEN ARTEKO ALDEA, SEXUAREN, ADIN-TALDEEN ETA OKUPAZIO NAGUSIAREN ARABERA (%)

| (%)  | GUZTIRA | Sexua     |         | Adin-taldeak |            |            | Okupazio nagusia |        |             |
|--|---------|-----------|---------|--------------|------------|------------|------------------|--------|-------------|
|  |         | Emakumeak | Gizonak | 16-19 urte   | 20-24 urte | 25-29 urte | Ikasten          | Lanean | Langabezian |
| Emantzipatu nahi duten gazteak                           | 87,9    | 89,2      | 86,6    | 80,2         | 88,1       | 92,1       | 83,8             | 92,1   | 91,6        |
| Gazte emantzipatuak                                      | 26,8    | 31,9      | 22,1    | 3,9          | 19,0       | 46,0       | 6,5              | 44,2   | 44,0        |
| Emantzipatzeko nahiaren eta errealitatearen arteko aldea | 61,1    | 57,3      | 64,5    | 76,3         | 69,1       | 46,1       | 77,3             | 47,9   | 47,6        |
| (n)  | 1338    | 664       | 674     | 338          | 400        | 600        | 627              | 468    | 202         |

Emantzipatu nahi duten gazteen eta emantzipatu diren gazteen ehunekoaren arteko aldeak gorabeherak izan ditu 2004tik. 2004-2008 aldian behera egin zuen, 30 urtetik beherako gazte emantzipatuen ehunekoak gora egin zuelako (bost puntu), batetik, eta emantzipatzeko nahiak behera egin zuelako, bestetik (ziur asko, etxebizitzaren prezioen igoeragatik, lehen aipatu bezala, emantzipatzeko gogoia kendu baitzitzairen gazte askori). 2011n, gora egin zuen, familiaren etxetik kanpo bizi nahi zutela adierazten zuten gazteen ehunekoa nabarmen handitu zelako. 2013an zertxobait jaitsi zen, eta 2015ean, berriz, ehunekoa 2011ko ehunekoaren antzekoa da.

## 2.5 grafikoa

EMANTZIPATU NAHI DUTEN GAZTEEN ETA EMANTZIPATUTA DAUDENEN EHUNEKOEEN ARTEKO ALDEAREN BILAKAERA (%)




## 2.3. NOREKIN BIZI DIRA EMANTZIPATUTAKO GAZTEAK?

Emantzipatutako gazteen ia bi heren (% 64,5) bikotekidearekin bizi dira, seme-alabekin edo gabe. Gutxi dira, hamarretik bat, bakarrik emantzipatutako pertsonak (% 11,1), bai eta seme-alabekin baina bikotekiderik gabe bizi direnak ere (% 6,9). % 14,4 lagunekin edo pisukideekin bizi dira.

### 2.6 grafikoa

30 URTETIK BEHERAKO GAZTE EMANTZIPATUEN BANAKETA,  
NOREKIN BIZI DIREN KONTUAN HARTUTA (%)




Azken urteotan, behera egin du bakarrik emantzipatzen diren gazteen ehunekoak: % 18,0 ziren 2011n; % 15,8, 2013an; eta % 11,1, 2015ean.

Bikotekidearekin emantzipatzeko aukera (seme-alabekin, beste senide batzuekin edo familiaz kanpoko beste pertsona batzuekin edo gabe) gero eta indar handiagoa hartzen ari da (2011n, emantzipatutako gazteen % 59,9; 2013an, % 63,9; eta 2015ean, % 64,5). Lagunekin edo pisukideekin emantzipatutako pertsonen ehunekoa egonkor samarra da (2011n, % 13,7; 2013an, % 14,2; eta 2015ean, % 14,4).

Ezin da aztertu seme-alabekin edo beste senide batzuekin baina bikotekiderik gabe bizi direnen bilakaera, galdera horri erantzuteko jarri diren aukerak ez baitira berdinak izan aztertutako hiru urteetan.

## 2.7 grafikoa

16-29 URTEKO GAZTE EMANTZIPATUEN BIZIKIDETZA-EGOERAREN BILAKAERA (%)



Nesken eta mutilen emantzipazio-ereduen arteko aldeak nabarmenak dira. 2015ean bildutako datuei erreparatuz gero, ikusten da emakumeen taldean gizonen taldean baino gehiago direla bikotekidearekin emantzipatzen direnak. Halaber, emakumeen taldean, badira seme-alabekin baina bikotekiderik gabe bizi direnak (egoera hori ez da azaltzen 30 urtetik beherako gizonen taldean). Gizonen taldean emakumeen taldean baino handiagoak dira lagunekin edo pisukideekin emantzipatzen direnen ehunekoak.

Halaber, aldeak daude adinaren arabera. Izan ere, 25 urtetik beherako taldean 25 urtetik gorako taldean baino ohikoagoa da, emantzipatzeko, lagunekin edo familiaz kanpoko beste pertsona batzuekin etxebizitza partekatzea.

Elkarrizketatutako pertsonen jaiotza-lekuak ere eragina du. Euskadin jaio direnen artean, handiagoak dira bikotekidearekin (seme-alabekin edo beste senide batzuekin edo gabe) zein bakarrik bizi direnen ehunekoak. Atzerrian jaio direnen taldean, nahiz eta gehiengoa ez diren, pertsona gehiagok partekatzen dute etxebizitza lagunekin edo beste pertsona batzuekin (senideak izan edo ez).

**2.2 taula**

16-29 URTEKO GAZTE EMANTZIPATUAK NOREKIN BIZI DIREN, SEXUAREN, ADIN-TALDEEN ETA JAIOTZA-LEKUAREN ARABERA (%)

| (%)  | Sexua     |         | Adin-taldeak |            | Jaiotza-lekua |          |
|--|-----------|---------|--------------|------------|---------------|----------|
|  | Emakumeak | Gizonak | 16-24 urte   | 25-29 urte | Euskadi       | Atzerria |
| Bakarrik   | 10,9      | 11,3    | 9,1          | 11,8       | 16,1          | 5,1      |
| Bikotekidearekin (batzuetan seme-alabekin edo beste senideekin batera) | 66,6      | 61,7    | 53,0         | 68,7       | 70,5          | 56,3     |
| Seme-alabekin baina bikotekiderik gabe                                 | 12,0      | 0,0     | 10,2         | 5,7        | 6,3           | 5,9      |
| Beste senide batzuekin   | 0,5       | 4,1     | 2,0          | 2,0        | 1,1           | 5,1      |
| Lagunekin edo pisukideekin   | 8,7       | 22,0    | 24,2         | 10,8       | 6,0           | 27,2     |
| Beste egoera bat   | 1,3       | 0,8     | 1,5          | 1,0        | 0,0           | 3,1      |
| Gazte emantzipatuak, GUZTIRA   | 100       | 100     | 100          | 100        | 100           | 100      |
| (n)  | 220       | 154     | 92           | 282        | 212           | 126      |

30 urtetik beherako gazte emantzipatuen etxebizitzetan, 2,5 pertsona bizi dira, batez beste.

Etxebizitzen % 11,1ean, pertsona bakar bat bizi da (hori bat dator bakarrik bizi direla dioten gazte emantzipatuen ehunekoarekin). Ia etxebizitzen erdian (% 46,5), bi pertsona bizi dira. Ehuneko hori ia bat dator soilik bikotekidearekin, bikotekiderik gabe baina seme edo alabaren batekin, edo bikotekideaz eta seme-alabez besteko senideren batekin bizi direnen ehuneko baturarekin.

% 26,6k dio bere etxebizitzan hiru pertsona bizi direla; % 10,9k dio lau pertsona bizi direla; eta gainerako % 5ak, berriz, lau pertsona baino gehiago bizi direla.

Lagunekin bizi direla edo familiaz kanpoko beste pertsona batzuekin etxebizitza partekatzen dutela dioten artean, hiru pertsona elkarrekin bizitzea izaten da ohikoena.

Nolanahi ere, datu horiek tentu handiz hartu behar dira, lagineko gazte gutxi baitaude egoera horietan.

### 2.3 taula

16-29 URTEKO GAZTE EMANTZIPATUEN ETXEBIZITZETAN BIZI DEN PERTSONA-KOPURUA, AITORTUTAKO BIZIKIDETZA-EGOERAREN ARABERA (%)

| (%)  | Gazte emantzipatuak, GUZTIRA | Bakarrik | Bikotekidearekin (batzuetan seme-alabekin edo beste senideekin batera) | Lagunekin edo pisukideekin | Beste egoera bat (adibidez, seme-alabekin baina bikotekiderik gabe) |
|--|------------------------------|----------|--|----------------------------|---|
| Pertsona bat   | 11,1                         | 100,0    | 0,0  | 0,0                        | 0,0   |
| Bi pertsona  | 46,5                         |          | 57,1   | 29,0                       | 54,9  |
| Hiru pertsona  | 26,6                         |          | 27,1   | 43,6                       | 28,5  |
| Lau pertsona edo gehiago   | 15,8                         |          | 15,8   | 27,4                       | 16,6  |
| Gazte emantzipatuak, GUZTIRA   | 100,0                        | 100,0    | 100,0  | 100,0                      | 100,0   |
| Gazte emantzipatuen etxebizitzetan bizi diren pertsonak, batez beste | 2,5                          | 1        | 2,6  | 3,1                        | 2,7   |
| (n)  | 374                          | 45       | 238  | 56                         | 35  |

Galdera hau bakarrik emantzipatutako gazteei egin zaie

## 2.4. ZER ARRAZOI NAGUSIK BULTZATU DITUZTE PERTSONA HORIEK EMANTZIPATZERA?

Gazteak emantzipatzeko bi arrazoi nagusiak hauek dira: bikotekidearekin bizitzeko gogoia, ezkondata edo ezkondu gabe (gazteen % 43,5ek adierazten dute arrazoi hori), eta independizatzeko gogoia (% 37,9).

Bestalde, % 7,8k adierazi dute laneko arrazoiengatik lekuz aldatu behar izan zutelako emantzipatu direla, eta % 5,3k, berriz, ikasketengatik lekuz aldatu behar izan zutelako. % 1,4k adierazi dute familiarekin harreman txarrak zituztelako emantzipatu zirela, eta % 3,9k beste mota batzuetako arrazoiak adierazi dituzte.

Aurreko urteetako erantzunak aztertuz gero, ikusten da bikotekidearekin bizitzeko gogoia eta independizatzeko gogoia direla gazteak emantzipatzeko lehentasunezko arrazoiak. Nolanahi ere, 2013an, garrantzitsuak izan ziren ikasketekin eta lanarekin lotutako arrazoiak.

**2.4 taula**

## EMANTZIPATZEKO ARRAZOIEN BILAKAERA (%)

| (%)   | 2011 | 2013 | 2015 |
|---|------|------|------|
| Ezkundu edo bikotekidearekin bizitzera joatea | 41,5 | 33,3 | 43,5 |
| Independizatzeko gogoia                       | 38,6 | 36,2 | 37,9 |
| Lanagatik lekuz aldatzea                      | 6,9  | 9,3  | 7,8  |
| Ikasketengatik lekuz aldatzea                 | 3,4  | 11,2 | 5,3  |
| Familiarekin harreman txarrak izatea          | 1,6  | 1,7  | 1,4  |
| Bestelako arrazoia                            | 7,7  | 7,7  | 3,9  |
| Ed/Ee   | 0,4  | 0,6  | 0,2  |
| Gazte emantzipatuak, GUZTIRA                  | 100  | 100  | 100  |
| (n)   | 351  | 370  | 374  |

Galdera hau bakarrik emantzipatutako gazteei egin zaie

Gizon baino emakume gehiagok adierazten dute bikotekidearekin bizitzeko emantzipatzen direla. Arrazoi hori nagusi da gizonen artean ere, baina gizonek emakumeek baino proportzio handiagoan adierazten dituzte lanagatik edo ikasketengatik lekuz aldatzearekin lotutako arrazoiak.

25 urtetik beherakoek hortik gorakoek baino neurri handiagoan adierazten dituzte ikasketekin lotutako arrazoiak. Eta atzerrian jaiotako gazteek adierazten dituzte, batez besteko ehunekotik gora, lanarekin lotutako arrazoiak, nahiz eta kolektibo horren barruan ere arrazoi horiek minoritarioak diren.

**2.5 taula**

## EMANTZIPATZEKO ARRAZOIAK, SEXUAREN, ADIN-TALDEEN ETA JAIOTZA-LEKUAREN ARABERA (%)

| (%)   | GUZTIRA | Sexua     |         | Adin-taldeak |            | Jaiotza-lekua |          |
|---|---------|-----------|---------|--------------|------------|---------------|----------|
|   |         | Emakumeak | Gizonak | 16-24 urte   | 25-29 urte | Euskadi       | Atzerria |
| Ezkundu edo bikotekidearekin bizitzera joatea | 43,5    | 46,6      | 39,3    | 32,9         | 47,4       | 45,6          | 42,6     |
| Independizatzeko gogoia                       | 37,9    | 39,9      | 35,2    | 40,0         | 37,1       | 42,3          | 33,6     |
| Lanagatik lekuz aldatzea                      | 7,8     | 4,5       | 12,3    | 7,5          | 7,9        | 2,0           | 12,1     |
| Ikasketengatik lekuz aldatzea                 | 5,3     | 2,5       | 9,0     | 11,4         | 3,0        | 4,1           | 5,7      |
| Familiarekin harreman txarrak izatea          | 1,4     | 2,2       | 0,4     | 4,0          | 0,5        | 1,3           | 1,9      |
| Bestelako arrazoia                            | 3,9     | 4,1       | 3,7     | 4,2          | 3,8        | 4,4           | 4,1      |
| Ed/Ee   | 0,2     | 0,3       | 0,0     | 0,0          | 0,2        | 0,3           | 0,0      |
| Gazte emantzipatuak, GUZTIRA                  | 100     | 100       | 100     | 100          | 100        | 100           | 100      |
| (n)   | 374     | 220       | 154     | 92           | 282        | 212           | 126      |

Galdera hau bakarrik emantzipatutako pertsoneri egin zaie


Emantzipatzeko arrazoiak eta gaur egungo bizikidetz-egoera alderatuz gero, ikusten da independizatzeko arrazoi nagusizat bikotekidearekin bizitzen jartzea edo ezkontzea adierazi dutenen % 91,6 gaur egun bikotekidearekin bizi direla (seme-alabekin edo beste senide batzuekin zein gabe).

Independizatzeko gogoia emantzipatzeko arrazoi nagusizat adierazi dutenen artean, bizikidetz-egoerak askotarikoagoak dira, baina nabarmentzekoa da bakarrik bizi direnek (independizatzeko arrazoi adierazi dutenen % 19,9) hartu duten indar erlatibo handiagoa (emantzipatutako gazte guztien batezbestekoari dagokionez).

Familiaren etxetik joateko lana edo ikasketak arrazoi nagusizat adierazi dutenen artean, ia erdiak (% 47,3) diote lagunekin edo pisukideekin bizi direla gaur egun.

## 2.5. ZER ALDE DAGO 30-34 URTEKO PERTSONEKIN?

30-34 urteko pertsonen artean, emantzipatutako pertsonak gehiengoa dira: % 74,3. Ehuneko hori 30 urtetik beherako pertsonen ehunekoaren (% 26,8) ia hirukoitza da. Bilakaera bost urteko adin-taldeka aztertuz gero, ikusten da igoera hori apurka-apurkakoa dela.



30-34 urteko gazte emantzipatuen ehunekoa ez da asko aldatu azken urteotan: 2011n, % 73,7 ziren, eta 2013an, berriz, % 76,2.

2015eko datuei erreparatuz gero, ikusten da 30-34 urteko emakume emantzipatuen ehunekoa emantzipatutako gizonena baino handiagoa dela adin-tarte horretan (% 79,2 eta % 69,7, hurrenez hurren).

Emantzipatutako pertsonen proportzioa handiagoa da atzerrian jaio direnen artean (% 85,6) Euskadin jaio direnen artean baino (% 70,4)

Gipuzkoan da handiena 30-34 urteko pertsona emantzipatuen ehunekoa (% 81,3), bai eta 30 urtetik beherako gazte emantzipatuen ehunekoa ere. Araban, 30-34 urteko pertsonen % 72,5 daude emantzipatuta, eta Bizkaian, berriz, % 70,7.

Bestalde, 30-34 urteko taldeko pertsonen non bizi nahi duten eta gaur egun non bizi diren alderatzen badugu, ikusten da adin horretako pertsonen % 92,9k familiaren etxebizitzaz besteko etxebizitza batean bizi nahi dutela, baina emantzipatu direnak % 74,3 direla.


Emantzipatuta bizi nahi duten pertsonen eta emantzipatu diren pertsonen ehunekoen arteko aldea 18,6 puntukoa da.

Ehuneko hori askoz txikiagoa da 30 urtetik beherakoen arteko aldearen ehunekoa baino (% 61,1), baina hala ere, kezkarria da 30-34 urteko taldeko bost lagunetik ia batek ezin emantzipatzea, hori egiteko gogoia badu ere.

Alde horren bilakaerak egoera nahiko egonkorra erakusten digu azken urteotan: 2011n, emantzipatuta bizi nahi duten pertsonen eta emantzipatu diren pertsonen ehunekoen arteko aldea 18,4 puntukoa zen, eta 2013an, berriz, 19,2koa.

### 2.9 grafikoa

EMANTZIPATUTA BIZI NAHI DUTEN PERTSONEN ETA EMANTZIPATUTA DAUDEN PERTSONEN EHUNEKOEN ARTEKO ALDEAREN BILAKAERA (%)



30-34 urteko pertsona emantzipatu gehienak (% 79,4) bikotekidearekin bizi dira (seme-alaba edo beste senide batzuekin zein gabe). % 3,9 seme-alabekin bizi dira, baina bikotekiderik gabe. % 13,7 bakarrik bizi dira, eta % 6,5, berriz, lagunekin edo pisukideekin. Gainerako % 1,1ek diote beste senide batzuekin bizi direla (ez bikotekidea, ezta seme-alabak ere).

30 urtetik beherako gazte emantzipatuekin alderatuz gero, ikusten da 30-34 urteko taldean pertsona gehiago bizi direla bikotekidearekin, eta gutxiago lagunekin (kolektibo hori erdira jaisten da 30 urteko muga gainditzean).

**2.6 taula**

EMANTZIPATUTAKO PERTSONAK NOREKIN BIZI DIREN. 30 URTETIK GORAKOEN  
ETA BEHERAKOEN ALDERAKETA (%)

| (%)  | 16-29 urte | 30-34 urte |
|--|------------|------------|
| Bakarrik   | 11,1       | 13,7       |
| Bikotekidearekin (batzuetan seme-alabekin edo beste senideekin batera) | 64,5       | 74,9       |
| Seme-alabekin baina bikotekiderik gabe                                 | 6,9        | 3,9        |
| Beste senide batzuekin   | 2,0        | 0,8        |
| Lagunekin edo pisukideekin   | 14,4       | 6,5        |
| Beste egoera bat   | 1,1        | 0,3        |
| Pertsona emantzipatuak, GUZTIRA  | 100        | 100        |
| (n)  | 374        | 450        |

Galdera hau bakarrik emantzipatutako pertsonen egin zaie

Emantzipatutako gazteen bizikidetz-modalitateak ez dira asko aldatu 2011tik 2015era. Bikotekidearekin emantzipatzea da aukera nagusia, eta gehiago dira bakarrik bizi direnak bikotekidearekin bizi diren besteko modalitatea erabiltzen dutenak baino (lagunekin edo senideekin bizi diren, esaterako). Datu aipagarri bakarra bakarrik bizi diren 30-34 urteko pertsonen beherakada txikia baina etengabea da: % 17,4, 2011n; % 15,6, 2013ean; eta % 13,7, 2015ean.

Emakumeen artean gizonen artean baino hedatuago dago (adin-tarte horretan behintzat) bikotekidearekin bizi diren (seme-alabekin edo gabe) edo seme-alabekin baina bikotekiderik gabe bizi diren. Gizonak, berriz, emakumeak baino proportzio handiagoan bizi dira bakarrik edo lagunekin, edo familiaz kanpoko pertsonekin etxebizitza partekatzen.

Halaber, alde handiak daude jatorriaren arabera. Euskadin jaio diren pertsonen artean, handiagoa da bakarrik edo bikotekidearekin bizi diren proportzioa; atzerrian jaio diren pertsonen artean, berriz, handiagoa da seme-alabekin baina bikotekiderik gabe bizi diren edo familiaz kanpoko pertsonekin etxebizitza partekatzen dutenen ehuneko erlatiboa.

**2.7 taula**

30-34 URTEKO PERTSONA EMANTZIPATUAK NOREKIN BIZI DIREN, SEXUAREN  
ETA JAIOTZA-LEKUAREN ARABERA (%)

| (%)  | GUZTIRA | Sexua     |         | Jaiotza-lekua |          |
|--|---------|-----------|---------|---------------|----------|
|  |         | Emakumeak | Gizonak | Euskadi       | Atzerria |
| Bakarrik   | 13,7    | 6,6       | 21,3    | 16,1          | 8,7      |
| Bikotekidearekin (batzuetan seme-alabekin edo beste senideekin batera) | 74,9    | 79,9      | 69,4    | 79,2          | 58,7     |
| Seme-alabekin baina bikotekiderik gabe                                 | 3,9     | 7,1       | 0,4     | 2,3           | 10,8     |
| Beste senide batzuekin   | 0,8     | 0,9       | 0,6     | 0,0           | 1,4      |
| Lagunekin edo pisukideekin   | 6,5     | 4,8       | 8,2     | 2,4           | 19,1     |
| Beste egoera bat   | 0,3     | 0,6       | 0,0     | 0,0           | 1,4      |
| Pertsona emantzipatuak, GUZTIRA  | 100     | 100       | 100     | 100           | 100      |
| (n)  | 450     | 239       | 211     | 316           | 93       |

Galdera hau bakarrik emantzipatutako pertsonen egin zaie

30-34 urteko pertsona emantzipatuen etxebizitzetan 2,9 pertsona bizi dira, batez beste. Batezbesteko hori zertxobait handiagoa da 30 urtetik beherako gazte emantzipatuena baino (2,5), bikotekidearekin (seme-alabekin edo gabe) bizi direnen proportzioa handiagoa delako, 30-34 urteko pertsona emantzipatuen % 40,7 bizi baitira egoera horretan. 16-29 urteko pertsona emantzipatuen taldean, berriz, ehuneko hori % 24,1 da. Etxebizitza lagunekin edo senide ez diren beste pertsona batzuekin partekatzen dutenen artean, etxebizitzan bizi diren pertsonen batezbestekoa ia berdina da (3,1 pertsona 30 urtetik beherako taldean, eta 3,0, berriz, 30-34 urteko taldean).

Hauek izan ziren pertsona horiek emantzipatzeko arrazoi nagusiak: ezkontzea edo bikotekidearekin bizitzen jartzea (% 49,4) eta independizatzeko gogoia (% 38,6). % 8,0k adierazi dute familiaren etxetik lanagatik edo ikasketengatik atera zirela, eta % 3,8k beste arrazoi batzuk eman dituzte.

30 urtetik beherako gazte emantzipatuek aipatzen dituzten arrazoiekiko alde nagusia hau da: 30-34 urtekoen artean gutxiago aipatzen dira lanarekin eta ikasketekin lotuko lekualdatzeak, eta indar handiagoa hartzen du bikotekidearekin bizitzeko gogoak.

## 2.8 taula

EMANTZIPATUTAKO PERTSONEK EMANTZIPATZEKO ADIERAZITAKO ARRAZOIAK.  
30 URTETIK GORAKOEN ETA BEHERAKOEN ARTEKO ALDERAKETA (%)

| (%)   | 16-29 urte | 30-34 urte |
|---|------------|------------|
| Ezkondu edo bikotekidearekin bizitzera joatea | 43,5       | 49,4       |
| Independizatzeko gogoia                       | 37,9       | 38,8       |
| Lanagatik lekuz aldatzea                      | 7,8        | 5,8        |
| Ikasketengatik lekuz aldatzea                 | 5,3        | 2,2        |
| Familiarekin harreman txarrak izatea          | 1,4        | 0,4        |
| Bestelako arrazoiak                           | 3,9        | 3,4        |
| Ed/Ee   | 0,2        | 0,0        |
| Pertsona emantzipatuak, GUZTIRA               | 100        | 100        |
| <i>(n)</i>                                    | 374        | 450        |

Galdera hau bakarrik emantzipatutako pertsonari egin zaie

2015ean emantzipatzeko emandako arrazoiak 2011n eta 2013an emandako arrazoiekin alderatuz gero, ikusten da kasu guztietan nagusi direla bikotekidearekin bizitzeko edo bizimodu independentea izateko gogoia. Eta 2013an familiaren etxetik lan- edo ikasketa-arrazoiengatik atera zirela ziotenen ehunekoa handiagoa izan bazen ere (30-34 urteko pertsona emantzipatuen % 15,6), 2015ean 2011ko ehunekoa errepikatzen da ia (% 7,4).

2015eko datuak arreta handiagoz aztertuz gero, ikusten da emakumeen erdiak baino gehiagok adierazi dutela ezkontzean edo bikotekidearekin bizitzen jartzean emantzipatu direla. Gizonen artean, gutxiagok adierazten dute arrazoi hori (nahiz eta arrazoi nagusia den), eta emakumeen artean baino garrantzi handiagoa dute independizatzeko gogoak edo lan-arrazoiengatik lekualdatzeak.

Azken arrazoi hori, lanagatik lekualdatzeak alegia, atzerrian jaiotako 30-34 urteko pertsonak adierazten dute batik bat.

**2.9 taula**

30-34 URTEKO PERTSONEK EMANTZIPATZEKO ADIERAZITAKO ARRAZOIAK,  
SEXUAREN ETA JAIOTZA-LEKUAREN ARABERA (%)

| (%)   | GUZTIRA | Sexua     |         | Jaiotza-lekua |          |
|---|---------|-----------|---------|---------------|----------|
|   |         | Emakumeak | Gizonak | Euskadi       | Atzerria |
| Ezkondutako edo bikotekidearekin bizitzera joatea | 49,4    | 53,5      | 45,0    | 52,6          | 40,6     |
| Independizatzeko gogoia                           | 38,8    | 35,7      | 42,2    | 41,8          | 29,9     |
| Lanagatik lekuz aldatzea                          | 5,8     | 4,4       | 7,3     | 0,7           | 21,7     |
| Ikasketengatik lekuz aldatzea                     | 2,2     | 2,8       | 1,7     | 1,9           | 1,0      |
| Familiarekin harreman txarrak izatea              | 0,4     | 0,4       | 0,4     | 0,3           | 0,0      |
| Bestelako arrazoiak                               | 3,4     | 3,2       | 3,5     | 2,7           | 6,8      |
| Pertsona emantzipatuak, GUZTIRA                   | 100     | 100       | 100     | 100           | 100      |
| (n)   | 450     | 239       | 211     | 316           | 93       |

Galdera hau bakarrik emantzipatutako pertsonen egin zaie

**2.6. KAPITULUAREN LABURPENA**

16-29 urteko pertsonen taldeko laurdena baino zertxobait gehiago daude emantzipatuta; adin-tarte horretako gehienak, aldiz, gurasoen etxean bizi dira, eta Europako gazteen batezbestekoa gainditzen dute alderdi horretan.

30 urtetik beherako pertsona emantzipatuen ehunekoak etengabeko igoera izan du 2004tik 2013ra, eta 2015ean, berriz, egonkor jarraitzen du. Hala ere, ehuneko hori oso urruti dago gazteek adierazitako emantzipazio-gogoari dagokion ehunekoetik.

Gizon baino emakume gazte gehiago daude emantzipatuta, eta adinak gora egin ahala, gora egiten du emantzipatutako pertsonen kopuruak ere, nahiz eta 25-29 urtekoen taldean gehiengoa izatera heltzen ez den. Atzerrian jaiotako pertsona gazteen artean, emantzipazio-zifrak altuagoak dira Euskadin jaiotakoaren artean baino.

Emantzipatutako gazte gehienak bikotekidearekin bizi dira, eta gehiago dira lagunekin bizi direnak bakarrik bizi direnak baino (bakarrik emantzipatutakoaren kopuruak behera egin du azken urteotan). Gazteen etxebizitzetan bizi diren pertsonen batezbestekoa 2,5 da. Emantzipatzeko arrazoi nagusiak bikotekidearekin bizitzeko eta independizatzeko nahia dira.

30-34 urteko pertsonen taldean, emantzipatutakoaren ehunekoak askoz handiagoak da (ia hirukoitza), baina adin horretan, oraindik badaude emantzipatu nahi bai, baina ezin duten pertsonak. Adin horretako pertsona emantzipatu gehienak bikotekidearekin bizi dira, seme-alabekin edo gabe (izan ere, bikotekidearekin bizitzeko gogoia izan zen emantzipatzeko eragile nagusia) eta etxebizitzan bizi diren pertsonen batezbestekoak gora egiten du apur bat (2,9ra arte), 30 urtetik beherako taldekoek baino seme-alaba gehiago dituztelako.

# 3

## Emantzipazio-motak etxebizitzaren arabera


Kapitulu honetan, zenbait emantzipazio-estrategia aztertuko ditugu, hartzen den etxebizitza sailkatze-irizpidetzat hartuta. Hala, ikusiko dugu zenbat gaztek aukeratzen duten etxebizitza erostea ala alokairuan hartzea, zenbat emantzipatzen diren oinordetza bidez jasotako edo senide batek lagatako etxebizitzetara, eta zenbatek lortzen dituzten babes ofizialeko etxebizitzak (jabetzan edo alokairuan).

### 3.1. 16-29 URTEKO GAZTE EMANTZIPATUEK ETXEBIZITZA HARTZEKO MODALITATEAK

Gazte emantzipatuek etxebizitza hartzeko modalitatea da emantzipazio-motak zehazteko aztertu behar den lehenbiziko alderdietako bat. 30 urtetik beherako lau pertsona emantzipatutatik hiru (% 73,6) alokairuan bizi dira. % 17,8k etxebizitza erosi egin dute, eta % 6,3k oinordetza edo dohaintza bidez jaso dute, edo senideren batek edo enpresak aldi baterako lagata eskuratu dute. Gainerako % 2,3k diote etxebizitza beste modu batean eskuratu dutela.

3.1 grafikoa

30 URTETIK BEHERAKO GAZTE EMANTZIPATUEN BANAKETA, ETXEBIZITZA HARTZEKO MODALITATEAREN ARABERA (%)



Etxebizitza hartzeko modalitateari dagokionez, ia ez dago alderik gizon eta emakume gazteen artean. Adinaren arabera, aldeak daude: 25 urtetik beherakoek gehiago baliatzen dute alokairua 25-29 urteko taldekoek baino (% 84,1 eta % 69,8, hurrenez hurren).

Baina atzerrian jaiotako gazteen artean dago hedatuena alokairua. 30 urtetik beherako immigranteetatik % 91,6 bizi dira alokairuan. Euskadin jaiotako gazte emantzipatuen artean, berriz, % 61,0 bizi dira modalitate horretan.

Euskadin jaiotako pertsoneri dagokienez, aipatu behar da 30 urtetik beherako emantzipatutako hamar lagunetik batek etxebizitza oinordetza edo dohaintza bidez jaso duela, edo aldi baterako laga diotela; hau da, ordaindu beharrik gabe.

Azkenik, lurralde historikoen arteko aldeak aztertzen baditugu, ikusiko dugu Bizkaian eta Gipuzkoan zertxobait handiagoa dela alokairuan bizi direnen ehunekoa Araban baino. Araban, hain zuzen, beste lurraldeetan baino handixeagoa da etxebizitza erosketa bidez hartu dutenen ehunekoa, bai eta etxebizitza galdetegian adierazitakoek besteko aukeren bidez eskuratu dutela diotenen ehunekoa ere (okupazio bidez, esaterako).

### 3.1 taula

30 URTEK BEHERAKO GAZTE EMANTZIPATUEK ETXEBIZITZA HARTZEKO MODALITATEA, SEXUAREN, ADIN-TALDEEN, EGOITZAKO LURRALDE HISTORIKOAREN ETA JAIOTZA-LEKUAREN ARABERA (%)


| (%)   | GUZTIRA | Sexua     |         | Adin-taldeak |            | Lurralde historikoa |         |          | Jaiotza-lekua |          |
|---|---------|-----------|---------|--------------|------------|---------------------|---------|----------|---------------|----------|
|   |         | Emakumeak | Gizonak | 16-24 urte   | 25-29 urte | Araba               | Bizkaia | Gipuzkoa | Euskadi       | Atzerria |
|   |         |           |         |              |            |                     |         |          |               |          |
| Erosi dute  | 17,8    | 18,7      | 16,6    | 8,6          | 21,1       | 19,9                | 16,7    | 18,3     | 26,0          | 5,2      |
| Alokatu dute  | 73,6    | 71,8      | 76,1    | 84,1         | 69,8       | 68,6                | 74,2    | 75,1     | 61,0          | 91,6     |
| Oinordetza edo dohaintza bidez jaso dute edo laga diete | 6,3     | 6,8       | 5,7     | 3,3          | 7,4        | 7,3                 | 6,8     | 5,2      | 9,9           | 2,1      |
| Beste modu batean eskuratu dute                         | 2,3     | 2,8       | 1,7     | 4,0          | 1,7        | 4,1                 | 2,3     | 1,4      | 3,1           | 1,1      |
| Gazte emantzipatuak, GUZTIRA                            | 100     | 100       | 100     | 100          | 100        | 100                 | 100     | 100      | 100           | 100      |
| (n)   | 374     | 220       | 154     | 92           | 282        | 94                  | 131     | 149      | 212           | 126      |

Galdera hau bakarrik emantzipatutako gazteei egin zaie

Gizarte-klase subjektiboaren arabera ere, aldeak daude. Bi taldeetan alokairuaren aldeko aukera gehiengoa bada ere, etxebizitza erosi dutenen ehunekoa handiagoa da beren burua erdi-mailako edo maila ertain altuko gizarte-klasekotzat hartzen dutenen artean (% 21,8), beren burua behe-mailako edo maila ertain baxuko gizarte-klasekotzat hartzen dutenen artean baino (% 10,0).

Halaber, nahiz eta aukera minoritarioa izaten jarraitzen duen, ikusten da erosteko aukeraren alde egiten dutenak gehiago direla hilean 1.200 eurotik gora dutenen artean, hilean 1.200 eurotik behera dutenen artean baino (% 28,4 eta % 13,2, hurrenez hurren).

Azken urteotan, etxebizitza erosita emantzipatzen diren gazteen ehunekoak behera egin du, eta etxebizitza alokairuan hartzea aukeratzen dutenen ehunekoak, berriz, gora egin du nabarmen.



Eta gazteen etxebizitzetan bizi diren pertsonen batezbestekoa 2-3 bada, etxebizitza hartzeko modalitatea dena delakoa izanda ere, ikusten da etxebizitza erosi dutenen artean handiagoa dela bikotekidearekin (seme-alabekin edo gabe) edo bakarrik bizi direnen proportzioa, eta alokairuan bizi direnen artean, berriz, nabarmenagoa da lagunekin edo pisukideekin, edo seme-alabekin baina bikotekiderik gabe bizi direnen proportzioa, minoritaria bada ere.

Halaber, kasu guztietan bikotekidearekin bizitzeko nahia edo independizatzeko gogoia emantzipatzeko arrazoi nagusia izan bada ere, alokairuan bizi direnen artean, lanagatiko edo ikasketengatiko lekualdatzeekin lotutako emantzipazio-egoera gehiago daude.

Nolanahi ere, esan behar da etxebizitza erosi duten pertsona gazteei buruzko datuak hurbilketa gisa hartu behar direla eta ez kopuru zehatz gisa, elkarriketatutakoen laginean etxebizitza erosi duten gazte gutxi baitzeuden, eta, horrenbestez, datu horien fidagarritasuna txikiagoa da etxebizitza alokairuan hartuta emantzipatu direnen kolektiboari buruzko datuena baino.

## 3.2 taula

16-29 URTEKO GAZTEEN BIZIKIDETZA-EGOERA ETA EMANTZIPATZEKO ARRAZOIAK,  
ETXEBIZITZA HARTZEKO MODALITATEAREN ARABERA (%)

|                              | (%)  | GUZTIRA   | Etxebizitza hartzeko modalitatea |           |
|------------------------------|--|---|----------------------------------|-----------|
|                              |  |   | Erosketa                         | Alokairua |
|                              | Bakarrik   | 11,1  | 18,1                             | 8,7       |
| Bizikidetza-egoera           | Bikotekidearekin (batzuetan seme-alabekin edo beste senideekin batera) | 64,5  | 77,2                             | 62,1      |
|                              | Seme-alabekin baina bikotekiderik gabe                                 | 6,9   | 1,3                              | 8,6       |
|                              | Beste senide batzuekin   | 2,0   | 2,5                              | 1,3       |
|                              | Lagunekin edo pisukideekin   | 14,4  | 0,9                              | 18,8      |
|                              | Beste egoera bat   | 1,1   | 0,0                              | 0,5       |
|                              |  | Ezkonduta edo bikotekidearekin bizitzera joatea | 43,5                             | 49,9      |
| Emantzipatzeko arrazoiak     | Independizatzeko gogoia  | 37,9  | 43,1                             | 37,2      |
|                              | Lanagatik lekuz aldatzea   | 7,8   | 1,9                              | 9,2       |
|                              | Ikasketengatik lekuz aldatzea  | 5,3   | 2,5                              | 6,0       |
|                              | Familiarekin harreman txarrak izatea                                   | 1,4   | 0,0                              | 1,1       |
|                              | Bestelako arrazoiak  | 3,9   | 2,6                              | 4,0       |
| Gazte emantzipatuak, GUZTIRA |  | 100   | 100                              | 100       |
| <i>(n)</i>                   |  | 374   | 69                               | 272       |

Galdera hau bakarrik emantzipatutako gazteei egin zaie

### 3.2. ETXEBIZITZA JABETZAN HARTZEA

Aztertzeko beste alderdi bat da nola banatzen diren gazteak etxebizitzaren jabetzari dagokionez.

Etxebizitza erosi dutenei gehitzen badiegu etxebizitza oinordetza edo dohaintza bidez jasota etxebizitza horren jabe bihurtu direnak, ikusten da 30 urtetik beherako gazte emantzipatuen % 21,5ek beren etxebizitzak jabetzan dituztela. Gainerakoak ez dira bizi diren etxebizitzaren jabe, dela alokairuan daudelako, dela aldi baterako lagata hartu dutelako, dela beste modalitate zehaztugabeen hartu dutelako.

Jabetzak, gazteek etxebizitza hartzeko modalitate gisa, atzerakada izan du, aipatutako erosketa-beherakadaren ondorioz. Hori dela eta, 2011n, emantzipatutako gazteen % 33,1ek zuten etxebizitza jabetzan; 2013an, % 29,5ek; eta 2015ean, berriz, % 21,5ek.

2015ean etxebizitza jabetzan duten gazteen ehuneko hori (% 21,5) honela banatzen da: %13,4k hipoteka bat dute, eta beraz, ordainketak egiteke dituzte; % 4,4k hipoteka ordaintzen amaitu dute; eta % 3,7k oinordetza edo dohaintza bidez jaso dute etxebizitza, eta, horrenbestez, ez dute hipotekarik kontratatzeke beharrik izan etxea edo etxebizitza erosteko.

Sexuaren edo egoitzako lurralde historikoaren arabera, ez daude alde handiak hipoteka bat ordaintzen ari diren gazteen ehunekoetan. Jaiotza-lekuaren edo gizarte-klasearen arabera, ordea, badago aldea. Euskadin jaio diren 30 urtetik beherako pertsona emantzipatuen taldean, % 20,9 hipoteka ordaintzen ari dira; atzerrian jaio direnen artean, berriz, % 3,1ek soilik dute kontratatuta oraindik ordaintzen gabeko hipotekarik. Erdi-mailako edo maila ertain altuko gizarte-klaseko gazte emantzipatuen artean, hipoteka indarrean dutenen ehunekoa % 16,2 da. Behe-mailako edo maila ertain baxuko gizarte-klasekoen artean, ehuneko hori % 7,6 da.

Oro har, atzerrian jaio diren pertsonak eta beren burua behe-mailako edo maila ertain baxuko gizarte-klasekotzat hartzen dutenek alokatzea aukeratzen dute gehienbat, eta ehuneko txikiagoak dituzte jabetzarekin lotutako modalitateetan (erosketa, hipoteka oraindik guztiz ordainduta izan gabe; erosketa, hipoteka erabat ordainduta izanik; eta oinordetza edo dohaintza).

Hilean 1.200 eurotik gora dutenek neurri handiagoan hartzen dute hipoteka diru gutxiago dutenek baino: lehen taldean, % 20,3 ari dira hipoteka ordaintzen, eta % 8,1ek hipoteka ordaintzen amaitu dute. Bigarren taldean, berriz, % 10,4 ari dira hipoteka ordaintzen, eta % 2,8k dute hipoteka guztiz ordainduta.

### 3.3 taula

30 URTETIK BEHERAKO GAZTE EMANTZIPATUEK ETXEBIZITZA JABETZAN HARTZEAREKIN LOTUTAKO AUKERAK, JAIOTZA-LEKUAREN, GIZARTE-KLASE SUBJEKTIBOAREN ETA HILEKO DIRU-BALIABIDEEN ARABERA (%)

| Guztira (%)   | Jaiotza-lekua |          | Gizarte-klase subjektiboa |                           | Hileko diru-baliabideak |                      |      |
|---|---------------|----------|---------------------------|---------------------------|-------------------------|----------------------|------|
|   | Euskadi       | Atzerria | Erdi-maila + ertain altua | Behe-maila + ertain baxua | 1200 € baino gutxiago   | 1200 € baino gehiago |      |
| Erosi dute eta hipoteka erabat ordainduta dute          | 4,4           | 5,2      | 2,1                       | 5,6                       | 2,3                     | 2,8                  | 8,1  |
| Erosi dute eta hipoteka ordaintzen ari dira             | 13,4          | 20,9     | 3,1                       | 16,2                      | 7,6                     | 10,4                 | 20,3 |
| Oinordetzan edo dohaintzan hartu dute                   | 3,7           | 6,4      | 0,5                       | 4,4                       | 1,4                     | 2,9                  | 3,9  |
| Etxebizitza jabetzan duten gazte emantzipatuak, GUZTIRA | 21,5          | 32,5     | 5,7                       | 26,2                      | 11,3                    | 16,1                 | 32,3 |
| (n)   | 374           | 154      | 220                       | 237                       | 135                     | 239                  | 102  |

Galdera hau bakarrik emantzipatutako gazteei egin zaie

2015ean, hipoteka ordaintzen ari direnen artean, ordaintzeko geratzen zaien batez besteko denbora 24 urte dira.

Azken urteotan, beherakada izan da, bai oraindik guztiz ordaindu gabeko hipoteka dutenen ehunekoan, bai hipoteka ordaintzen amaitzeko falta diren urteen kopuruan.

Izan ere, 30 urtetik beherako gazte emantzipatuen taldean, beherakada handia egon da hipoteka ordaintzen ari diren ehunekoan: 2011n, % 26,4 ziren; 2013an, % 24,1; eta 2015ean, berriz, % 13,4. Arrazoi logikoena da gazteak ez direla ia hipotekarik sinatzen ari, eta hipoteka dutela diotenenek duela asko sinatu zutela. Horrek azalduko luke, halaber, ordaintzeko falta diren urte-kopuruaren beherakada: 2011n, 28 urte ziren, batez beste; 2013an, 26 urte eta erdi; eta 2015ean, 24 urte, guztiz ordaindu gabeko hipoteka duten gazteek erantzundakoaren arabera.

Etxebizitza-gastuei buruzko kapituluan aztertuko ditugu hipoteka-kuotaren hileko zenbatekoa eta zenbateko horren bilakaera, bai eta alokairu-errenta ordaintzeko hileko zenbatekoak ere.

### 3.3. ETXEBIZITZA ALOKAIURIAN HARTZEA

Lehen aipatu dugunez, 2015ean, 16-29 urteko gazte emantzipatuen % 73,6 alokatutako etxebizitzan bizi dira. Aukera horrek gora egin du, nabarmen, azken urteotan (ikusi 3.2 grafikoa), eta kolektibo guztietan da gehiengoa, salbuespenik gabe, baina bereziki hedatuta dago gazte atzerritarren artean (30 urtetik beherako gazte atzerritar emantzipatuen % 91,6 alokairuan bizi dira) eta beren burua behe-mailako edo maila baxu ertaineko gizarte-klasekotzat hartzen dutenen artean (% 83,0).


#### Zer arrazoi direla-eta aukeratzen dute pertsona horiek etxebizitza alokairuan hartzea?

Beren burua kreditu batean hipotekatu nahi ez izatea da aipatzen den arrazoi garrantzitsua (alokairua aukeratu duten 16-29 urteko gazte emantzipatuen taldean, % 42,5ek eman dute arrazoi hori).

Gero, beste bi arrazoi aipatzen dira ia maila berean: batetik, alokairuan emantzipatutako gazteen % 22,2k diote behin-behineko irtenbidea dela erosteko aukera izan arte, orain diru-sarrera nahikorik edo egonkorrik ez dutelako, edo banku-erakundeek krediturik ematen ez dietelako, eta bestetik, % 21,9k diote nahiago dutela alokairuan bizi, mugikortasun-aukera eta askatasun handiagoak dituztelako. % 12,5ek beste arrazoi batzuk adierazi dituzte, garrantzi txikiagoak.

#### 3.3 grafikoa

ALOKATUTAKO ETXEBIZITZAN BIZI DIREN 30 URTETIK BEHERAKO GAZTE EMANTZIPATUEN BANAKETA, ALOKAIURUA AUKERATZEKO EMAN DITUZTEN ARRAZOIEN ARABERA (%)



Aurreko urteetako datuak aztertuz gero, ikusten da 2011tik 2015era asko handitu dela beren burua kreditu batean hipotekatu nahi ez izateagatik alokairua aukeratu duten gazteen ehunekoa: 2011n, % 26 ziren; 2013an, % 33,1; eta 2015ean, berriz, % 42,5.

Igoera hori lotuta egon daiteke etxegabetzeekiko eta hipoteka-exekuzioekiko beldurrarekin, kontratatutako hipoteka ordaindu ezinean suertatuz gero. Estatistika Institutu Nazionalaren (INE) datuen arabera, Espainian, 2015eko azken hiruhilekoan (inkesta hau egin den unea), hipoteka exekutatze<sup>3</sup> 9.023 prozesu abiatu eta inskribatu dira jabetza-erregistroetan pertsona fisikoen (adin orotakoak) etxebizitzaren gainean. Euskadin, hiruhileko horretan hipoteka-exekuzioen kopurua nabarmen txikiagoa da (63 izan dira, hain zuzen). 2014ko lehen hiruhilekotik (hiruhileko horretakoak dira ditugun lehen datuak) 2015eko laugarren hiruhilekora arteko aldia kontuan hartuta, 528 hipoteka-exekuzio abiatu ziren Euskadin<sup>4</sup>.

Nolanahi ere, gazte emantzipatuen artean, behera egin du alokairua etxebizitza erosteko aukera izan bitarterako behin behineko irtenbidea dela diotenen ehunekoa (% 50,6 ziren 2011n, eta % 22,2, berriz, 2015ean). Hori dela eta, ondoriozta daiteke mentalitate-aldaketa gertatzen ari dela gazteen artean, etxebizitzaren jabetzari dagokionez.

### 3.4. ETXEBIZITZA BABESTUA HARTZEA

2015ean, gazte emantzipatuen % 5,8 etxebizitza babestuetan bizi ziren.

% 5,8 hori honela banatzen da: % 3,0 alokairu sozialeko etxebizitza babestu batean bizi dira, eta gainerako % 2,8, berriz, etxebizitza sozial batean edo babes ofizialeko etxebizitza batean bizi dira, hipoteka ordaintzen.

2013an, etxebizitza babestuetan bizi ziren 30 urtetik beherako pertsonen ehunekoa askoz handiagoa zen (% 13,9 zen, hain zuzen). % 13,9 hori honela banatzen zen: % 7,4 alokairu sozialeko etxebizitza batean bizi ziren eta % 6,5, berriz, etxebizitza babestu batean, jabetza-erregimenean.

Atzerago jo eta 2011ko datuak aztertzen baditugu, ikusten da etxebizitza babestu batean bizi ziren gazte emantzipatuak % 10,5 zirela garai hartan, honela banatuta: % 5,6, alokairu sozialeko etxebizitzetan, eta % 4,9 etxebizitza sozial edo babes ofizialeko etxebizitza batean, jabetza-erregimenean.

Beraz, ikusten da etxebizitza babestu batean bizi diren gazteen kopuruak behera egin duela, bai jabetzan hartutako etxebizitza sozial edo babes ofizialeko etxebizitzetan, bai alokairu sozialeko etxebizitzetan.

Hori bat dator Notariotzaren Kontseilu Orokorrek bildutako datuekin (*Etxebizitza-emantzipazioaren kostua Euskadin 2015* txostenean argitaratu dira<sup>5</sup>). Datu horien arabera, 2011tik 2015era behera egin du, nabarmen, urtean eskrituratutako etxebizitza babestuen proportzioak urtean eskrituratutako etxebizitzaren guztizkoarekiko (2011n, etxebizitza babestuak ziren eskrituratutako etxebizitzaren % 22,7, eta 2015ean, % 12,5). Datu horietan salerosketak soilik sartzen dira, alokairu sozialak ez dira kontuan hartzen eta adin guztietako pertsonak eskrituratutako etxebizitzak jasotzen dira, eta ez soilik 30 urtetik beherakoak, baina hala ere, ikusten da beheranzko joera dagoela etxebizitza babestuen esleipenetan, eta badirudi horrek eragina duela gazteek etxebizitza babestuak eskuratzeko orduan.

---

<sup>3</sup> Hipoteka-exekuzioa prozedura betearazle bat da, eta haren bidez, hipotekatutako ondasun higiezin baten salmenta agintzen da, zordunak hipotekan bermatutako betebeharrak bete ez dituelako.

<sup>4</sup> Estatistika Institutu Nazionala (INE), *Hipoteka-exekuzioei buruzko estatistika* [online]. Web orri honetan dago eskuragarri: [http://www.ine.es/dyngs/INEbase/es/operacion.htm?c=Estadistica\\_C&cid=1254736176993&menu=resultados&secc=1254736195326&idp=1254735576757](http://www.ine.es/dyngs/INEbase/es/operacion.htm?c=Estadistica_C&cid=1254736176993&menu=resultados&secc=1254736195326&idp=1254735576757) [Kontsulta: 2016/12/19]

<sup>5</sup> LÓPEZ OLLER, Joffre (2016): *Etxebizitza-emantzipazioaren kostua Euskadin 2015* [online]. Bilbo, Gazteen Euskal Behatokia (koord.). Web orri honetan eskuragarri: [http://www.gazteaukera.euskadi.eus/contenidos/informacion/emantzipazioa/eu\\_def/adjuntos/emantzipazioa\\_16\\_e.pdf](http://www.gazteaukera.euskadi.eus/contenidos/informacion/emantzipazioa/eu_def/adjuntos/emantzipazioa_16_e.pdf) [Kontsulta: 2016/12/23]

## 3.4 taula

GAZTE EMANTZIPATUEN BANAKETAREN BILAKAERA, ETXEBIZITZA HARTZEKO MODALITATEA ETA ETXEBIZITZA HORI LIBRE EDO BABESTUA DEN KONTUAN HARTUTA (%)

|                                    | (%)                  | 2011 | 2013 | 2015 |
|------------------------------------|----------------------|------|------|------|
| Erosketa                           | Etxebizitza libre    | 25,2 | 20,2 | 14,3 |
|                                    | Etxebizitza babestua | 4,9  | 6,5  | 2,8  |
|                                    | Ed/Ee                | 0,2  | 0,0  | 0,7  |
| Alokairua                          | Etxebizitza libre    | 54,1 | 52,7 | 67,6 |
|                                    | Etxebizitza babestua | 5,6  | 7,4  | 3,0  |
|                                    | Ed/Ee                | 1,3  | 3,0  | 3,0  |
| Oinordetza, dohaintza edo lagapena |                      | 5,3  | 5,8  | 6,3  |
| Beste modu bat                     |                      | 3,1  | 3,8  | 2,3  |
| Ed/Ee                              |                      |      | 0,6  | 0,0  |
| Gazte emantzipatuak, GUZTIRA       |                      | 100  | 100  | 100  |
| (n)                                |                      | 351  | 370  | 374  |

Galdera hau bakarrik emantzipatutako gazteei egin zaie

#### Zer kolektibotan daude etxebizitza babestua hartuta emantzipatu diren gazte gehien?

Emakumeen artean gizonen artean baino zertxobait handiagoa da etxebizitza babestu batean bizi diren gazteen ehunekoa (% 6,7 eta % 4,6 hurrenez hurren).

Euskadin jaio direnen artean atzerrian jaio direnen artean baino zertxobait handiagoa da ehuneko hori (emantzipatutako gazteen % 6,9 eta % 5,0, hurrenez hurren).

Etxebizitza babestu bat hartuta emantzipatu diren gazteen ehunekoa handiagoa da beren burua behe-mailako edo maila ertain baxuko gizarte-klasekotzat hartzen dutenen artean (% 7,5) erdi-mailako edo maila ertain altuko gizarte-klasekotzat hartzen dutenen artean baino (% 4,9). Halaber, zertxobait handiagoa da hilean 1.200 euro baino gutxiago dutenen artean hileko zenbateko hori gainditzen dutenen artean baino (% 5,9 eta % 3,4 hurrenez hurren).

Baina funtsezko aldea egoitza-lurraldearen araberakoa da: etxebizitza babestu bat hartuta emantzipatu diren gazteen ehuneko handiena Araban da (% 10,5), eta txikiena, berriz, Bizkaian (lurralde horretan emantzipatutako gazteen % 2,3 baino ez). Lurraldeen arteko alde hori aztertutako hiru urteetan egon da.

**3.5 taula**

ETXEBIZITZA BABESTUETAN BIZI DIREN GAZTE EMANTZIPATUEN EHUNEKOAREN BILAKAERA, EGOITZA-LURRALDEAREN ARABERA (%)

| (%)              | 2011 | 2013 | 2015 |
|------------------|------|------|------|
| Araba            | 17,9 | 18,0 | 10,5 |
| Bizkaia          | 7,4  | 11,9 | 2,3  |
| Gipuzkoa         | 10,7 | 15,5 | 8,1  |
| Euskadi, GUZTIRA | 10,5 | 13,9 | 5,8  |
| (n)              | 351  | 370  | 374  |

Galdera hau bakarrik emantzipatutako gazteei egin zaie

Alde horiek logikoak dira, urte hauetan lurralde historiko bakoitzean eskrituratu diren etxebizitza babestuen kopuruak kontuan hartzen baditugu. Lehen aipatutako *Etxebizitza-emantzipazioaren kostua Euskadin 2015*<sup>6</sup> txostenaren arabera (Notariotzaren Kontseilu Orokorraren datuak biltzen ditu), 2011n, eskrituratutako etxebizitza babestuen proportzioa (eskrituratutako etxebizitzaren guztizkoarekiko) askoz handiagoa izan zen Arabako lurralde historikoan Gipuzkoan eta, batik bat, Bizkaian baino (% 45,7 Araban, % 24,3 Gipuzkoan eta % 12,9 Bizkaian). 2014an, aldeak txikiagoak ziren, baina hala ere, etxebizitza babestuen proportzioa handiagoa zen oraindik Araban Gipuzkoan eta Bizkaian baino (% 19,4 Araban, % 14,2 Gipuzkoan eta % 11,2 Bizkaian)

### 3.5. ETXEBIZITZA HARTZEKO MODALITATEAK 30-34 URTEKO PERTSONA EMANTZIPATUEN TALDEAN

Etxebizitza hartzeko modalitateari dagokionez, aldeak al daude 30 urtetik beherako gazteen eta 30-34 urteko pertsonen artean?

30-34 urteko pertsonen taldean, ia pertsona emantzipatuen erdiak (% 48,0) beren etxebizitza erosi dute. Ehuneko hori alokairuan bizi direnen ehuneko (% 43,5) baino handiagoa da.

Adin horretan eta 30 urtetik beherako taldean etxebizitza erosi duten pertsona emantzipatuen ehunekoaren arteko aldea 30 puntukoa da.

<sup>6</sup> *Ibidem.*

## 3.6 taula


ETXEBIZITZA HARTZEKO MODALITATEAREN ALDERAKETA, 30 URTETIK GORAKO  
ETA 30 URTETIK BEHERAKO TALDEEN ARTEAN (%)

| (%)                                | 16-29 urte | 30-34 urte |
|------------------------------------|------------|------------|
| Erosketa                           | 17,8       | 48,0       |
| Alokairua                          | 73,6       | 43,5       |
| Oinordetza, dohaintza edo lagapena | 6,3        | 7,2        |
| Beste modu bat                     | 2,3        | 0,7        |
| Ed/Ee                              | 0,0        | 0,6        |
| Pertsona emantzipatuak, GUZTIRA    | 100        | 100        |
| (n)                                | 374        | 450        |

Galdera hau bakarrik emantzipatutako gazteei egin zaie

Nolanahi ere, 30-34 urteko pertsonen taldean, beren egoitzako etxebizitza erosi dutenen ehunekoak behera egin du azken urteotan, 30 urtetik beherakoen artean dagoen joera berdina izanik: 2011n, 30-34 urteko pertsona emantzipatuen % 58,6 ziren, eta 2015ean, berriz, % 48,0. Aldiz, gora egin du alokairuan bizi direnen ehunekoak, bai eta oinordetza edo dohaintza bidez jasotako zein aldi baterako lagatako etxebizitza batean bizi direnen ehunekoak ere.

## 3.4 grafikoa

ETXEBIZITZA HARTZEKO MODALITATEAREN BILAKAERA 30-34 URTEKO  
PERTSONA EMANTZIPATUEN TALDEAN (%)

Euskadin jaiotako pertsonen artean, gehiengoak etxebizitza erosteko aukera hautatzen du; atzerrian jaiotako artean, berriz, alokairura jotzen da gehien. Gizarte-klasearen arabera ere aldeak daude: beren burua erdi-mailako edo maila ertain altuko gizarte-klasekotzat hartzen dutenen artean, gehiengoak dira etxebizitza erosi dutenak, eta beren burua behe-mailako edo maila ertain baxuko gizarte-klasekotzat hartzen dutenen artean, berriz, gehiengoak dira etxebizitza alokairuan dutenak. Gauza bera gertatzen da hileko diru-sarrerekin: hilean 1.200 eurotik gora dutenen artean, gehiengoak dira erostearen alde egiten dutenak, eta diru-zenbateko horretatik behera dutenen artean, berriz, alokairua da aukera hedatuena.

Halaber, aldeak daude egoitzako lurralde historiko batetik bestera. Erostearen alde egiteko aukera hedatuago dago Araban, eta alokairuaren aldekoa, berriz, Bizkaian. Izan ere, Bizkaian, alokairuaren aukera erostetaren aukeraren gainetik dago.

### 3.7 taula

ETXEBIZITZA HARTZEKO MODALITATEA 30-34 URTEKO EMANTZIPATUEN TALDEAN, EGOITZAKO LURRALDE HISTORIKOAREN, JAIOTZA-LEKUAREN, GIZARTE-KLASE SUBJEKTIBOAREN ETA HILEKO DIRU-BALIABIDEEN ARABERA (%)

| (%)                                | GUZTIRA | Lurralde historikoa |         |          | Jaiotza-lekua |          | Gizarte-klase subjektiboa |                | Hileko diru-baliabideak |               |
|------------------------------------|---------|---------------------|---------|----------|---------------|----------|---------------------------|----------------|-------------------------|---------------|
|                                    |         | Araba               | Bizkaia | Gipuzkoa | Euskadi       | Atzerria | Erdi-maila                | Behe-maila     | 1200 €                  | 1200 €        |
|                                    |         |                     |         |          |               |          | + ertain altua            | + ertain baxua | baino gutxiago          | baino gehiago |
| Erosketa                           | 48,0    | 57,6                | 43,5    | 50,2     | 60,1          | 10,5     | 55,8                      | 32,4           | 29,4                    | 67,0          |
| Alokairua                          | 43,5    | 34,0                | 47,1    | 42,7     | 30,4          | 84,7     | 34,5                      | 62,0           | 63,1                    | 23,6          |
| Oinordetza, dohaintza edo lagapena | 7,2     | 4,7                 | 8,9     | 5,9      | 8,1           | 4,8      | 7,9                       | 5,6            | 6,1                     | 8,3           |
| Beste modu bat                     | 0,7     | 1,8                 | 0,0     | 1,2      | 0,8           | 0,0      | 1,0                       | 0,0            | 0,4                     | 0,8           |
| Ed/Ee                              | 0,6     | 1,9                 | 0,6     | 0,0      | 0,6           | 0,0      | 0,9                       | 0,0            | 1,0                     | 0,3           |
| Pertsona emantzipatuak, GUZTIRA    | 100     | 100                 | 100     | 100      | 100           | 100      | 100                       | 100            | 100                     | 100           |
| (n)                                | 450     | 109                 | 170     | 171      | 316           | 93       | 313                       | 128            | 203                     | 202           |

Galdera hau bakarrik emantzipatutako gazteei egin zaie

### 3.5.1. Jabetzako etxebizitza

Kontuan hartzen baditugu bai etxebizitza erosi duten pertsonak, bai oinordetza edo dohaintza bidez jaso ondoren etxebizitzaren titularrak direnak, ikusten da jabetza dela etxebizitzaren edukitza-erregimen nagusia 30-34 urteko pertsona emantzipatuen taldean: % 53,1ek etxebizitza jabetzan dute. Gehienek (% 43,1) hipoteka bat dute ordaintzeko. Gainerakoak honela banatzen dira: % 4,9k etxebizitza erosi eta hipoteka ordaintzen amaitu dute, eta % 5,1ek etxebizitza oinordetza bidez jaso dute.

Etxebizitza jabetzan izatea hedatuago dago Euskadin jaio diren pertsonen artean atzerrian jaio direnen artean baino (% 66,6 eta % 13,3, hurrenez hurren), beren burua erdi-mailako edo maila ertain altuko gizarte-klasekotzat

hartzen dutenen artean beren burua behe-mailako edo maila ertain baxuko gizarte-klasekotzat hartzen dutenen artean baino (% 61,6 eta % 36,5, hurrenez hurren), eta hilean 1.200 eurotik gorako diru-sarrerak dituztenen artean zenbateko hortik beherako diru-sarrerak dituztenen artean baino (% 67,0 eta % 29,4, hurrenez hurren). Halaber, hedatuago dago Araban gainerako lurralde historikoetan baino: Araban, 30-34 urteko pertsona emantzipatuen % 60,5ek etxebizitza jabetzan dute; Gipuzkoan, gutxiago dira, % 54,4, hain zuzen; eta, Bizkaian, are gutxiago (% 50,0).

Noski, kolektibo horietan handiagoa da hipoteka oraindik ordaintzen amaitu gabe dutenen proportzioa, etxebizitza jabetzan duten pertsona gehienek hipoteka bat kontratatuta dutelako, eta adin horretan, gutxiengoa dira hipoteka guztiz ordainduta dutenak.

2011ko datuen aldean, 30-34 urteko pertsona emantzipatuen taldean, behera egin du etxebizitza jabetzan dutenen ehunekoa, eta hamar puntu jaitsi da, halaber, hipoteka bat kontratatuta eta oraindik ordaintzen amaitu gabe dutenen ehunekoa ere.

### 3.8 taula

JABETZAREKIN LOTUTAKO ETXEBIZITZA HARTZEKO MODALITATEEN  
BILAKAERA 30-34 URTEKO PERTSONA EMANTZIPATUEN TALDEAN (%)

| (%)   | 2011 | 2013 | 2015 |
|---|------|------|------|
| Erosi dute eta hipoteka erabat ordainduta dute                          | 5,3  | 3,5  | 4,9  |
| Erosi dute eta hipoteka ordaintzen ari dira                             | 53,3 | 45,9 | 43,1 |
| Oinordetzan edo dohaintzan hartu dute                                   | 3,2  | 3,5  | 5,1  |
| Etxebizitza jabetzan duten 30-34 urteko pertsona emantzipatuak, GUZTIRA | 61,8 | 52,9 | 53,1 |
| (n)   | 452  | 461  | 450  |

Galdera hau bakarrik emantzipatutako gazteei egin zaie

2015eko datuen arabera, hipoteka kontratatuta duten pertsona emantzipatuen ehunekoa askoz handiagoa da 30-34 urteko taldean (% 43,1) 16-29 urteko taldean baino (% 13,4).

Hipoteka duten pertsonen artean, hipoteka ordaintzen amaitzeko geratzen zaien batez besteko denbora (2015ean) 23 urte da 30-34 urteko taldekoen artean, eta 24 urte, berriz, 30 urtetik beherako taldean. Beraz, denbora hori oso antzekoa da bi taldeetan.

## 3.5.2. Alokairuko etxebizitza

Lehen aipatu dugunez, 30-34 urteko adin-tartean, alokairuko etxebizitzara emantzipatzeko aukera ez da gehienena (% 43,5), baina aukera horrek gora egin du azken urteotan. Alokairuan bizi direnek arrazoi nagusi hau adierazten dute erabaki hori hartzeko: kreditu batekin hipotekatu nahi ez dutela (alokairuan bizi diren 30-34 urteko pertsona emantzipatuen % 46,4). Beste batzuek (% 21,4) alokairua behin-behineko irtenbidea dela diote, erosi ahal izan arte, eta % 19k diote alokairuak askatasun- eta mugikortasun-aukera handiagoak ematen dituela. Gainerako % 13,2k beste arrazoi batzuk adierazi dituzte.

30 urtetik beherako taldean alokairuko etxebizitza batean emantzipatu direnen artean, antzeko ehunekoak erregistratu dira, arrazoi horiei dagokienez.

Azken urteetako joerari dagokionez, ikusi da, alokairuan emantzipatutako 30 urtetik beherako pertsonen taldean bezala, kreditu batekin hipotekatu nahi ez izateak gero eta garrantzi handiagoa duela 30-34 urtekoen taldean ere: 2011n, % 29,5ek aipatu zuten arrazoi hori alokairua hautatzeko; 2013an, % 39,4k; eta 2015ean, % 46,4k.

### 3.5.3. Etxebizitza babestua

2015ean, 30-34 urteko pertsona emantzipatuen % 11,2k diote etxebizitza babestu batean bizi direla. 30 urtetik beherako gazte emantzipatuen taldean ehuneko hori ia erdira jaisten da (% 5,8).

30-34 urteko pertsona emantzipatuen taldean, etxebizitza babestu batean bizi direnen ehunekoa (% 11,2) honela banatzen da: % 8,5ek etxebizitza jabetzan dute, eta gainerakoak (% 2,7) alokairu sozialeko etxebizitza batean bizi dira. Hau da, erosketa bidezko jabetza da etxebizitza babestua hartzeko modalitate nagusia 30-34 urtekoen taldean. 30 urtetik beherako taldean, etxebizitza babestuan bizi direnen artean, erostearen eta alokatzearen aukeren banaketa orekatuagoa da, eta esan ere esan daiteke alokairuaren aukerak erosketarena gainditzen duela.

#### 3.9 taula

ETXEBIZITZA BABESTUAN BIZI DIREN 30 URTETIK GORAKO ETA BEHERAKO  
PERTSONA EMANTZIPATUEN EHUNEKOEN BILAKAERA ETA ALDERAKETA,  
ETXEBIZITZAREN EDUKITZA-ERREGIMENAREN ARABERA (%)

| (%)                                 |                                   | 2011 | 2013 | 2015 |
|-------------------------------------|-----------------------------------|------|------|------|
| 16-29 urte gazte emantzipatuak      | Etxebizitza babestuan, jabetzan   | 4,9  | 6,5  | 2,8  |
|                                     | Etxebizitza babestuan, alokairuan | 5,6  | 7,4  | 3,0  |
|                                     | Etxebizitza babestuan, GUZTIRA    | 10,5 | 13,9 | 5,8  |
| (n)                                 |                                   | 351  | 370  | 374  |
| 30-34 urteko pertsona emantzipatuak | Etxebizitza babestuan, jabetzan   | 8,2  | 9,1  | 8,5  |
|                                     | Etxebizitza babestuan, alokairuan | 1,4  | 7,8  | 2,7  |
|                                     | Etxebizitza babestuan, GUZTIRA    | 9,6  | 16,9 | 11,2 |
| (n)                                 |                                   | 452  | 461  | 450  |


Galdera hau bakarrik emantzipatutako gazteei egin zaie

2013tik 2015era, beherakada handia egon da etxebizitza babestu batean bizi direnen gazte emantzipatuen ehunekoan. Beherakada handiena alokairu sozialeko etxebizitzan bizi direnena izan da. Beherakada hori 30 urtetik gorako zein beherako artean gertatu da.

Etxebizitza babestua hartzeari dagokionez, aldeak daude jaiotza-lekuaren eta egungo egoitzako lurralde historikoaren arabera. 30-34 urteko taldean, etxebizitza babestua lortu dutenen ehunekoa handiagoa da Euskadin jaio direnen artean (% 13,7) atzerrian jaio direnen artean baino (% 5,7). Araban, 30-34 urteko pertsonen taldean, etxebizitza babestu batean bizi direnen ehunekoa (% 19,4) lau aldiz handiagoa da Bizkaian baino (% 4,6). 2015ean, Gipuzkoan bizi direnen balioak Arabako balioen antzekoak dira (Gipuzkoan bizi diren 30-34 urteko pertsona emantzipatuen % 17,0 bizi dira etxebizitza babestu batean).

### 3.5 grafikoa

30-34 URTEKO PERTSONAK JABETZAKO EDO ALOKAIUKO ETXEBIZITZA BABESTUAN, EGOITZAKO LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA (%)



Gizarte-klase subjektiboari dagokionez, berriz, ez dago alderik 30-34 urteko pertsona emantzipatuen taldean; izan ere, beren burua erdi-mailako edo maila ertain altuko gizarte-klasekotzat hartzen dutenen artean, % 11,0 bizi dira etxebizitza babestu batean, eta beren burua behe-mailako edo maila ertain baxuko gizarte-klasekotzat hartzen dutenen artean, berriz, % 12 bizi dira horrelako etxebizitza batean. Halaber, ez dago alde handirik hilean 1.200 eurotik gora edo behera dutenen artean (1.200 eurotik gora dituzten pertsonetatik % 11,2 etxebizitza sozial edo babestu batean bizi dira, eta 1.200 eurotik behera dituztenetik, berriz, % 10,8). Izan ere, etxebizitza babestu bat lortzeko mugak ezartzen dira gehieneko diru-sarrerari dagokienez, baina gutxienerako diru-sarrerak ere izan behar dira.

## 3.6. KAPITULUAREN LABURPENA

Alokairua da 30 urtetik beherako pertsona emantzipatuek etxebizitza hartzeko aukeratutako modalitate nagusia. Bestalde, alokairuan bizi direnen ehunekoa asko handitu da 2013tik 2015era. Alokatzearen alde egitearen arrazoi nagusia kreditu batekin hipotekatu nahi ez izatea da (arrazoi horrek, gainera, indar handiagoa hartu du azken urteotan). Dena dela, alokairuan dauden bost gaztetatik batek dio alokairua behin-behineko irtenbidea dela, erosi ahal izan arte.

Erostearen alde egiten dutenen artean, gehienak hipoteka bat ordaintzen ari dira, eta hogei urtetik gora falta zaizkie ordaintzen amaitzeko. Etxebizitza erosi dutenei gehitzen badizkiegu etxebizitza oinordetza edo dohaintza bidez jaso dutenak, ikusten da 30 urtetik beherako gazte emantzipatuen bostena baino zertxobait gehiago beren etxebizitzan jabe direla.

30 urtetik beherako gazteen taldean, etxebizitza sozial bat edo babes ofizialeko etxebizitza bat jabetzan edo alokairuan lortu dutenen ehunekoa txikia da, eta, gainera, beherakada izan du aurreko urteen aldean. Arabak du etxebizitza babestuan bizi diren gazteen ehuneko handiena.

30-34 urteko pertsona emantzipatuen taldean, aldiz, gehiago dira etxebizitza erosi dutenak alokatu dutenak baino, eta etxebizitza jabetzan (dela erositak, dela oinordetza bidez) duten guztiak kontuan hartzen baditugu, gehiengoa direla ikusiko dugu. Nolanahi ere, adin-talde horretan ere, gero eta gehiago dira alokairuan bizi direnak. Etxebizitza babestuaren modalitatea, berriz, hedatuago dago talde honetan gazteagoen taldean baino, eta gehiago dira jabetzan hartutako etxebizitza babestuan bizi direnak alokairu sozialeko etxebizitza batean bizi direnak baino.

Bi adin-taldeetan (30 urtetik gorakoak eta beherakoak), bereziki hedatuta dago alokairua atzerrian jaio direnen artean, bai eta beren burua behe-mailako edo maila ertain baxuko gizarte-klasekotzat hartzen dutenen artean edo hilean 1.200 eurotik behera dutenen artean ere. Eta etxebizitza babestua hartzea (dela alokairuan, dela jabetzan) ohikoagoa da Euskadin jaio direnen artean, eta, bereziki, Araban bizi direnen artean.



# 4

## Emantzipatutako gazteak bizi diren etxebizitzaren ezaugarri fisikoak

Atal honetan emantzipatutako gazteak bizi diren etxebizitzaren ezaugarri fisikoak aztertuko ditugu (tamaina, prestazioak...), jakiteko ea loturarik dagoen ezaugarri fisiko horien eta etxebizitza hartzeko modalitatearen artean, kontuan hartuta, halaber, etxebizitza libreak ala babestuak diren.

Aztertu ez den alderdi bat etxebizitza horien kokapena da (landa-eremuetan ala hiri-eremuetan dauden, udalerrri bateko auzo desberdinetan eta abar), alderdi konplexua delako, baina egia da eragina izan dezakeela etxebizitzaren prezioan edo eskaintzan, bai erosteko, bai alokatzeko.

Alderdi honi dagokionez, ezin da etxebizitzaren ezaugarri fisikoen bilakaera aztertu, gai hori aztertzen den lehen aldia baita.

### 4.1. 16-29 URTEKO GAZTEEK EMANTZIPATZEKO HARTZEN DITUZTEN ETXEBIZITZEN EZAUGARRI FISIKOAK

30 urtetik beherako pertsona emantzipatuak bizi diren etxebizitzaren batez besteko tamaina 73,1 m<sup>2</sup> da. Txikiak 40 m<sup>2</sup>-koak dira eta handiak, berriz, 200 m<sup>2</sup>-koak.


Edonola ere, batez besteko tamaina hori antzekoa da kolektibo guztietan, baina badaude aipatzeko moduko aldeak. Gazteek erositako etxebizitzak, batez beste, alokairuan hartutakoak baino handiagoak dira (79,2 m<sup>2</sup> eta 70,9 m<sup>2</sup> batez beste, hurrenez hurren), eta Araban bizi diren gazte emantzipatuen etxebizitzak metro koadro gehiago dituzte (78,2 m<sup>2</sup>), Gipuzkoan (75,4 m<sup>2</sup>) edo Bizkaian (69,8 m<sup>2</sup>) bizi diren gazteenak baino.

Halaber, aldea dago, nahiz eta hain esanguratsua ez den, Euskadin jaiotako gazteen etxebizitzaren (74,0 m<sup>2</sup>) eta atzerrian jaiotako gazteen etxebizitzaren (70,3 m<sup>2</sup>) artean. Bestalde, erdi-mailako edo maila ertain altuko pertsona gazte emantzipatuen etxebizitzak zertxobait handiagoak dira beren burua behe-mailako edo maila ertain baxuko gizarte-klasekotzat hartzen duten pertsona gazteenak baino (74,1 m<sup>2</sup> eta 71,4 m<sup>2</sup>, hurrenez hurren), eta hilean 1.200 eurotik gora dituztenak etxebizitza handiagotan bizi dira (77,5 m<sup>2</sup>) hilean diru-sarrera txikiagoak dituztenak baino (70,8 m<sup>2</sup>).

Eta etxebizitza horien tamainak alderatzen baditugu Euskadiko etxebizitzaren 2015eko batez besteko tamainarekin (Eustat Euskal Estatistika Erakundeak argitaratutako *Etxebizitzaren udal-estatistika 2015*<sup>7</sup> txosteneko datuak kontuan hartuta), ikusten da emantzipatutako gazteak bizi diren etxebizitzak txikiagoak direla Euskadiko etxebizitzaren batez besteko tamaina orokorra baino (86,9 m<sup>2</sup>). Eta horrez gain, esan daiteke Bizkaiko gazteek dituztela etxebizitza txikienak, eta lurralde horretan da handiena gazte emantzipatuen etxebizitzaren batez besteko tamainaren eta etxebizitza-parke osoko etxebizitzaren batez besteko tamainaren arteko aldea.

#### 4.1 grafikoa

ETXEBIZITZA GUZTIEN BATEZ BESTEKO AZALERAREN ETA 16-29 URTEKO GAZTE EMANTZIPATUEN ETXEBIZITZEN BATEZ BESTEKO AZALERAREN ARTEKO ALDERAKETA, LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA (m<sup>2</sup>)



Etxebizitza guztiei buruzko datuen iturria: Eustat, 2015 (Etxebizitzaren udal-estatistika)

Etxebizitza horien beste ezaugarri edo ekipamendu batzuei dagokienez, 30 urtetik beherako lau gazte emantzipatutatik hiruk (% 74,5) diote etxebizitzan berokuntza dutela; halaber, gehiengoa dira igogailua dutenak (% 71,0), baina gutxiengoa dira trastelekua dutenak (% 28,7), eta are gutxiago garajea dutenak (% 22,6).

Eustateko etxebizitzaren udal-estatistikari berriz erreparatuz gero<sup>8</sup>, ikusiko dugu 2015eko urtarilaren 1ean Euskadiko etxebizitzaren % 73,8k berokuntza zentrala edo banakako berokuntza zutela, eta % 70,6k igogailua zutela. Beraz, berokuntza edo igogailua edukitzeari dagokionez, esan daiteke gazte emantzipatuen etxebizitzaren batezbestekoak eta Euskadiko etxebizitza-parke osoarenak antzekoak direla.

<sup>7</sup> EUSTAT: Taula estatistikoak: *Etxebizitzaren udal-estatistika*: Euskal AEko etxebizitza familiarrak, lurralde-eremuaren arabera egitura-ezaugarriei jarraiki. 2016/01/01 [online] Web orri honetan eskuragarri: [http://www.eustat.eus/elementos/ele0011300/ti\\_Viviendas\\_familiares\\_de\\_la\\_CA\\_de\\_Euskadi\\_por\\_ambitos\\_territoriales\\_segun\\_caracteristicas\\_estructurales\\_01012015/tbl0011354\\_e.html#axzz4Zz5Bpepl](http://www.eustat.eus/elementos/ele0011300/ti_Viviendas_familiares_de_la_CA_de_Euskadi_por_ambitos_territoriales_segun_caracteristicas_estructurales_01012015/tbl0011354_e.html#axzz4Zz5Bpepl) [Kontsulta: 2016/12/30]

<sup>8</sup> EUSTAT: Taula estatistikoak: *Etxebizitzaren udal-estatistika*: Euskal AEko famili etxebizitza nagusiak, lurralde-eremuen, ekipamenduen arabera (%). 2015/01/01 [online] Web orri honetan eskuragarri: [http://www.eustat.eus/elementos/ele0011300/ti\\_Viviendas\\_familiares\\_principales\\_de\\_la\\_CA\\_de\\_Euskadi\\_por\\_ambitos\\_territoriales\\_segun equipamientos\\_\\_01012015/tbl0011355\\_e.html#axzz4Zz5Bpepl](http://www.eustat.eus/elementos/ele0011300/ti_Viviendas_familiares_principales_de_la_CA_de_Euskadi_por_ambitos_territoriales_segun equipamientos__01012015/tbl0011355_e.html#axzz4Zz5Bpepl) [Kontsulta: 2016/12/30]

Datu horiek lurralde historiko bakoitzean aztertuz gero, ikusiko dugu gazteen etxebizitzak bat datozela dagokien lurralde historikoko batezbestekoarekin. Nolanahi ere, Araban, 30 urtetik beherako gazte emantzipatuen etxebizitzak lurralde horretako batezbestekoaren behetik daude, igogailua izateari dagokionez.

#### 4.1 taula

ETXEBIZITZA-PARKE OSOAREN EHUNEKOAREN ETA 16-29 URTEKO GAZTE EMANTZIPATUEN ETXEBIZITZEN EHUNEKOAREN ARTEKO ALDERAKETA, BEROKUNTZA ETA/EDO IGOGAILUA IZATEARI DAGOKIONEZ, LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA (%)

| (%)      | Berokuntza (zentrala edo banakakoa)       |   | Igogailua                                 |   |
|----------|---|---|---|---|
|          | Etxebizitza-parke osoaren batezbestekoa * | 16-29 urteko gazte emantzipatuen etxebizitzak | Etxebizitza-parke osoaren batezbestekoa * | 16-29 urteko gazte emantzipatuen etxebizitzak |
| Euskadi  | 73,8                                      | 74,5  | 70,6                                      | 71,0  |
| Araba    | 94,0                                      | 94,7  | 77,0                                      | 66,3  |
| Bizkaia  | 68,5                                      | 66,2  | 68,1                                      | 70,3  |
| Gipuzkoa | 72,8                                      | 76,3  | 71,5                                      | 74,0  |

\* Etxebizitza-parke osoari buruzko datuen iturria: Eustat, 2015 (Etxebizitzaren udal-estatistika). Galdera hau bakarrik emantzipatutako gazteei egin zaie

Emantzipatutako gazteen ezaugarri soziodemografikoei erreparatzen badiegu, ikusiko dugu alde garrantzitsuak daudela jaiotza-lekuaren eta gizarte-klasearen arabera, pertsona horiek bizi diren etxebizitzetako ekipamenduei dagokienez. Euskadin jaiotako pertsonen eta beren burua erdi-mailako edo maila ertain altuko gizarte-klasekotzat hartzen dutenen etxebizitzetan, neurri handiagoan dituzte aipatutako ekipamenduak atzerrian jaio direnen eta beren burua behe-mailako edo maila ertain baxuko gizarte-klasekotzat hartzen dutenen artean baino.

Etxebizitza hartzeko modalitatean ere aldeak daude, hobeto hornituta baitaude erosketa bidez hartutako etxebizitzak alokairuan hartutakoak baino. Baina gogoan izan behar da atzerrian jaio diren pertsonen eta beren burua behe-mailako edo maila ertain baxuko gizarte-klasekotzat hartzen dutenek baliatzen dutela alokatzeko aukera gehien; beraz, aldagai horiek guztiak erlazionatuta daude, eta batzuek besteetan eragiten dute.

#### 4.2 taula

30 URTEK BEHERAKO GAZTE EMANTZIPATUEN ETXEBIZITZEN EKIPAMENDUAK, JAIOTZA-LEKUAREN, GIZARTE-KLASE SUBJEKTIBOAREN ETA ETXEBIZITZA HARTZEKO MODALITATEAREN ARABERA (%)

| (%)         | GUZTIRA | Jaiotza-lekua |          | Gizarte-klase subjektiboa |                           | Etxebizitza hartzeko modalitatea |           |
|-------------|---------|---------------|----------|---------------------------|---------------------------|----------------------------------|-----------|
|             |         | Euskadi       | Atzerria | Erdi-maila + ertain altua | Behe-maila + ertain baxua | Erosketa                         | Alokairua |
| Berokuntza  | 74,5    | 83,7          | 58,9     | 78,9                      | 66,2                      | 86,2                             | 70,4      |
| Igogailua   | 71,0    | 69,6          | 73,7     | 72,2                      | 69,4                      | 70,8                             | 71,2      |
| Trastelekua | 28,7    | 32,4          | 19,0     | 31,5                      | 22,3                      | 52,8                             | 22,8      |
| Garajea     | 22,6    | 28,0          | 11,8     | 25,5                      | 16,9                      | 42,5                             | 18,4      |
| (n)         | 374     | 212           | 126      | 237                       | 135                       | 69                               | 272       |

Galdera hau bakarrik emantzipatutako gazteei egin zaie

Ezin ditugu 30 urtetik beherako gazte emantzipatuek hartutako etxebizitza libreen eta babestuen arteko aldeak aztertu, kasu gutxi jaso direlako inkestan; beraz, azterketa horretarako (aurrerago egingo dugu), 16-34 urteko pertsona emantzipatu guztien taldea hartuko dugu aintzat.


## 4.2. 30-34 URTEKO PERTSONEK EMANTZIPATZEKO HARTZEN DITUZTEN ETXEBIZITZEN EZAUGARRI FISIKOAK

30-34 urteko pertsona emantzipatuek hartzen dituzten etxebizitzak 30 urtetik beherako gazteenak baino zertxobait handiagoak dira: 76,5 m<sup>2</sup> eta 73,1 m<sup>2</sup>, hurrenez hurren. Hala ere, Euskadiko etxebizitza-parkearen batez besteko azalaren (86,9 m<sup>2</sup>) azpitik daude oraindik ere.

Hiru lurralde historikoetan dira handiagoak 30-34 urteko pertsonen etxebizitzak 30 urtetik beherakoen etxebizitzak baino, eta hiruetan dira, halaber, lurraldeko etxebizitzaren batez besteko azalera baino txikiagoak.

#### 4.2 grafikoa

ETXEBIZITZA-PARKE OSOAREN BATEZ BESTEKO AZALERAREN ETA 16-29 URTEKO ETA 30-34 URTEKO PERTSONA EMANTZIPATUEN ETXEBIZITZEN BATEZ BESTEKO AZALERAREN ARTEKO ALDERAKETA, LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA (m<sup>2</sup>)



Etxebizitza guztiei buruzko datuen iturria: Eustat, 2015 (Etxebizitzaren udal-estatistika)

Eta 30 urtetik beherako gazte emantzipatuen artean bezala, 30-34 urtekoen taldean ere, ikusten da handiagoak direla (metro karratutan) Euskadin jaio direnek eta beren burua erdi-mailako edo maila ertain altuko gizarte-klasekotzat hartzen dutenek okupatutako etxebizitzak zein erosketa bidez eskuratu direnak, atzerrian jaio diren pertsonak, beren burua behe-mailako edo maila ertain baxuko gizarte-klasekotzat hartzen dutenek edo etxebizitza alokatu dutenek okupatzen dituztenak baino (ikusi 4.4 taula).

Etxebizitzaren beste prestazio batzuei erreparatuta, 30-34 urteko pertsona emantzipatuen etxebizitza gehienek berokuntza (% 85,0) eta igogailua (% 70,8) dute. Hala ere, erdiak baino gutxiagok dituzte trastelekua (% 44,6) edo garajea (% 36,4).

Etxebizitzak igogailua izateari dagokionez, ez dago ia alderik 30 urtetik beherakoen eta gorakoen artean (16-29 urteko pertsona emantzipatuen taldean, %71,0k diote etxebizitzak igogailua duela, eta 30-34 urteko pertsonen taldean, berriz, % 70,8k dute igogailua). Alderdi horretan, ez dago alderik Euskadin igogailua duten etxebizitzaren batezbestekoarekin (% 70,6).

Baina berokuntza, trastelekua edo garajea izateari dagokienez, ehunekoak handiagoak dira 30-34 urteko pertsona emantzipatuen artean 30 urtetik beherakoen artean baino. Berokuntzari dagokionez, 30 urtetik beherakoen ehunekoak gaintitzeaz gain, 30-34 urteko pertsona emantzipatuen etxebizitzetan, handiagoa da berokuntza duten etxebizitzaren ehunekoa (% 85,0), Euskadiko etxebizitza guztien batezbestekoa baino (% 73,8).

30-34 urteko pertsona emantzipatuen eta 30 urtetik beherako gazte emantzipatuen etxebizitzetako prestazioen arteko alde horiek daude, bai Euskadi osoa kontuan hartuta, bai lurralde historiko bakoitza kontuan hartuta. Salbuespen bakarra Bizkaian dago, igogailua duten etxebizitzetara dagokionez. Izan ere, lurralde horretan, 30 urtetik beherako gazte emantzipatuen etxebizitzetan, neurri handiagoan daude igogailuak 30-34 urteko pertsona emantzipatuen etxebizitzetan baino.

## 4.3 taula

16-29 URTEKO ETA 30-34 URTEKO PERTSONA EMANTZIPATUEN ETXEBIZITZEN EHUNEKOEN ARTEKO ALDERAKETA, BEROKUNTZA, IGOGAILUA, TRASTELEKUA ETA/EDO GARAJEA IZATEARI DAGOKIONEZ, LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA. ETXEBIZITZA-PARKE OSOAREN BATEZBESTEKOAREKIKO ALDERAKETA (%)

| (%)                                 |          | 16-29 urteko gazte emantzipatuen etxebizitzak | 30-34 urteko pertsona emantzipatuen etxebizitzak | Etxebizitza-parke osoaren batezbestekoa* |
|-------------------------------------|----------|---|--|--|
| Berokuntza (zentrala edo banakakoa) | Euskadi  | 74,5  | 85,0   | 73,8                                     |
|                                     | Araba    | 94,7  | 99,1   | 94,0                                     |
|                                     | Bizkaia  | 66,2  | 78,8   | 68,5                                     |
|                                     | Gipuzkoa | 76,3  | 87,7   | 72,8                                     |
| Izogailua                           | Euskadi  | 71,0  | 70,8   | 70,6                                     |
|                                     | Araba    | 66,3  | 78,2   | 77,0                                     |
|                                     | Bizkaia  | 70,3  | 63,0   | 68,1                                     |
|                                     | Gipuzkoa | 74,0  | 78,9   | 71,5                                     |
| Trastelekua                         | Euskadi  | 28,7  | 44,6   | **                                       |
|                                     | Araba    | 65,3  | 70,1   | **                                       |
|                                     | Bizkaia  | 17,6  | 35,3   | **                                       |
|                                     | Gipuzkoa | 27,0  | 46,7   | **                                       |
| Garajea                             | Euskadi  | 22,6  | 36,4   | **                                       |
|                                     | Araba    | 41,9  | 51,6   | **                                       |
|                                     | Bizkaia  | 14,4  | 28,2   | **                                       |
|                                     | Gipuzkoa | 24,7  | 41,5   | **                                       |

\* Iturria: Eustat, 2015 (Etxebizitzaren udal-estatistika)

\*\* Ez dago datu eskuragarririk

Galdera hau bakarrik emantzipatutako gazteei egin zaie

Oro har, Araban bizi diren 30-34 urteko pertsona emantzipatuen etxebizitzak hobeto hornituta daude Gipuzkoakoak eta Bizkaikoak baino. Azken lurralde horretan bizi diren pertsonen artean dira txikienak berokuntza, igogailua, trastelekua edo garajea dutenen ehunekoak.

Bestalde, 30-34 urteko pertsona emantzipatuen artean, kolektibo jakin batzuen etxebizitzek dituzte horrelako prestazio gehien. Hauek dira kolektibo horiek: Euskadin jaio direnak, beren burua erdi-mailako edo maila ertain altuko gizarte-klasekotzat hartzen dutenak, hilean 1.200 eurotik gora dituztenak, eta etxebizitza erosi eta jabetzan dutenak (talde horiek bizi dira, halaber, azalera handieneko etxebizitzetan).

**4.4 taula**

30-34 URTEKO PERTSONA EMANTZIPATUEN ETXEBIZITZEN EKIPAMENDUAK, JAIOTZA-LEKUAREN, GIZARTE-KLASE SUBJEKTIBOAREN, HILEKO DIRU-BALIABIDEEN ETA ETXEBIZITZA HARTZEKO MODALITATEAREN ARABERA (%)

| (%)                       | Jaiotza-lekua |          | Gizarte-klase subjektiboa |                           | Hileko diru-baliabideak |                      | Etxebizitza hartzeko modalitatea |           |      |
|---------------------------|---------------|----------|---------------------------|---------------------------|-------------------------|----------------------|----------------------------------|-----------|------|
|                           | GUZTIRA       |          | Erdi-maila + ertain altua | Behe-maila + ertain baxua | 1200 € baino gutxiago   | 1200 € baino gehiago | Erosketa                         | Alokairua |      |
|                           | Euskadi       | Atzerria |                           |                           |                         |                      |                                  |           |      |
| Berokuntza                | 85,0          | 87,6     | 77,7                      | 88,8                      | 76,2                    | 79,2                 | 91,5                             | 92,0      | 78,5 |
| Igogailua                 | 70,8          | 73,4     | 66,6                      | 75,3                      | 60,6                    | 61,4                 | 78,7                             | 75,7      | 66,1 |
| Trastelekua               | 44,6          | 51,3     | 26,9                      | 46,6                      | 38,5                    | 36,0                 | 52,9                             | 59,3      | 27,0 |
| Garajea                   | 36,4          | 43,8     | 16,3                      | 42,2                      | 22,5                    | 25,7                 | 45,5                             | 51,6      | 16,9 |
| Azalera (m <sup>2</sup> ) | 76,5          | 77,4     | 74,7                      | 78,0                      | 73,6                    | 75,6                 | 78,7                             | 78,9      | 72,2 |
| (n)                       | 450           | 316      | 93                        | 313                       | 128                     | 203                  | 202                              | 223       | 190  |

Galdera hauek bakarrik emantzipatutako pertsonari egin zaizkie


### 4.3. 16-34 URTEKO PERTSONEK EMANTZIPATZEKO HARTZEN DITUZTEN ETXEBIZITZA LIBREEN ETA BABESTUEN EZAUGARRI FISIKOEN ARTEKO ALDEAK

Emantzipatutako gazteek hartutako etxebizitza babestuen ezaugarriak aztertzeko, 16-34 urteko pertsona emantzipatuen multzo osoa hartu dugu kontuan. Hala ere, ezin dira jabetzan edo alokairu sozialean hartutako etxebizitza babestuen arteko aldeak aztertu, laginean kasu gutxi jaso baitira.

Oro har, etxebizitza babestu hauen tamaina eta merkatu libreko etxebizitzena ia berdina dira (etxebizitza babestuak, 76,1 m<sup>2</sup>, eta etxebizitza libreak, berriz, 75,0 m<sup>2</sup>). Baina Euskadiko gazteek hartzen dituzten etxebizitza babestuak etxebizitza libreak baino hobeto hornituta daude, kasu gehienetan berokuntza, igogailua, trastelekua eta garajea baitituzte, eta gazteek emantzipatzeko hartzen dituzten etxebizitza libreetako askok ez dute horrelakorik.

### 4.3 grafikoa

16-34 URTEKO PERTSONEK EMANTZIPATZEKO HARTZEN DITUZTEN ETXEBIZITZA LIBREEN ETA ETXEBIZITZA BABESTUEN EKIPAMENDUEN ARTEKO ALDEAK (%)



## 4.4. KAPITULUAREN LABURPENA

30 urtetik beherako gazteek emantzipatzeko hartzen dituzten etxebizitzak, oro har, etxebizitza-parkeko batez besteko azalera baino txikiagoak dira, bai Euskadi osoa kontuan hartuta, bai lurralde historiko bakoitza kontuan hartuta. Etxebizitza horiek gehienek berokuntza eta igogailua dute, baina gutxiak dute garajea eta trastelekua.

30-34 urteko pertsona emantzipatuen taldean, etxebizitzak zertxobait handiagoak dira, baina ez dira Euskadiko etxeen batez besteko azalera iristen. Adin-talde horretan, pertsona gehiago bizi dira berokuntza, garajea eta/edo trastelekua duten etxebizitzetan, 30 urtetik beherako gazte emantzipatuen taldean baino.

Bi adin-taldeen, kolektibo hauek dituzte etxebizitza handienak eta ongien hornitua: Araban bizi direnek, Euskadin jaio direnek, beren burua erdi-mailako edo maila ertain altuko gizarte-klasekotzat hartzen dutenek, eta hilean 1.200 eurotik gora dutenek.

Etxebizitza-motari dagokionez, oro har, erositako etxebizitzak handiagoak dira eta hobeto hornituta daude alokatutako etxebizitzak baino. Alde handienak etxebizitza libreen eta etxebizitza babestuen artean daude; izan ere, etxebizitza babestu gehienek, gazteek hartutako etxebizitza libreek ez bezala, aztertutako lau ekipamendu-motak dituzte (berokuntza, igogailua, trastelekua eta garajea).

# 5

## Emantzipatutako gazteek aurre egin beharreko etxebizitza-gastuak eta zailtasun ekonomikoak

Kapitulu honetan, honako alderdi hauek aztertuko ditugu: emantzipatutako gazteek hilean zer gastu dituzten, hipoteka-kuota zein alokairu-errenta ordaintzeko, gastu horiek zer ehuneko diren etxebizitzako diru-sarrerekiko, eta ea ordainketa horiek gazteak gehiegizko esfortzu ekonomikoa egin beharreko egoeran edo egoera ahulean jartzen dituzten.

Halaber, ikusiko dugu zenbat gaztek dioten zailtasunak izaten dituztela etxebizitzako ohiko gastuei aurre egiteko eta zenbaterik jasotzen duten familiaren diru-laguntza arrazoi horrengatik.

### 5.1. 16-29 URTEKO GAZTE EMANTZIPATUEK HIPOTEKA-KUOTAGATIK EDO ALOKAIRU-ERRENTAGATIK ORDAINDU BEHAR DUTEN HILEKO GASTUAREN ZENBATEKOA

Lehenik eta behin, aipatu behar da gazte guztiek ez dutela gastu horiek ordaindu beharrik. Izan ere, 3. kapituluan esandakoarekin bat, gazte emantzipatuen ehuneko txiki batek etxebizitza oinordetza edo dohaintza bidez jaso dute, aldi baterako lagata utzi diete, edo erosita eta guztiz ordainduta dute.

2015ean emantzipatuta bizi diren gazteetatik % 87,0k hipoteka-mailegu bat edo alokairu-errenta ordaintzen dute (16-29 urteko taldeko gazte guztien % 23,4 dira).

Eta zenbat ordaintzen dute pertsona horiek hilean hipotekarengatik edo alokairuarengatik? 2015ean, hipoteka-mailegu bat kontratatuta duten gazteek diote hilean 515 euroko kuota ordaintzen dutela (batez beste). Kuota horrek behera egin du azken urteotan: 2011n, hilean 654 euro zen, eta 2013an, berriz, 527 euro.

Hipoteka kontratatuta duten gazteek ordaindu beharreko kuotaren beheranzko joera hori bat dator erreferentziazko urte horretan (adin orotako pertsonen) eraturako hipoteka guztien batez besteko hipoteka-kuotaren jaitsierarekin. Nolanahi ere, gure laginean, 30 urtetik beherako pertsona emantzipatuen artean, gutxi dira hipoteka-mailegua dutenak; beraz, talde horri buruzko datuak zuhurtziaz hartu behar dira.


Bestalde, etxebizitza alokairuan hartuta dutenek esan dute alokairu-errentaren hileko zenbatekoa 543 eurokoa dela, batez beste. Zifra hori egonkorra da azken urteotan: 2013an, emantzipatutako gazteek alokairuan hartutako etxebizitzaren errenta 542 eurokoa zen, eta 2011n, berriz, 546 eurokoa.

30 urtetik beherakoek ordaintzen dituzten batez besteko errentak txikiagoak dira merkatuko batez besteko errentak baino (zortziehun eurotik gorakoak dira merkatu librekoak). Horretarako bi arrazoi egon daitezke: batetik, gazteek etxebizitza merkeagoak hartzen dituztela, txikiagoak direlako (datu hori egiaztatu dugu aurreko kapituluan), eremu periferikoagoetan daudelako eta abar; eta, bestetik, gerta liteke inkestan parte hartu duten gazteetatik batzuek, erantzutean, errentaren zer zati dagokien esan izana, errentaren zenbateko osoa zenbat den esan ordez (azalpen horren alde egiten du alokairuan emantzipatutako hamar gaztetik bederatzik esaten dutela 300 euro baino gutxiago ordaintzen dutela alokairuagatik, eta zenbateko hori oso urruti dago merkatuko balioetatik).

Nolanahi ere, 2015ean, garestiagoa da gazteek batez beste ordaintzen duten alokairu-errenta etxebizitza bat erosi eta hipoteka-mailegu bat ordaintzen ari diren gazteek batez beste ordaintzen duten hipoteka-kuota baino: 543 euro alokairu-errentagatik, eta 515 euro, berriz, hipoteka-kuotagatik, lehen esan bezala. 2011n, berriz, alderantzizko egoera zegoen, gazteek ordaintzen zuten batez besteko hipoteka-kuota handiagoa baitzen batez besteko alokairu-errenta baino.

### 5.1 grafikoa

EUSKADIKO BATEZ BESTEKO HIPOTEKA-KUOTEN ETA ALOKAIRU-ERRENTEN ZENBATEKOEN BILAKAERA, ETA 16-29 URTEKO GAZTE EMANTZIPATUEK ORDAINZTEN DITUZTEN ZENBATEKOEKIKO ALDERAKETA (EURO/HIL)



\* Euskadiko batez besteko alokairu-errentei eta hipoteka-kuotei buruzko datuen iturria: Etxebizitzako Behatokia (Higiezin merkatua EAEn 2015)

Jarraian, aztertuko dugu zer gazte-kolektibok dituzten etxebizitza-gastu handienak, alokairuan bizi direnek errenta ordaintzeko erabili behar duten dirua eta hipoteka kontratatuta dutenek hipoteka-maileguaren hileko kuota ordaintzeko erabili behar dutena batera hartuta. Bi kontzeptu horiengatik batezbestekoa hilean 539 euro da, guztira.

Oro har, Bizkaian bizi diren gazte emantzipatuek dituzte etxebizitza-gastu handienak, eta Arabakoak dira, berriz, hilean gutxien ordaindu behar dutenak. Bizkaian, 16-29 urteko pertsona emantzipatu batek 573 euro ordaindu behar ditu hilean, batez beste, dela alokairu-errenta ordaintzeko, dela hipoteka-kuota ordaintzeko. Gipuzkoan, gazte emantzipatuek hilean 513 euro behar dituzte, batez beste, eta Araban, berriz, 492 euro.

Bizkaiko gazteek hileko gastu handiagoa izatea izan daiteke Bizkaian etxebizitza babestuan gazte gutxiago emantzipatzen direlako (% 2,3). Araban, berriz, gastuak txikiagoak dira eta lurralde horretan da handiena etxebizitza sozialetan edo babes ofizialeko etxebizitzetan emantzipatutako gazteen ehunekoak (% 10,5).

Atzerrian jaiotako pertsonen hileko etxebizitza-gastuak zertxobait handiagoak dira Euskadin jaiotako gazteenak baino (543 euro eta 538 euro, hurrenez hurren). Neurri handi batean, horren arrazoia da alokairuan bizi diren gazte immigranteen ehunekoak batezbestekoa baino handiagoa dela, eta, lehen aipatu dugunarekin bat, alokairu-errenten zenbatekoa hipoteka-kuotena baino handiagoa dela.

Beren burua erdi-mailako edo maila ertain altuko gizarte-klasekotzat hartzen dutenek eta hilean 1.200 eurotik gora dituztenek besteek baino etxebizitza-gastu handiagoak dituzte. Horren arrazoia da gainerako gazteek baino etxebizitza handiagoak dituztela, eta hobeto hornitutakoak, eta horrelako etxebizitzek gastu handiagoak izaten dituzte.

### 5.1 taula

16-29 URTEKO GAZTE EMANTZIPATUEN HILEKO ETXEBIZITZA-GASTUAK (ALOKAIRU-ERRENTAREN EDO HIPOTEKA-KUOTAREN ZENBATEKOA), EGOITZAKO LURRALDE HISTORIKOAREN, JAIOTZA-LEKUAREN, GIZARTE-KLASEAREN ETA HILEKO DIRU-BALIABIDEEN ARABERA (EUROAK)

| (€)           | GUZTIRA | Lurralde historikoa |         |          | Jaiotza-lekua |          | Gizarte-klase subjektiboa |                           | Hileko diru-baliabideak |                      |
|---------------|---------|---------------------|---------|----------|---------------|----------|---------------------------|---------------------------|-------------------------|----------------------|
|               |         | Araba               | Bizkaia | Gipuzkoa | Euskadi       | Atzerria | Erdi-maila + ertain altua | Behe-maila + ertain baxua | 1200 € baino gutxiago   | 1200 € baino gehiago |
| Hileko gastua | 539     | 492                 | 573     | 513      | 538           | 545      | 545                       | 531                       | 521                     | 568                  |
| (n)           | 324     | 79                  | 115     | 130      | 173           | 119      | 203                       | 120                       | 214                     | 84                   |

Alokairu-errenta edo hipoteka-kuota ordaintzen duten gazte emantzipatuei bakarrik galdetu zaie

## 5.2. NORK EGITEN DU HIPOTEKA-KUOTAREN EDO ALOKAIRU-ERRENTAREN HILEKO ORDAINKETA?

Alokairua edo hipoteka ordaindu behar duten lau gaztetatik hiruk diote beraiek eta/edo bikotekideek ordaintzen dituztela hipotekaren edo alokairuaren gastuak (% 75,7). Beste % 15,1ek diote gastu horiek pisukideekin partekatzen dituztela. Beraz, hipoteka edo alokairua ordaintzen duten hamar gazte emantzipatutatik bederatzik familiaren laguntzarik gabe egiten diete aurre gastu horiei.

Hala ere, hipoteka edo alokairua ordaindu behar duten pertsonen % 5,8k aitortzen dute familiaren laguntza behar dutela gastu horiek ordaindu ahal izateko: kasu batzuetan (% 3,4), familiak zenbatekoaren zati bat ordaintzen du, eta beste batzuetan (% 2,4), alokairu-errenta edo hipoteka-kuota osoa.

Azken urteotan, bikoiztu egin da ordainketa horiei aurre egiteko laguntza jasotzen dutela diotenen gazteen ehunekoa: 2011n, hipoteka edo alokairua ordaindu behar zutenen 30 urtetik beherako gazte emantzipatuen % 2,4 ziren; 2013an, % 3,7; eta 2015ean, berriz, % 5,8.

## 5.2 taula

HIPOTEKA EDO ALOKAIRUA ORDAINDU BEHAR DUTEN 30 URTETIK  
BEHERAKO GAZTE EMANTZIPATUEN BANAKETAREN BILAKAERA, ORDAINKETA  
HORIEK NORK EGITEN DITUEN KONTUAN HARTUTA (%)

| (%)  | 2011 | 2013 | 2015 |
|--|------|------|------|
| Inkestatutak, bere bikotekideak edota bien artean erdi bana (gutxi gora behera)                | 78,1 | 76,8 | 75,7 |
| Inkestatuak eta/edo bere bikotekideak familiaren laguntzarekin edo familiakoek ordainketa osoa | 2,4  | 3,7  | 5,8  |
| Inkestatuak pisukideekin partekatzen du  | 13,4 | 14,5 | 15,1 |
| Beste erantzun bat   | 3,0  | 2,4  | 3,4  |
| Ed/Ee  | 3,1  | 2,6  | 0,0  |
| Hipoteka edo errenta ordaintzen duten gazte emantzipatuak, GUZTIRA                             | 100  | 100  | 100  |
| (n)  | 307  | 323  | 324  |

Alokairu-errenta edo hipoteka-kuota ordaintzen duten gazte emantzipatuei bakarrik galdetu zaie

Hilean 1.200 eurotik behera dituztenek behar dute gehien familiaren laguntza, ordainketa horiek egiteko: % 7,4k, hain zuzen. 1.200 eurotik gora dutenen artean, ehuneko hori % 1,2 da.

Hipoteka-kuotaren edo alokairu-errentaren gastua ordaintzeko hilean 540 euro baino gehiago behar dituztenek (hau da, hileko batez besteko gastutik gora), neurri handiagoan behar izaten dute laguntza zenbateko txikiagoak ordaindu behar dituztenek baino (% 6,9 eta % 3,5, hurrenez hurren).

Nolanahi ere, kolektibo guztietan, gehiengo dira emantzipazioak eragindako gastuek bakarrik edo bikotekidearekin ordaintzen dituztenak.

## 5.3. DIRU-SARRERETATIK HIPOTEKA-KUOTA EDO ALOKAIRU-ERRENTA ORDAINTZEKO ERABILI BEHAR DEN EHUNEKOA

Alokairu-errenta edo hipoteka-kuota hilean ordaindu behar duten 16-29 urteko gazte emantzipatuen % 2,0k diote ez dutela ezer ordaintzen. Ehuneko hori bat dator ordainketa horiek senideek egiten dituztela esaten dutenen ehunekoarekin.

% 37,5ek etxeko diru-sarreraren % 30 baino gutxiago erabiltzen dute hileko gastu horiek ordaintzeko. % 30 da finantza-erakundeek hipoteka-mailegu bat ematean aholkatzen duten gehieneko zorpetze-mailaren muga, eta muga hori bera ezartzen dute administrazioek alokairu sozialagatik ordaindu behar den hileko errenta zehazteko.


% 27,3k hileko diru-sarreraren % 30-% 40 erabiltzen dituzte gastu horretarako.

Eta hilero alokairu-errenta edo hipoteka-maileguaren kuota ordaindu behar duten 16-29 urteko pertsona emantzipatuen % 25ek diote beren diru-sarreretatik % 40 baino gehiago erabiltzen dituztela hori ordaintzeko. Hori dela eta, gehiegizko esfortzu ekonomikoko egoeran daude.

Gainerako % 8,3k ez dakite edo ez dute erantzun.

### 5.2 grafikoa

ALOKAIRUAN EDO HIPOTEKA-MAILEGUA HARTUTA EMANTZIPATUTAKO 16-29 URTEKO GAZTEEN BANAKETA, ORDAINKETA HORIEK EGITEKO ERABILTZEN DEN DIRU-SARREREN EHUNEKOAREN ARABERA (%)




Hipoteka edo alokairu-errenta dela eta, hilero gastuak dituzten gazteetatik gehiegizko esfortzu ekonomikoko egoeran daudenen ehunekoa ia berdina da 2015ean eta 2013an (% 25,0 eta % 24,9, hurrenez hurren). Ehuneko horiek txikiagoak dira 2011ko ehunekoa baino (% 32,5).

2011ko urteko datuen aldean, gehiegizko esfortzu ekonomikoko egoeran daudenen ehunekoak behera egin du, baina hori ez da gertatu alokairu-errentak merkatu direlako (lehen ikusi dugu haien prezioa egonkorra izan dela), baizik eta hipoteka-mailegua duten gazte emantzipatuek ordaintzen duten hipoteka-kuotak behera egin duelako, batetik, eta etxebizitza-gastuak (hipoteka edo alokairua) dituzten pertsona gazte emantzipatuen batez besteko soldatak gora egin duelako, bestetik.

## 5.3 grafikoa

ALOKAIRU-ERREGIMENEAN EDO HIPOTEKA-MAILEGU BAT ESKURATUTA EMANTZIPATU DIREN 16-29 URTEKO GAZTEEN TALDEAN, BATEZ BESTEKO SOLDATAREN, BATEZ BESTEKO HIPOTEKA-KUOTEN, BATEZ BESTEKO ALOKAIRU-ERRENTAREN ETA GEHIEGIZKO ESFORTZU EKONOMIKOAREN BILAKAERA



2015ean, talde hauetan da handiena gehiegizko esfortzu ekonomikoko egoeran daudenen proportzioa: beren burua erdi-mailako edo maila ertain baxuko gizarte-klasekotzat hartzen dutenak, hilean 1.200 eurotik beherako diru-sarrerak dituztenak, eta atzerrian jaiotako gazteak. Kasu horietan, kolektibo horietako kideetatik heren bat baino gehiago daude gehiegizko esfortzua egin beharreko egoeran.

Bestalde, Bizkaian bizi diren gazteen artean (lehen ikusi dugu horiek dituztela hileko gastu handienak), handiagoa da gehiegizko esfortzu ekonomikoko egoeran daudenen ehunekoak, Araban edo Gipuzkoan bizi direnen artean baino.

**5.3 taula**

16-29 URTEKO GAZTE EMANTZIPATUEN TALDEAN, DELA ALOKAIURIAN DELA HIPOTEKA-MAILEGU BATEN BIDEZ, GEHIEGIZKO ESFORTZU EKONOMIKOKO EGOERAN DAUDENAK, EGOITZAKO LURRALDE HISTORIKOAREN, JAIOTZA-LEKUAREN, GIZARTE-KLASE SUBJEKTIBOAREN ETA HILEKO DIRU-BALIABIDEEN ARABERA (%)

| (%)  | GUZTIRA | Lurralde historikoa |         |          | Jaiotza-lekua |          | Gizarte-klase subjektiboa |                           | Hileko diru-baliabideak |                      |
|--|---------|---------------------|---------|----------|---------------|----------|---------------------------|---------------------------|-------------------------|----------------------|
|  |         | Araba               | Bizkaia | Gipuzkoa | Euskadi       | Atzerria | Erdi-maila + ertain altua | Behe-maila + ertain baxua | 1200 € baino gutxiago   | 1200 € baino gehiago |
| Gehiegizko esfortzu ekonomikoko egoeran daudenak | 25,0    | 19,0                | 30,8    | 20,0     | 18,7          | 34,8     | 17,5                      | 37,8                      | 36,2                    | 3,1                  |
| (n)  | 324     | 79                  | 115     | 130      | 173           | 119      | 203                       | 120                       | 214                     | 84                   |

Alokairu-errenta edo hipoteka-kuota ordaintzen duten gazte emantzipatuei bakarrik galdetu zaie

Gehiegizko esfortzu ekonomikoa egin beharreko egoeran dauden ehuneko handiagoa da alokairuan bizi diren gazteen artean etxebizitza erosita hipoteka-mailegu bat ordaintzen ari direnen artean baino (% 26,9 eta % 14,6, hurrenez hurren). Horren arrazoia da batez besteko alokairu-errenta handiagoa dela gaur egun, hipoteka-mailegua kontratatuta duten gazteek ordaintzen duten batez besteko kuota baino.

Hilean hipotekarako edo alokairurako 540 euro baino gehiago ordaindu behar dituztenen artean, zertxobait handiagoa da gehiegizko esfortzuko egoeran dauden ehuneko (% 28,5), zenbateko txikiagoak ordaintzen dituztenen artean baino (% 22,1).

## 5.4. ETXEBIZITZA-GASTUEI AURRE EGITEKO ZAILTASUNAK DITUZTEN GAZTE EMANTZIPATUAK

Gazte emantzipatuen laurdenak baino gehiagok (% 28,6) diote zailtasunak dituztela etxebizitzaren gastuak ordaintzeko: hipoteka-kuota, alokairu-errenta, jabekideen erkidegoko gastuak, argia, gasa, ura eta abar.

Eta zertxobait gehiago dira (% 33,2) galdeketaren osteko urtean gastu horiek ordaintzeko arazoak izan ditzaketela diotenak.

Etxebizitza-gastuei aurre egiteko zailtasunak dituzten gazteen ehunekoak behera egin du zertxobait 2013tik 2015ra, % 31,1etik % 28,6ra. Halaber, etorkizunean gastu horiei aurre egiteko arazoak izan lituzketela diotenak gutxiago dira 2015ean 2013an baino (2015ean, % 33,2, eta 2013an, % 36,0).

Bizkaiko gazteek, batez beste, gehiago ordaintzen dute alokairu-errentagatik edo hipoteka-maileguaren kuotagatik beste lurralde historikoetan bizi diren gazteek baino, eta, halaber, handiagoa da gehiegizko esfortzu ekonomikoko egoeran dauden ehuneko (etxeko diru-sarreraren % 40 baino gehiago erabili behar dituztelako gastu horiek ordaintzeko), baina, bitxia bada ere, Gipuzkoan gazte gehiagok esaten dute etxebizitza-gastu horiek edo beste

batzuk, hala nola jabekideen erkidegoko kuota, ura, gasa eta argia, ordaintzeko zailtasunak dituztela. Hain zuzen ere, Gipuzkoako gazte emantzipatuen % 32,0k diote horrelako zailtasunak dituztela. Horren arrazoia izan daiteke Gipuzkoako gazte emantzipatuen batez besteko soldata (hilean 1.063 euro) txikiagoa dela Bizkaiko gazteena (1.157 euro) eta Arabako gazteena (1.154 euro) baino.

Langabezian daudenak dituzte zailtasunik handienak (% 52,0). Eta berriro ere aldeak daude jaiotza-lekuaren, gizarte-klasearen eta hileko diru-baliabideen arabera. Hauek dira etxebizitzako hileko gastuei (mota guztietakoak) aurre egiteko arazoak dituztela gehien adierazten dutenak: atzerrian jaiotako gazteak, beren burua behe-mailako edo maila ertain baxuko gizarte-klasekotzat hartzen dutenak, eta hilean 1.200 eurotik beherako diru-sarrerak dituztenak.

Halaber, kolektibo horietakoek diote neurri handiagoan inkestaren osteko hamabi hilabeteetan gastu horiei aurre egiteko zailtasunak izango dituztela edo izan ditzaketela.

#### 5.4 taula

ETXEBIZITZA-GASTUAK ORDAINITZEKO ZAILTASUNAK DITUZTEN EDO IZANGO DITUZTELA USTE DUTEN 16-29 URTEKO GAZTE EMANTZIPATUAK, EGOITZAKO LURRALDE HISTORIKOAREN, JAIOTZA-LEKUAREN, GIZARTE-KLASE SUBJEKTIBOAREN ETA HILEKO DIRU-BALIABIDEEN ARABERA (%)

| (%)   | GUZTIRA | Lurralde historikoa |         |          | Jaiotza-lekua |          | Gizarte-klase subjektiboa |                           | Hileko diru-baliabideak |                      |
|---|---------|---------------------|---------|----------|---------------|----------|---------------------------|---------------------------|-------------------------|----------------------|
|   |         | Araba               | Bizkaia | Gipuzkoa | Euskadi       | Atzerria | Erdi-maila + ertain altua | Behe-maila + ertain baxua | 1200 € baino gutxiago   | 1200 € baino gehiago |
| Zailtasunak dituzte gaur egun                       | 28,6    | 23,5                | 27,7    | 32,0     | 19,0          | 44,1     | 17,2                      | 48,2                      | 37,0                    | 8,9                  |
| Etorkizunean zailtasunak izango dituztela uste dute | 33,2    | 29,8                | 33,2    | 34,8     | 24,0          | 47,8     | 19,7                      | 56,5                      | 42,1                    | 11,1                 |
| (n)   | 374     | 94                  | 131     | 149      | 212           | 126      | 237                       | 135                       | 239                     | 102                  |

Galdera hau bakarrik emantzipatutako gazteei egin zaie


Talde guztietan, gehiago dira etorkizunean zailtasunak izango dituztela aurreikusten dutenak gaur egun zailtasunak dituztenak baino.

Gaur egun etxebizitza-gastuak ordaintzeko arazoak dituzten gazte emantzipatuen taldean, hamarretik bederatzik (% 90,6) uste dute hurrengo urtean ere arazo horiek izango dituztela.

## 5.5. FAMILIAREN DIRU-LAGUNTZA JASOTZEN DUTEN GAZTEAK

Emantzipatutako gazte gehienek ez dute inolako diru-laguntzarik jasotzen familiarengandik (% 71,0). 2015ean, emantzipatutako gazteen % 7,8k diote aldizkako diru-laguntza jasotzen dutela familiarengandik, eta % 9,4k, berriz, noizean behin jasotzen dutela. Bestalde, % 11,6k diote nolabaiteko laguntza jaso dutela une berezietan (etxebizitza erostean, ezkontzean eta abar).

**5.4 grafikoa**  
16-29 URTEKO GAZTE EMANTZIPATUEN BANAKETA, FAMILIARENGANDIK JASOTZEN DUTEN DIRU-LAGUNTZAREN ARABERA (%)



Familiarengandik aldizkako diru-laguntza jasotzen duten gazte emantzipatuen ehunekoak gora egin zuen 2011tik 2013ra, % 3,2tik % 10,1era. 2015ean, jaitsi egin da ehuneko hori 2013ko ehunekoarekiko, baina oraindik handiagoa da 2011koa baino. Aldizkako laguntza jasotzen dutenei laguntza noizean behin jasotzen dutenak gehitzen badizkiegu, joera berdina dagoela ikusiko dugu: familiaren diru-laguntza aldizka edo noizean behin jasotzen dutenen ehunekoak gora egin zuen 2011tik 2013ra (% 15,3tik % 24,5era), eta behera egin zuen 2015ean (% 17,3), baina 2011ko mailatik gora geratu zen.

Familiaren diru-laguntza (aldizkako edo noizean behinekoa, baina ospakizun bereziak kontuan hartu gabe) jasotzen dutela gehien dioten kolektiboak hauek dira: etxebizitza-gastuei aurre egiteko zailtasun handienak dituztenak, gehiegizko esfortzu ekonomikoko egoeran daudenak, beren burua erdi-mailako edo maila ertain baxuko gizarte-klasekotzat hartzen dutenak, eta hilean 1.200 eurotik beherako diru-sarrerak dituztenak.

## 5.5 taula

FAMILIAREN DIRU-LAGUNTZA JASOTZEN DUTEN 16-29 URTEKO GAZTE EMANTZIPATUAK, ETXEBIZITZA-GASTUEI AURRE EGITEKO ZAILTASUNEN, GEHIEGIZKO ESFORTZU EKONOMIKOKO EGOERAREN, GIZARTE-KLASE SUBJEKTIBOAREN ETA HILEKO DIRU-BALIABIDEEN ARABERA (%)

| (%)   | GUZTIRA     | Etxebizitza-gastuei aurre egiteko zailtasunak |             | Gehiegizko esfortzu ekonomikoko egoera |             | Gizarte-klase subjektiboa |                           | Hileko diru-baliabideak |                      |
|---|-------------|---|-------------|--|-------------|---------------------------|---------------------------|-------------------------|----------------------|
|   |             | Bai   | Ez          | Bai                                    | Ez          | Erdi-maila + ertain altua | Behi-maila + ertain baxua | 1200 € baino gutxiago   | 1200 € baino gehiago |
| Bai, aldizka  | 7,8         | 11,4  | 6,4         | 10,9                                   | 6,9         | 6,8                       | 9,8                       | 10,7                    | 2,2                  |
| Bai, noizean behin  | 9,4         | 12,9  | 8,1         | 11,5                                   | 7,2         | 7,9                       | 12,4                      | 11,6                    | 5,9                  |
| <b>FAMILIAREN DIRU-LAGUNTZA JASOTZEN DUTE</b>                 | <b>17,2</b> | <b>24,3</b>                                   | <b>14,5</b> | <b>22,4</b>                            | <b>14,1</b> | <b>14,7</b>               | <b>22,2</b>               | <b>22,3</b>             | <b>8,1</b>           |
| Bakarrik une berezietan (etxebizitza erostean, ezkontzean...) | 11,6        | 9,0   | 12,6        | 15,1                                   | 12,6        | 14,8                      | 6,1                       | 11,3                    | 15,1                 |
| Ez, inoiz ez  | 71,0        | 66,8  | 72,6        | 62,6                                   | 73,0        | 70,5                      | 71,2                      | 66,2                    | 76,7                 |
| Ed/Ee   | 0,2         | 0,0   | 0,2         | 0,0                                    | 0,3         | 0,0                       | 0,5                       | 0,3                     | 0,0                  |
| Gazte emantzipatuak, GUZTIRA                                  | 100         | 100   | 100         | 100                                    | 100         | 100                       | 100                       | 100                     | 100                  |
| (n)   | 374         | 105   | 268         | 76                                     | 218         | 237                       | 135                       | 239                     | 102                  |

Galdera hau bakarrik emantzipatutako gazteei egin zaie

Atzerrian jaiotako gazteek, gastu horiei aurre egiteko zailtasun handiagoak izan arren, Euskadin jaiotako gazteek baino diru-laguntza gutxiago jasotzen dute familiarengandik (% 13,5 eta % 19,4, hurrenez hurren).

Bestalde, Araban edo Bizkaian baino handiagoa da Gipuzkoan familiarengandik diru-laguntza jasotzen duten gazte emantzipatuen ehunekoa: % 21,3 Gipuzkoan, % 18,4 Araban eta % 13,8 Bizkaian. Gogoan izan behar dugu Gipuzkoan gazte gehiagok diotela emantzipazioak dakartzan gastuak ordaintzeko zailtasunak dituztela.

## 5.6. ETXEBIZITZA-GASTUAK ETA HAIK ORDAINTZeko ZAILTASUNAK 30-34 URTEKO PERTSONEN TALDEAN

30-34 urteko pertsona emantzipatuen taldean, hilero hipoteka-kuota edo alokairu-errenta ordaindu behar dutenen ehunekoa % 86,6 da, 30 urtetik beherako gazte emantzipatuen taldeko ia ehuneko berdina (% 87,0).

Hala ere, kalkulu hori egiteko, adin-talde bakoitzeko pertsona guztiak hartzen baditugu (eta ez pertsona emantzipatuak soilik), ikusten da 30-34 urteko pertsonen taldean % 64,4k dituztela hipoteka edo alokairua ordaintzeko hileko gastu finkoak. 16-29 urteko gazteen taldean, berriz, pertsona gutxiagok dituzte gastu finko horiek (% 23,4), pertsona emantzipatuen kopurua txikiagoa delako.

30-34 urteko pertsona emantzipatuen taldean hilerro errenta-alokairua ordaindu behar dutenek 529 euro ordaindu behar dute batez beste 2015ean, zertxobait gutxiago 30 urtetik beherako gazte emantzipatuek baino (543 euro).

30-34 urteko pertsona emantzipatuen taldean hipoteka ordaintzen ari direnek 551 euro ordaintzen dute hilean, batez beste, hipoteka-kuotagatik. 30 urtetik beherako taldean, hipoteka kontratatuta dutenek gutxiago ordaintzen dute (515 euro).

Beraz, ikusten da 30-34 urteko pertsonen taldekoek ordaintzen duten batez besteko hipoteka-kuota alokairu-errenta baino zertxobait handiagoa dela. 30 urtetik beherakoen taldean, berriz, kontrakoa gertatzen da; hau da, hilean gehiago ordaintzen dute alokairuan daudenek hipoteka-mailegua kontratatuta dutenek baino.

30-34 urteko pertsonen taldean hipoteka duten edo alokairuan bizi diren pertsonak ordaintzen dituzten zenbatekoen bilakaerari erreparatzen badiogu, ikusten da pertsona horiek 2015ean alokairuagatik ordaintzen duten batezbestekoa 2013ko batezbestekoaren antzekoa dela (529 euro eta 526 euro, hurrenez hurren), eta 2011ko batezbestekoa baino txikiagoa (hilean 580 euro).

Hipoteka-kuotei dagokienez, etengabe jaitsi dira 2011tik. Urte hartan, hileko batez besteko kuota 670 eurokoa zen; 2013an, hilean 599 eurora jaitsi zen; eta 2015ean, berriz, hilean 551 eurokoa da. Beherakada nabarmen hori bat dator Euskadin, oro har, sinatutako hipotekek izandako beherakadarekin. Bestalde, 30-34 urteko pertsonak ordaintzen dituzten zenbatekoak txikiagoak dira Euskadiko biztanleriak, osorik hartuta, ordaintzen dituenak baino, baina 30 urtetik beherakoek ordaintzen dituztenak baino zertxobait handiagoak dira.

### 5.6 taula

HIPOTEKA-KUOTEN ETA ALOKAIRU-ERRENTEN ZENBATEKOEN BILAKAERA, ETA 16-29 URTEKO GAZTE EMANTZIPATUEN, 30-34 URTEKO PERTSONA EMANTZIPATUEN ETA EUSKADIKO BIZTANLERIA OROKORRAREN ARTEKO ALDERAKETA (€)

| (€)                       | 2011           |                  | 2013           |                  | 2015           |                  |
|---------------------------|----------------|------------------|----------------|------------------|----------------|------------------|
|                           | Hipoteka-kuota | Alokairu-errenta | Hipoteka-kuota | Alokairu-errenta | Hipoteka-kuota | Alokairu-errenta |
| 16-29 urteko gazteak      | 654            | 546              | 527            | 542              | 515            | 543              |
| 30-34 urteko pertsonak    | 670            | 580              | 599            | 526              | 551            | 529              |
| Euskadiko batezbestekoa * | 745            | 896              | 665            | 825              | 619            | 872              |

Alokairu-errenta edo hipoteka-kuota ordaintzen duten gazte emantzipatuei bakarrik galdetu zaie.

\* Iturria: Etxebizitzako behatokia.

Hilean hipoteka edo alokairua ordaindu behar dituztenak batera hartuta, ikusten da kontzeptu horiengatik hileko batezbestekoa 540 eurokoa dela, 16-29 urteko taldekoek ordaintzen duten ia zenbateko bera (539 euro).

30-34 urteko kolektiboko zenbait taldetan, ordea, hilean ordaindu beharreko zenbatekoa batez besteko 540 euro horiek baino gehiago da. Gastu handiagoak dituztenen talde horiek, teoriarik, bat datoz gastuok ordaintzeko ahalmena dutenekin: beren burua erdi-mailako edo maila ertain altuko gizarte-klasekotzat hartzen dutenak, hilean 1.200 eurotik gora dituztenak, eta 73 m<sup>2</sup>-tik gorako etxebizitzak dituzten pertsonak. Ez dago alderik jaiotza-lekuaren arabera, baina bai egoitza-lurraldearen arabera: Bizkaian edo Gipuzkoan bizi direnek hileko hipoteka- edo alokairu-gastu handiagoak dituzte Araban bizi direnek baino (kontuan izan behar da adin horretan etxebizitza babestu batean emantzipatutako pertsonen ehunekoa handiagoa dela Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan baino).

Kolektiboen arteko alde horiek nabarmenagoak dira 30-34 urte dituztenen artean 16-29 urte dituztenen artean baino.

### 5.7 taula

16-34 URTEKO PERTSONA EMANTZIPATUEN HILEKO ETXEBIZITZA-GASTUAK  
(ALOKAIRU-ERRENTAREN EDO HIPOTEKA-KUOTAREN ZENBATEKOA), EGOITZAKO LURRALDE  
HISTORIKOAREN, GIZARTE-KLASE SUBJEKTIBOAREN, ETXEBIZITZAREN TAMAINAREN ETA HILEKO  
DIRU-BALIABIDEEN ARABERA (EUROAK)

| (€)                    | GUZTIRA | Lurralde historikoa |         |          | Gizarte-klase subjektiboa |                          | Etxebizitzaren tamaina            |                                   | Hileko diru-baliabideak |                      |
|------------------------|---------|---------------------|---------|----------|---------------------------|--------------------------|-----------------------------------|-----------------------------------|-------------------------|----------------------|
|                        |         | Araba               | Bizkaia | Gipuzkoa | Erdi-maila + ertain altua | Behemaila + ertain baxua | 73 m <sup>2</sup> baino txikiagoa | 73 m <sup>2</sup> baino handiagoa | 1200 € baino gutxiago   | 1200 € baino gehiago |
| 16-29 urteko gazteak   | 539     | 492                 | 573     | 513      | 545                       | 531                      | 539                               | 543                               | 521                     | 568                  |
| 30-34 urteko pertsonak | 540     | 465                 | 555     | 550      | 550                       | 518                      | 496                               | 583                               | 507                     | 570                  |


Alokairu-errenta edo hipoteka-kuota ordaintzen duten gazte emantzipatuei bakarrik galdetu zaie

Hileko gastu horiek emantzipatutako pertsonak ordaintzen dituzte; inkestan parte hartu duten lagunetik % 88,7k diote beraiek eta/edo bikotekideak ordaintzen dituztela gastuok, eta % 6,3k, berriz, pisukideekin partekatzen dituztela. % 1,7k soilik diote familiaren laguntza behar dutela gastu horiei aurre egiteko (% 1,1i familiak ordaintzen dizkie gastuak, osorik, eta % 0,6ri ordaintzen laguntzen diete). Zifra horiek ez dira ia aldatu azken urteotan.

30 urtetik beherakoen taldearekin alderatuta, 30-34 urteko pertsonen taldean gehiago dira hipoteka-kuotaren edo alokairu-errentaren zenbatekoa bakarrik edo bikotekidearekin ordaintzen dutenak, eta gutxiago dira, berriz, gastu horiek pisukideekin partekatzen dituztenak edo familiaren laguntza behar dutenak.

## 5.5 grafikoa

HIPOTEKA EDO ALOKAIRUA ORDAINDU BEHAR DUTEN GAZTE EMANTZIPATUEN BANAKETAREN BILAKAERA, ORDAINKETA HORIEK NORK EGITEN DITUEN KONTUAN HARTUTA. 16-29 URTEKO TALDEAREN ETA 30-34 URTEKO TALDEAREN ARTEKO ALDERAKETA (%)




Eta hileko diru-sarreretatik zer ehuneko erabili behar dute pertsona horiek hipoteka-kuota edo alokairu-errenta ordaintzeko? Pertsona horien % 1,1ek diote ez dutela hipotekak edo alokairuak eragindako inolako gasturik ordaintzen. Ehuneko hori bat dator gastu horiek familiak ordaintzen dituela diotenekin (% 1,1 ere). % 45,3k diote etxeko diru-sarreraren % 30etik behera behar dutela hipoteka-kuota edo alokairu-errenta ordaintzeko. % 22,5ek diru-sarreraren % 30-% 40 erabili behar dituzte horretarako. Eta % 24,9k diru-sarreraren % 40tik gora behar dituzte; beraz, 30-34 urteko pertsona emantzipatuen taldean, esan daiteke hipoteka edo alokairu-errenta ordaindu behar dutenen laurdena gehiegizko esfortzu ekonomikoko egoeran jartzen direla ordainketa horren ondorioz. Azkenik, % 6,2k ez dute erantzun.

Talde horretan gehiago dira, 30 urtetik beherakoen taldearen aldean, errenta edo hipoteka ordaintzeko etxeko diru-sarreretatik % 30etik behera behar dutenen ehunekoa. Gehiegizko esfortzu ekonomikoa egin behar dutenen ehunekoa, ordea, ez da txikiagoa, ia berdina baita bi adin-taldeetan (30 urtetik beherakoen taldean, % 25,0, eta 30-34 urtekoen taldean, berriz, % 24,9).

### 5.6 grafikoa

ALOKAIRUAN EDO HIPOTEKA-MAILEGUAREN BIDEZ EMANTZIPATUTAKO 16-29 URTEKO GAZTEEN ETA 30-34 URTEKO PERTSONEN TALDEEN BANAKETAREN ALDERAKETA, ORDAINKETA HORIEK EGITEKO ERABILTZEN DIREN DIRU-SARREREN EHUNEKOAREN ARABERA (%)



30-34 urteko pertsona emantzipatuen taldean, ordainketa horiek egiteko gehiegizko esfortzu ekonomikoko egoeran dauden ehunekoa ez da ia aldatu azken urteotan: 2011n, % 27,1 ziren; 2013an, % 25,0 ziren; eta 2015ean, berriz, % 24,9.

Gehiegizko esfortzu ekonomikoko egoeran dauden pertsonen proportzioa % 40tik gorakoa da beren burua behe-mailako edo maila ertain baxuko gizarte-klasekotzat hartzen dutenen artean, hilean 1.200 euro baino gutxiago dutenen artean, langabezian dauden artean eta atzerriko immigranteen artean. Alokairuan bizi diren pertsonen artean, handiagoa da gehiegizko esfortzu ekonomikoko egoeran dauden ehunekoa, etxebizitza erosita hipoteka-mailegu bat ordaintzen ari direnen artean baino (% 30,8 eta % 18,9, hurrenez hurren).

### 5.8 taula

ALOKAIRUAN EDO HIPOTEKA BIDEZ EMANTZIPATUTAKO 30-34 URTEKO PERTSONEN TALDEAN, GEHIEGIZKO ESFORTZU EKONOMIKOKO EGOERAN DAUDENAK, EGOITZAKO LURRALDE HISTORIKOAREN, JAIOTZA-LEKUAREN, GIZARTE-KLASE SUBJEKTIBOAREN ETA HILEKO DIRU-BALIABIDEEN ARABERA (%)

| Guztira (%)  | Lurralde historikoa |         |          | Jaiotza-lekua |          | Gizarte-klase subjektiboa |                            | Hileko diru-baliabideak |                      |     |
|--|---------------------|---------|----------|---------------|----------|---------------------------|----------------------------|-------------------------|----------------------|-----|
|  | Araba               | Bizkaia | Gipuzkoa | Euskadi       | Atzerria | Erdi-maila + ertain altua | Behem-maila + ertain baxua | 1200 € baino gutxiago   | 1200 € baino gehiago |     |
| Gehiegizko esfortzu ekonomikoko egoeran dauden pertsonak | 24,9                | 21,2    | 30,1     | 18,8          | 17,4     | 43,9                      | 15,4                       | 46,2                    | 43,7                 | 9,4 |
| (n)  | 388                 | 90      | 149      | 149           | 266      | 88                        | 265                        | 115                     | 181                  | 167 |

Alokairu-errenta edo hipoteka-kuota ordaintzen duten gazte emantzipatuei bakarrik galdetu zaie

Lurralde historikoei erreparatuta, 30-34 urteko pertsonen taldean, Bizkaian da handiena alokairua edo hipoteka-kuota ordaintzeko gehiegizko esfortzu ekonomikoko egoeran dauden ehunekoa (% 30,1).

Egoera horretan, adin horretako bost pertsona emantzipatutatik batek (% 21,7) dio zailtasunak dituela etxebizitza-gastuei aurre egiteko, dela hipoteka edo alokairua ordaintzeko, dela ohiko beste gastu batzuk ordaintzeko (jabekideen erkidegoaren kuota, argia, ura, gasa eta abar).


Eta hurrengo hamabi hilabeteetan zailtasun ekonomikoak izango dituztela aurreikusten dutenen ehunekoa antzekoa da (% 20,6).

Gaur egun zailtasunak dituztenen % 4,8k soilik uste dute arazo horiek ez dituztela izango etorkizun laburrean.

Inkestaren galderei erantzuteko unean zailtasun ekonomikoak dituztenen ehunekoa ez da ia jaitsi 2013tik 2015era (% 23,5etik % 21,7ra). Hala ere, gora egin du etxeko ekonomiak hobera egingo duelako konfiantza, hurrengo urtean zailtasunak izango dituztela aurreikusten dutenen ehunekoak hamar puntuko jaitsiera izan baitu (% 30,7tik % 20,6ra).

### 5.7 grafikoa

30-34 URTEKO PERTSONA EMANTZIPATUEN TALDEAN, ETXEBIZITZA-GASTUAK ORDAINTZEKO ZAILTASUNAK DITUZTENEN EDO URTEBETEKO EPEAN ZAILTASUNAK IZANGO DITUZTELA AURREIKUSTEN DUTENEN EHUNEKOAREN BILAKAERA (%)



30-34 urteko pertsona emantzipatuen taldean, pertsona gutxiagok dituzte etxebizitza-gastuak ordaintzeko zailtasunak 16-29 urtekoen adin-taldean baino (% 21,7 eta % 28,6, hurrenez hurren). Txikiagoa da, halaber, etorkizuneko zailtasunen pertzepzioa: % 20,6, 30-34 urteko pertsona emantzipatuen taldean, eta % 33,2, berriz, 16-29 urtekoen taldean.

30-34 urtekoen taldean, etxebizitza-gastuak ordaintzeko zailtasun gehien dituzten edo zailtasunak izango dituztela gehien aurreikusten duten kolektiboak baliabide ekonomiko gutxiago dituzten kolektiboak dira; hau da, hilean 1.200 eurotik behera dituztenak, beren burua erdi-mailako edo maila ertain baxuko gizarte-klasekotzat hartzen

dutenak eta immigrante atzerritarrak. Halaber, alokairuan bizi direnek zailtasun handiagoak adierazten dituzte etxebizitza erosi eta hipoteka ordaindu behar dutenek baino.

### 5.9 taula

30-34 URTEKO PERTSONA EMANTZIPATUEN TALDEAN, ETXEBIZITZA-GASTUAK ORDAINTZEKO ZAILTASUNAK DITUZTENAK EDO IZANGO DITUZTELA USTE DUTENAK, JAIOTZA-LEKUAREN, GIZARTE-KLASE SUBJEKTIBOAREN, HILEKO DIRU-BALIABIDEEN ETA ETXEBIZITZA HARTZEKO MODALITATEAREN ARABERA (%)

| (%)   | GUZTIRA | Jaiotza-lekua |          | Gizarte-klase subjektiboa |                           | Hileko diru-baliabideak |                      | Etxebizitza hartzeko modalitatea |           |
|---|---------|---------------|----------|---------------------------|---------------------------|-------------------------|----------------------|----------------------------------|-----------|
|   |         | Euskadi       | Atzerria | Erdi-maila + ertain altua | Behe-maila + ertain baxua | 1200 € baino gutxiago   | 1200 € baino gehiago | Erosketa (hipoteka)              | Alokairua |
| Zailtasunak dituzte gaur egun                       | 21,7    | 13,8          | 50,7     | 10,6                      | 48,2                      | 40,4                    | 5,8                  | 10,0                             | 35,9      |
| Etorkizunean zailtasunak izango dituztela uste dute | 20,6    | 12,9          | 47,0     | 11,6                      | 42,9                      | 39,1                    | 4,2                  | 10,7                             | 32,5      |
| (n)   | 450     | 316           | 93       | 313                       | 128                       | 203                     | 202                  | 198                              | 190       |

Galdera hau bakarrik emantzipatutako gazteei egin zaie

Bizkaian bizi direnek zailtasun handiagoak dituzte besteek baino, baina gai honen inguruan, aldeak ez dira beste arazo batzuetan bezain handiak. Aipatzekoa da adin-tarte horretan Bizkaikoek dituztela zailtasun handienak, baina 30 urtetik beherakoen taldean, Gipuzkoako gazteak ziren etxebizitza-gastuak ordaintzeko zailtasun handienak adierazten zituztenak.


Adin horretako pertsona emantzipatuetatik % 2,7k diote aldizkako diru-laguntza jasotzen dutela familiarengandik (hipoteka edo alokairua ordaintzeko laguntza zutela ziotenek baino puntu bat gehiago). Bestalde, % 8,8k diote noizean behin dirua jasotzen dutela. Beraz, esan daiteke % 11,5ek familiaren diru-laguntza jasotzen dutela.

% 13,8k diote noiz edo noiz dirua eman dietela, oso une berezietan (etxebizitza erostean, ezkontzean eta abar). Baina gehienek (% 74,1) ez dute familiaren diru-laguntzarik inoiz jasotzen.

30-34 urteko pertsona emantzipatuen taldean, gutxiago dira familiarengandik aldizkako edo noizean behineko diru-laguntza jasotzen dutenak (% 11,5) 16-29 urteko adin-tartean baino (% 17,3).

**5.8 grafikoa**

16-29 URTEKO ETA 30-34 URTEKO PERTSONA EMANTZIPATUEN BANAKETAREN ARTEKO ALDERAKETA, FAMILIARENGANDIK JASOTZEN DUTEN DIRU-LAGUNTZAREN ARABERA (%)



Azken urteotan, familiarengandik aldizkako diru-laguntza jasotzen duten 30-34 urteko pertsona emantzipatuen ehunekoak behera egin du: 2011n, % 4,5 ziren; 2013an, % 4,9; eta 2015ean, berriz, % 2,7.

Diru-laguntza gehien jasotzen duten kolektiboak egoera zailenean daudenak dira: langabetuak (% 19,5ek laguntza jasotzen dute aldizka edo noizean behin), hilean 1.200 euro baino gutxiago dituztenak (% 18,2k diru-laguntza jasotzen dute), beren burua behe-mailako edo maila ertain baxuko gizarte-klasekotzat hartzen dutenak (% 18,0), hipoteka edo alokairua ordaintzeko gehiegizko esfortzu ekonomikoa egin behar dutenak (% 19,3), eta etxebizitzako ohiko gastuak ordaintzeko zailtasunak dituztela diotenak (% 18,6).

## 5.7. ETXEBIZITZA-GASTUAK ETA HAIK ORDAINTEKO ZAILTASUNAK ETXEBIZITZA BABESTUAREN MODALITATEAREN BIDEZ EMANTZIPATUTAKO 16-34 URTEKO PERTSONEN MULTZOAN

Aurreko kapituluan egin dugun moduan, etxebizitza babestuaren eta etxebizitza librearen arteko aldeak aztertzeko, etxebizitza babestuetan emantzipatutako 16-34 urteko pertsona guztien multzoa hartuko dugu kontuan, bereizi gabe etxebizitza erosi duten edo alokairuan duten, aztertutako laginean txikia delako etxebizitza babestuetan bizi diren pertsonen kopurua. Ehunekotan adierazita, adin-talde handi horretako (16-34 urte) pertsona emantzipatu guztien % 9,1 dira.

Oro har, 2015ean, etxebizitza babestu batean (alokairuan edo hipoteka bidez erosita, baina hipoteka oraindik guztiz ordaindu gabe) bizi diren 35 urtetik beherako pertsona emantzipatuek gastu txikiagoak dituzte kontzeptu horiengatik (alokairua edo hipoteka) etxebizitza libre batean bizi direnek baino: etxebizitza babestuan bizi direnek hilean 430 euroko gastuak dituzte, eta etxebizitza librean bizi direnek, berriz, hilean 555 euro.

Etxebizitza babestu batean bizi direnen artean, txikiagoa da hipoteka- edo alokairu-gastuei aurre egiteko gehiegizko esfortzu ekonomikoko egoeran daudenen ehunekoa (% 16,5) etxebizitza librean bizi direnen pertsonen artean baino (% 26,2). Bestalde, etxebizitza babestuetan bizi direnen gehiengoak (% 58,0) diru-sarreraren % 30 baino

gutxiago erabiltzen ditu hipoteka edo alokairua ordaintzeko. Etxebizitza merkatu librean erosi edo alokatu dutenen artean, gutxiago dira egoera horretan daudenak (% 41,0).

2011tik 2015era, behera egin du etxebizitza babestuan bizi direnek hipoteka-kuotagatik edo alokairu-errentagatik ordaintzen duten zenbatekoa. Zenbateko hori hilean 474 eurokoa zen 2011n, eta 430 eurokoa, berriz, 2015ean. Halaber, etxebizitza babestuan bizi diren gazteen taldean, behera egin du gehiegizko esfortzu ekonomikoko egoeran daudenen ehunekoa (etxeko diru-sarreraren % 40 baino gehiago behar dituztelako hipoteka-kuota edo alokairu-errenta ordaintzeko). 2011n, % 23,1 ziren, eta 2015ean, berriz, % 16,5.

Hala eta guztiz ere, 2015ean, etxebizitza babestuan bizi diren 35 urtetik beherako bost pertsona emantzipatutatik batek (% 20,8) dio arazoak dituela etxebizitzaren ohiko gastuak ordaintzeko (hipoteka, alokairu-errenta, jabekideen erkidegoaren kuota, ura, argia, gasa...), edo inkestaren osteko urtean ordainketa horiek egiteko zailtasunak izango dituela (% 19,1).

Etxebizitza babestuetan bizi direnen % 2,0k diote diru-laguntza jasotzen dutela aldizka familiarengandik. Merkatu librean etxebizitza erosi edo alokatu dutenen artean, familiarengandik dirua aldizka jasotzen dutenen ehunekoa bikoitza da (% 5,1).

### 5.10 taula

ETXEBIZITZA LIBRE EDO BABESTUAN EMANTZIPATUTAKO 16-34 URTEKO PERTSONEN ARTEKO ALDEAK, ETXEBIZITZA-GASTUAK, GASTUOK ORDAINTZEKO ZAILTASUNAK ETA FAMILIARENGANDIK JASOTAKO DIRU-LAGUNTZA KONTUAN HARTUTA (2015)

|  | Etxebizitza babestua | Etxebizitza libre |
|--|----------------------|-------------------|
| Hipoteka-kuotaren edo alokairu-errentaren batez besteko zenbatekoa (€) *   | 430                  | 555               |
| Hipoteka-kuota edo alokairu-errenta ordaintzera etxeko diru-sarreraren % 40 baino gehiago bideratu behar izateagatik gehiegizko esfortzu ekonomikoko egoeran dauden pertsonak (%) *                    | 16,5                 | 26,2              |
| * Alokairu-errenta edo hipoteka-kuota ordaintzen duten emantzipatuei bakarrik galdetu zaie (n)   | 81                   | 613               |
| Etxebizitza-gastuei (hipoteka-kuota, alokairu-errenta, jabekideen erkidegoaren kuota, argia, ura, gasa eta abar) aurre egiteko zailtasunak dituzten pertsonak (%) **                                   | 20,8                 | 24,8              |
| Urtebeteko epean etxebizitza-gastuak (hipoteka-kuota, alokairu-errenta, jabekideen erkidegoaren kuota, argia, ura, gasa eta abar) ordaintzeko zailtasunak izango dituztela uste duten pertsonak (%) ** | 19,1                 | 26,2              |
| Aldizka familiaren diru-laguntza jasotzen duten pertsonak (%) **   | 2,0                  | 5,1               |
| ** Emantzipatutako pertsonen (hipoteka edo alokairua ordaintzen duten zein ez) galdetu zaie (n)  | 83                   | 689               |

## 5.8. KAPITULUAREN LABURPENA

Emantzipatutako gazte gehien-gehienek gastuak dituzte hileroko alokairu-errenta edo hipoteka-mailaguaren kuota ordaintzeko. Gutxiengo dira etxebizitza erosi eta jada ordaintzen amaitu dutenak, bai eta oinordetza bidez jaso dutenak edo aldi baterako doan lagata hartu dutenak ere.

Gastu horiek hilean 539 euro dira, batez beste, baina alokairuaren gastua (543 euro) zertxobait garestiagoa da hipoteka-kuotarena baino (515 euro). Lau urte lehenago egoera kontrakoa zen: 2011n hipoteka-kuoten batez besteko zenbatekoa handiagoa zen gazteek ordaintzen zuten batez besteko alokairu-errenta baino. Izan ere, 2011n gazteek ordaintzen zuten batez besteko hipoteka-kuota gaur egungoaren gainetik zegoen eta bien arteko aldea 100 eurokoa baino handiagoa da. Alokairu-errentak, berriz, berdinak dira, gutxi gorabehera.

Hipoteka edo alokairua ordaintzen ari diren lau lagunetik bat gehiegizko esfortzu ekonomikoko egoeran dago, etxeko diru-sarreraren % 40 baino gehiago erabili behar baititu hipoteka-kuota edo alokairu-errenta ordaintzeko.

Halaber, emantzipatutako pertsona gazteetatik laurdenak baino gehiagok diote zailtasunak dituztela etxebizitzaren ohiko gastuei aurre egiteko (ez soilik hipoteka-kuota edo alokairu-errenta, baizik eta jabekideen erkidegoaren hileko kuota, argia, ura, gasa eta abar ere). Eta heren batek aurreikusten dute gastu horiek ordaintzeko arazoak izango dituztela urtebeteko epean.

Gehiegizko esfortzu ekonomikoko egoeran dauden edo etxebizitza-gastuei aurre egiteko zailtasunak dituzten gazte emantzipatuen ehunekoak zertxobait behera egin du, agian, hipoteka-kuoten zenbatekoak behera egin duelako eta emantzipatutako gazteen batez besteko soldatak gora egin duelako.

Emantzipatutako gazteen gutxiengo batek onartzen du familiarengandik diru-laguntza jasotzen duela, aldizka edo noizean behin. Nolanahi ere, gutxiago dira laguntza ekonomikoa jasotzen dutenak etxebizitza-gastuak ordaintzeko zailtasunak dituztela diotenak baino.

30-34 urteko taldekoek hipoteka-kuotagatik edo alokairu-errentagatik (batera hartuta) ordaindu behar duten hileko batez besteko zenbatekoa 30 urtetik beherako gazteek ordaintzen duten zenbatekoaren ia berdina da. Halaber, berdina da gastu horiei aurre egiteko gehiegizko esfortzu ekonomikoko egoeran dauden pertsonen proportzioa. Hala ere, 30-34 urtekoen taldean, txikiagoa da etxebizitza-gastuak ordaintzeko zailtasunak dituztela dioten ehunekoak, eta zertxobait txikiagoa da familiarengandik dirua aldizka edo noizean behin jasotzen dutenen ehunekoak.

Bi adin-taldeetan, behe-mailako edo maila ertain baxuko gizarte-klaseko pertsonak eta hilean 1.200 euro baino gutxiago dituztenek dituzte etxebizitza-gastuei aurre egiteko zailtasun handienak, eta talde horietako kideen artean da handiena hipoteka edo alokairua ordaintzeko gehiegizko esfortzu ekonomikoko egoeran dauden proportzioa. Halaber, atzerrian jaiotako gazteek zailtasun handiagoak dituzte Euskadin jaiotakoek baino.

Etxebizitza babestua izateak (dela jabetzan, dela alokairu sozialean) aukera ematen du hilean hipoteka edo alokairua ordaintzeko gastu txikiagoak izateko. Hori dela eta, pertsona horietatik gutxiago daude gehiegizko esfortzu ekonomikoko egoeran, eta zailtasun txikiagoak dituzte etxebizitzaren hileko gastuei aurre egiteko.



# 6

## Emantzipatu gabeko gazteen emantzipazio-esperientzia eta -aurreikuspenak

Jarraian, emantzipatu gabeko pertsonen gaur egungo egoera aztertuko dugu. Saiatuko gara jakiten zenbatek izan duten emantzipazio-esperientziarik, zergatik itzuli diren gurasoen etxera, zer-nolako ekarpena egiten duten etxeko gastuetarako, eta zer emantzipazio-aurreikuspena duten hurrengo urteetarako, bai eta etxebizitza erostearen ala alokatzearen alde dauden ere.

16-29 urtekoen taldean, % 71,5ek diote gurasoekin edo beste senide batzuekin bizi direla.

30-34 urteko pertsoneri dagokienez, askoz gutxiago bizi dira gurasoekin, laurden bat hain zuzen ere (% 24,7).


### 6.1. 16-29 URTEKO GAZTEEN EMANTZIPAZIO-ESPERIENTZIA

16-29 urteko gazteen taldean, gaur egun gurasoekin bizi direnetatik % 15,3k diote noizbait emantzipatuta bizi izan direla.

Pertsona horiek adin-talde horretako (16-29 urte) Euskadiko gazte guztien % 10,9 dira. Gaur egun emantzipatuta daudela diotenak gehitzen baditugu (% 26,8), ikusten da 16-29 urteko gazteen herenak baino zertxobait gehiagok (% 37,7) nolabaiteko emantzipazio-esperientzia dutela.

## 6.1 grafikoa

16-29 URTEKO GAZTEEN BANAKETA, EMANTZIPAZIO-EGOERAREN ARABERA (%)



Gaur egun emantzipatuta ez baina lehenago emantzipatuta egon diren gazteei dagokienez, 25-29 urteko pertsonak dira batik bat (talde horretan, % 31,4 emantzipatuta egon dira lehenago), bai eta gaur egun lanean edo langabezian dauden gazteak ere (talde horietako % 26,6 eta % 20,4, hurrenez hurren, noizbait emantzipatuta bizi izan dira).

Sexuaren, jatorriaren, gizarte-klasearen edo egoitzako lurralde historikoaren arabera, ez dago ia alderik.

Emantzipatu gabeko gazteen taldean, nolabaiteko emantzipazio-esperientzia dutenen ehunekoa aurreko urteko ehunekoen antzekoa da: 2011n, gurasoekin bizi ziren gazteen % 12,4k zioten lehenago noizbait beren kontura bizi izan zirela; 2013an, ehuneko hori % 17,2 zen; eta 2015ean, berriz, % 15,3.

Lehenago emantzipazio-esperientzia izan duten gazte horietatik % 43,7 lagunekin edo pisukideekin bizi ziren emantzipatuta egon zirenean; % 28,9, bikotekidearekin bizi ziren; % 15,3, bakarrik; % 5,8, ikasle-egoitza batean; eta % 5,5, zehaztu gabeko beste egoera batean.

Gurasoen etxera itzultzeko arrazoiak hauek izan ziren: % 40,1 ikasketak amaitu zituztelako edo ikasketez aldatu zutelako itzuli ziren; % 18,1, bikotekidearekin utzi zutelako; % 16,3, laneko arrazoiengatik (lanik gabe geratu zirelako edo lanez aldatu zutelako); % 5,5 gurasoen etxera itzuli ziren beren etxebizitzaren gastuei aurre egin ezin zirelako; eta % 3,4, zainketa-lanak egiteko, gurasoak zaintzeko, alegia. % 16,5ek beste arrazoi batzuk eman dituzte edo ez diote galderari erantzun.

Emantzipatuta egon zirenean zuten bizikidetza-egoera eta familiaren etxera itzultzeko arrazoiak gurutzatzen baditugu, ikusten da pertsona horien herena etxebizitza partekatuetan edo ikasle-egoitzetan bizi zirela, eta ikasketak amaitu zituztela edo ikasketez aldatu zutela (% 33,4). Hurrengo talde ugariena bikotekidearekin bizi zirenak dira, harekin utzi ondoren gurasoen etxera itzultitakoak (% 18,1).

### 6.1 taula

LEHENAGO EMANTZIPAZIO-ESPERIENTZIARIK IZAN BAI BAINA EMANTZIPATU GABE BIZI DIREN 16-29 URTEKO GAZTEEN BANAKETA, EMANTZIPATUTA BIZI ZIRENEKO BIZIKIDETZA-EGOERAREN ETA FAMILIAREN ETXERA ITZULTZEKO ARRAZOIEN KONBINAZIOAREN ARABERA (%)

|  | Emantzipatuta egon zirenean zeukaten bizikidetzaz-egoera (%) | Emantzipatuta egon zirenean zeukaten bizikidetzaz-egoera |                   |  |                                       |         |
|--|--|--|-------------------|--|---------------------------------------|---------|
|  |  | Bakarrik   | Bikoteki-dearekin | Lagunekin, pisukideekin, ikasle-egoitzan | Beste egoera batean edo erantzunik ez | GUZTIRA |
| Familiaren etxera itzultzeko arrazoiak | Bikotekidearekin utzi zutelako                               | 0,0  | 18,1              | 0,0                                      | 0,0                                   | 18,1    |
|  | Lanez aldatu zutelako edo lana galdu zutelako                | 4,9  | 4,1               | 6,3                                      | 1,0                                   | 16,3    |
|  | Ikasketak amaitu zituztelako edo ikasketez aldatu zutelako   | 4,5  | 0,0               | 33,4                                     | 2,2                                   | 40,1    |
|  | Ezin zieten etxebizitzaren gastuei aurre egin                | 0,6  | 2,1               | 2,9                                      | 0,0                                   | 5,5     |
|  | Gurasoak zaintzeko   | 2,0  | 0,6               | 0,0                                      | 0,8                                   | 3,4     |
|  | Beste arrazoi bat edo erantzunik ez                          | 3,4  | 4,0               | 7,0                                      | 2,2                                   | 16,5    |
|  | GUZTIRA  | 15,4   | 28,9              | 49,5                                     | 6,2                                   | 100     |

Gaur egun gurasoekin bizi baina lehenago emantzipatuta egondako gazteei bakarrik galdetu zaie

Bestalde, familiaren etxera lana galdu zutelako edo etxebizitza-gastuei aurre egin ezin zitelako itzuli zirenak batera hartzen baditugu, ikusten da gazteen % 18,3 arrazoi ekonomikoek bultzatuta itzuli direla gurasoen etxera.

Gurasoen etxera arrazoi ekonomikoek bultzatuta itzuli direnen ehunekoak behera egin du aurreko urteetako ehunekoan aldean: 2011n, itzuli zirenen % 26,6 ziren, eta 2013an, berriz, % 25,5.

Kalkulu hori egiten badugu adin horretako gazte guztien multzoaren gainean, emantzipatuta egon edo ez, esan daiteke, 2015eko datuen arabera, 16-29 urteko gazteen taldeko gazte guztietatik % 2,0 lehenago emantzipatuta egon zirela, baina gurasoen etxera itzuli egin behar izan zutela arrazoi ekonomikoek bultzatuta (lana galdu zutelako edo etxebizitza-gastuei aurre egin ezin zitelako). Ehuneko hori % 3,1 zen 2013an, eta % 2,4, berriz, 2011n.

## 6.2. EMANTZIPAZIO-AURREIKUSPENA

Emantzipatu gabeko gazte gehienek (% 85,6) diote, aukeran, gurasoen etxetik kanpo bizi nahiko luketela. Hala ere, kasu askotan, nahi hori ezin da gauzatu epe laburrean. Horren harira galdetuta, emantzipatu gabeko gazteen erdiak (% 52,2) hiru urteko epean emantzipatzeko asmoa dutela diote.

Nolabaiteko emantzipazio-esperientzia duten gazteen artean da handiena hiru urteko epean emantzipatzeko aurreikuspenak dituztenen ehunekoa (% 76,8). Inoiz emantzipatuta bizi ez direnen artean, berriz, ehuneko hori % 47,8 da.

25-29 urteko pertsonen artean, halaber, gehiagok dute emantzipatzeko asmoa, 25 urtetik beherakoek baino: % 72,9 eta % 42,9, hurrenez hurren.

Emantzipatzeko proiektua hedatuago dago lanean ari direnen artean (baliabide ekonomiko propioak dituzte) ikasleen artean baino (% 66,7 eta % 42,9, hurrenez hurren).

### 6.2 taula

16-29 URTEKO GAZTE EMANTZIPATU GABEEN EMANTZIPAZIO-AURREIKUSPENAK, AURRETIKO EMANTZIPAZIO-ESPERIENTZIAREN, ADIN-TALDEEN ETA OKUPAZIO NAGUSIAREN ARABERA (%)

| (%)                                 | GUZTIRA | Aurretiko emantzipazio-esperientzia |      | Adin-taldeak |            | Okupazio nagusia |        |             |
|-------------------------------------|---------|-------------------------------------|------|--------------|------------|------------------|--------|-------------|
|                                     |         | Bai                                 | Ez   | 16-24 urte   | 25-29 urte | Ikasten          | Lanean | Langabezian |
| Bai                                 | 52,2    | 76,8                                | 47,8 | 42,9         | 72,9       | 42,9             | 66,7   | 64,9        |
| Ez                                  | 41,4    | 20,9                                | 45,1 | 50,4         | 21,5       | 51,0             | 25,5   | 29,7        |
| Ed/Ee                               | 6,4     | 2,3                                 | 7,1  | 6,7          | 5,7        | 6,1              | 7,9    | 5,4         |
| Emantzipatu gabeko gazteak, GUZTIRA | 100     | 100                                 | 100  | 100          | 100        | 100              | 100    | 100         |
| (n)                                 | 937     | 145                                 | 792  | 631          | 306        | 564              | 246    | 110         |

Gurasoekin bizi diren gazteei bakarrik galdetu zaie

Halaber, emakume gazteen artean gizon gazteen artean baino handiagoa da hiru urte baino lehenago emantzipatzeko asmoa dutenen proportzioa (% 56,3 eta % 48,9, hurrenez hurren).

Azkenik, Arabako gazte emantzipatu gabeen artean handiagoa da emantzipatzeko asmoa (% 59,9), Bizkaian (% 51,0) edo Gipuzkoan (% 50,7) bizi diren gazteen artean baino.

Emantzipatu gabe egonik, hiru urteko epean emantzipatzeko aurreikuspena duten pertsonen ehunekoak gora egin du 2011tik. Orduan, gurasoekin bizi ziren 16-29 urteko pertsonen taldean, % 45,7k zuten emantzipatzeko asmoa; 2013an, % 50,4 ziren; eta 2015ean, berriz, % 52,2, zertxobait gehiago.


Hiru urteko epean emantzipatzeko asmoa duten pertsona gazte horiek etxebizitza alokairuan hartzearen alde egiten dute batik bat (% 61,7).

Hiru urteko epean independizatzeko asmorik ez dutenen artean, gehiago daude, halaber, etxebizitza alokatzearen alde (% 49,1) erostearen alde baino (% 41,3). Guztira, emantzipatu gabeko gazteen % 55,7k etxebizitza alokatzea hautatuko lukete; % 37,7k etxebizitza erostea hautatuko lukete; eta gainerakoek (% 6,6) ez dakite edo ez dute erantzun.

Emantzipatu gabeko pertsonen taldean, asko igo da alokairuaren alde egiten dutenen ehunekoa: 2011n, % 18,0 ziren; 2013an, % 43,9; eta 2015ean, berriz, % 55,7.

### 6.2 grafikoa

16-29 URTEKO GAZTE EMANTZIPATU GABEEN BANAKETAREN BILAKAERA, ETXEBIZITZA ALOKATZEAREN ALDE ALA EROSTEAREN ALDE DAUDEN KONTUAN HARTUTA (%)



Hurrengo hiru urteetan emantzipatzeko asmoa dutenei soilik erreparatzen badiegu, ikusten da alokatzearen aldeko aukerak goranzko joera duela, eta, gainera, batezbestekotik gora dagoela. Hain zuzen ere, 2011n, emantzipatzeko asmoa zutenen % 20,4k alokatzearen alde egiten zuten. Ehuneko horrek gora egin zuen 2013an (% 51,0) eta 2015ean (% 61,7).

Alokatzearen alde egitearen arrazoi nagusia kreditu batekin hipotekatu nahi ez izatea da, eta halaxe adierazi dute alokatzearen alde egiten duten gazte emantzipatu gabeen erdiak (% 49,5). Hori ez da harritzekoa, kontuan hartzen baditugu bai gazte landunen behin-behinekotasun tasa eta lanaldi partzialeko tasa, bai etxegabetze-kasuen gorakada. Hori dela eta, gazteak ez dira ausartzen hipoteka-mailegu bat kontratatzen, ez baitakite ea gai izango diren hari aurre egiteko. Emantzipatu gabeko gazteen % 26,6k diote etxebizitza alokatu egingo luketela, aukera horrek askatasun eta mugikortasun handiagoa dakartzalako. % 20,6k diote alokairua behin-behineko irtenbidea izango litzatekeela, erosteko aukera izan bitartean; hau da, pertsona horiek baldintza hobek izatearen zain daude (diru-sarrera egonkorrak, soldata hobea edo banku-erakundeek gaur egun ukatzen dizkieten hipoteka-kredituak lortu ahal izatea), etxebizitza erostea erabakitzeko.

Alokairua erosteko aukera izan bitarteko behin-behineko irtenbidetzat hartzen dutenen ehunekoa hamar puntu jaitsi da 2013ko datuekiko (urte horretan, alokatzearen alde egiten zutenen % 31,1ek aipatzen zuten arrazoi hori); beraz, alokatzearen aldeko aukera sendotzen ari da etxebizitza edukitzeko modalitatetzat, eta ez behin-behineko irtenbidetzat, garai edo baldintza hobek izan bitartean.

#### Aldeak al daude talde batetik bestera, emandako arrazoiei dagokienez?

25-29 urteko gazteen eta lanean ari direnen artean, gehiengoa dira kreditu batekin hipotekatu nahi ez dutela diotenak. 25 urtetik beherako pertsonen eta ikasleen artean, arrazoi hori aipatzen dute gehienbat, baina ez da gehiengora iristen. Izan ere, bi kolektibo horietan indar erlatibo handiagoa du alokatutako etxebizitzaren mugikortasun eta askatasun handiagoaren argudioak. Argudio hori atzerriko gazteek adierazten dute bereziki; atzerriarren artean, arrazoi horrek kreditu batekin hipotekatu nahi ez izatearen arrazoiak bezainbeste indarra du.

Behe-mailako edo maila ertain baxuko gizarte-klaseko pertsonak adierazten dute gehien alokairua behin-behineko irtenbidea izango litzatekeela erosteko aukera izan arte. Halaxe dio behe-mailako edo maila ertain baxuko lau lagunetik batek.

Alokatzearen alde egiteko bi arrazoi horiek (kreditu batekin hipotekatu nahi ez izatea edo alokairua behin-behineko irtenbidetzat hartzea) gehiago aipatzen dira Bizkaian gainerako lurraldeetan baino. Arabako gazteen artean, alokatutako etxebizitzak eskaintzen duen mugikortasuna eta askatasuna da gehien aipatzen den arrazoa, kreditu batekin hipotekatu nahi ez izatearen gainetik.

### 6.3 taula

16-29 URTEKO GAZTE EMANTZIPATU GABEEN TALDEAN, ETXEBIZITZA EROSI ORDEZ ALOKATZEAREN ALDE EGITEN DUTENEK ADIERAZITAKO ARRAZIOIAK, ADIN-TALDEEN, OKUPAZIO NAGUSIAREN, JAIOTZA-LEKUAREN, GIZARTE-KLASE SUBJEKTIBOAREN ETA EGOITZAKO LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA (%)

| (%)   | GUZTIRA | Adin-taldeak |            | Okupazio nagusia |        |              | Jaiotza-lekua |          | Gizarte-klase subjektiboa |                           | Lurralde historikoa |         |          |
|---|---------|--------------|------------|------------------|--------|--------------|---------------|----------|---------------------------|---------------------------|---------------------|---------|----------|
|   |         | 16-24 urte   | 25-29 urte | Ikasten          | Lanean | Langa-bezian | Euskadi       | Atzerria | Erdi-maila + ertain altua | Behe-maila + ertain baxua | Araba               | Bizkaia | Gipuzkoa |
| Ez dute kreditu batean hipotekatu nahi  | 49,5    | 45,7         | 57,8       | 43,2             | 61,9   | 55,7         | 50,0          | 44,0     | 50,1                      | 40,5                      | 34,5                | 55,6    | 47,1     |
| Alokatutako etxebizitzak mugikortasun eta askatasun handiagoak eskaintzen dituela uste dute | 26,6    | 29,1         | 21,1       | 30,5             | 18,8   | 24,9         | 24,7          | 44,0     | 27,4                      | 27,4                      | 41,8                | 19,2    | 31,0     |
| Behin-behineko irtenbidetzat jotzen dute erosi ahal izan arte                               | 20,6    | 20,9         | 19,7       | 22,6             | 15,3   | 18,2         | 21,8          | 9,2      | 19,8                      | 24,9                      | 19,1                | 23,1    | 17,3     |
| Beste arrazoi bat   | 3,0     | 3,9          | 0,9        | 3,3              | 3,4    | 1,2          | 3,1           | 2,8      | 2,4                       | 6,5                       | 3,2                 | 2,1     | 4,2      |
| Ed/Ee   | 0,4     | 0,3          | 0,5        | 0,4              | 0,6    | 0,0          | 0,4           | 0,0      | 0,3                       | 0,7                       | 1,4                 | 0,0     | 0,5      |
| Alokatzearen alde egiten duten emantzipatu gabeko gazteak, GUZTIRA                          | 100     | 100          | 100        | 100              | 100    | 100          | 100           | 100      | 100                       | 100                       | 100                 | 100     | 100      |
| (n)   | 527     | 353          | 174        | 320              | 128    | 71           | 447           | 64       | 413                       | 98                        | 129                 | 206     | 192      |

Gurasoekin bizi eta, erosi ordez, alokatzearen alde egiten duten gazteei bakarrik galdetu zaie

## 6.3. GURASOEI LAGUNTZEA ETXKO GASTUAK ORDANTZEN


Gurasoekin bizi diren gazteetatik gutxiengoa dira (% 14,1) etxean gastuak ordaintzen laguntzeko dirua aldizka ematen dutenak. % 20,3k noizean behin ematen dute dirua, baina ez aldizka. Gehienek (% 65,7) ez dute inoiz jartzen etxeko ekonomiarako dirurik.

Hori ez da harritzekoa, kontuan hartuta gurasoekin bizi diren pertsona gehienak diru-sarrerarik gabeko ikasleak direla. Horregatik, okupazio nagusiaren arabera hartuko dugu kontuan familiako gastuetarako ekarpena. Hala, lanean

ari diren gazteen herenak baino zertxobait gehiagok (% 36,6) dirua ematen dute etxean aldizka, eta ia beste horrenbestek (% 35,2) noizean behin ematen dute; beraz, gehiengo dira (% 71,8) familiaren etxeko gastuen ordainketarako ekarpena gutxienez noizbait egiten dutenak. Ikasleei eta langabezia daudenei dagokienez, aldiz, gehiengo dira familiaren etxeko ekonomiarako ekarpenik inoiz egiten ez dutenak.

### 6.3 grafikoa

16-29 URTEKO GAZTE EMANTZIPATU GABEEK ETXEKO GASTUETARAKO EGITEN DUTEN EKARPENA, OKUPAZIO NAGUSIAREN ARABERA (%)



Gurasoen etxean bizi diren eta etxean dirua aldizka ematen dutenen ehunekoak behera egin du azken urteotan: 2011n, % 20,8 ziren; 2013an, % 16,7; eta 2015ean, berriz, % 14,1.

Izan ere, 2011n, gurasoen etxean bizitzen eta lanean ari ziren gazteen erdiak (% 48,1) dirua ematen zuten etxean aldizka; 2015ean, herenak baino zertxobait gehiagok (% 36,6) dute horrelako jokabidea. Horrek, agian, lotura du emantzipatu gabeko gazteen diru-sarreraren beherakadarekin: 2011n, gurasoekin bizitzen eta lanean ari zirenek hilean 993 euro garbi irabazten zituzten, batez beste; 2015ean, emantzipatu gabeko gazteen batez besteko soldata hilean 892 euro da; hau da, hilean ehun euro gutxiago.

## 6.4. 30-34 URTEKO PERTSONA EMANTZIPATU GABEEN EGOERA

Lehenik eta behin, aipatu behar da 30-34 urteko pertsonen taldean gurasoekin bizi direnak kolektibo horretako ia laurdena direla (% 24,7).


Eta gurasoekin bizi diren pertsona horien ia erdia (% 45,0) emantzipatuta bizi izan dira noizbait.

Guztira, talde horretako pertsonen % 85,4k badute emantzipazioaren esperientzia, dela gaur egun emantzipatuta daudelako, dela iraganean emantzipatuta egon direlako.

Emantzipazio-esperientzia askoz handiagoa da talde horretan 16-29 urteko taldean baino, hor minoritarioa baita.

### 6.4 grafikoa

16-29 URTEKO ETA 30-34 URTEKO GAZTEEN BANAKETA,  
EMANTZIPAZIO-ESPERIENTZIAREN ARABERA (%)



30-34 urteko taldean, orain gurasoekin bizi, baina noizbait emantzipatuta egon direnen ehunekoak zertxobait egin du gora azken urteotan (2011n, adin horretako pertsona guztien % 8,8 ziren, eta 2015ean, berriz, % 11,1).

Ezin dira aztertu pertsona horien aurretiko bizikidetzaz-egoerak eta gurasoen etxera itzultzeko arrazoiak, ezaugarri horiek dituzten pertsona gutxi baitaude laginean; beraz, haien erantzunak ez dira behar bezain esanguratsuak estatistikaren helburuetarako. Horrenbestez, ezin dugu jakin pertsona horietatik zenbat itzuli diren familiaren etxera arrazoi ekonomikoek bultzatuta.

Bestalde, adin horretan gurasoekin bizi diren lau lagunetik hiruk (% 73,0, lehendik emantzipatuta egon diren edo ez alde batera utzita) diote hiru urteko epean emantzipatzeko asmoa dutela Ehuneko hori eta lau urte lehenagokoa, 2011koa (% 74,7), antzekoak dira, eta zertxobait handiagoa da 2013ko datua baino (% 66,6).


Gurasoen etxean bizi diren pertsonen artean, emantzipatzeko aurreikuspena hedatuago dago 30-34 urtekoen taldean (% 73,0) 16-29 urtekoen taldean baino (% 52,2).

Gurasoekin bizi diren 30-34 urteko pertsona guztiei, hurrengo hiru urteetan emantzipatzeko asmoa izan edo ez, galdetu zaie, etorkizuneko etxebizitzaren harira, erostearen ala alokatzearen alde dauden. Erantzunak aztertuta, ikusten da aukera baten eta bestearen aldekoen ehunekoak berdinak direla: % 47,2 erostearen alde, eta % 47,0, berriz, alokatzearen alde.

30-34 urteko pertsonen artean, asko igo da alokairuaren alde egiten dutenen ehunekoa: 2011n, % 16,4 ziren; 2013an, % 39,2; eta 2015ean, berriz, % 47,0. Alokatzearen aldeko goranzko joera hori dago, halaber, 16-29 urteko gazte emantzipatu gabeen taldean. Izan ere, azken talde horretan, are gehiagok egingo lukete alokatzearen alde (2015ean, % 55,7).

## 6.5 grafikoa

ETXEBIZITZA EROSTEAREN EDO ALOKATZEAREN ALDE DAUDENEN EHUNEKOEN BILAKAERA, 16-29 URTEKO ETA 30-34 URTEKO TALDEETAKO PERTSONA EMANTZIPATU GABEEN ARTEAN (%)



Atal honetan ere, ezin ditugu alokatzearen alde egingo luketenen arrazoiak aztertu, ezaugarri horiek dituzten pertsona gutxi baitaude laginean (30-34 urteko adina, emantzipatu gabe egotea, eta alokatzea nahiago izatea erostea baino).


Azkenik, gurasoekin bizi diren 30-34 urteko hamar lagunetik hiruk (% 30,6) diote etxean aldizka dirua ematen dutela, etxeko gastu ekonomikoak ordaintzen laguntzeko. % 31,6k ez du dirua aldizka ematen, baina bai noizean behin. Beraz, gutxiengoa dira (% 38,1) etxeko gastuetarako dirurik inoiz ematen ez dutenak.

Etxeko gastu ekonomikoak ordaintzen laguntzen dutenen ehunekoa handiagoa da adin-talde horretan gurasoekin bizi diren 30 urtetik beherako taldean baino. Talde horretan, % 14,1ek soilik ematen dute dirua etxean aldizka.

Hala ere, 30-34 urteko pertsona emantzipatu gabeko taldean, familiako gastuetarako ekarpena egiten dutenen ehunekoa behera egin du azken urteotan: 2011n, % 45,4 ziren; 2013an, % 40,5; eta 2015ean, berriz, % 30,6.

### 6.6 grafikoa

16-29 URTEKO ETA 30-34 URTEKO PERTSONA EMANTZIPATU GABEEN TALDEETAN, ETXEAN ALDIZKA DIRUA EMATEN DUTENEN EHUNEKOAREN BILAKAERA (%)



## 6.5. KAPITULUAREN LABURPENA

16-29 urteko hamar gaztetatik zazpi gurasoekin bizi dira.

Haietatik gutxiengo batek dio noizbait beren kontura bizi izan dela. Emantzipatuta bizi eta familiaren etxera itzuli diren pertsona horietatik herenak pisu partekatuetan bizi ziren eta ikasketak amaitu dituzten gazteak dira; horiek osatzen dute talde ugariena. Beste batzuek (gutxiago dira, bostetik bat) diote bikotekidearekin bizi zirela eta harekin uztearen ondoren itzuli direla gurasoen etxera. Beste horrenbestek diote arrazoi ekonomikoek bultzatuta itzuli direla gurasoen etxera; hau da, lanik gabe geratu direlako edo etxebizitzaren gastuei aurre egin ezin dietelako. Arrazoi ekonomikoek bultzatuta itzuli direnen ehunekoak behera egin du aurreko urteekiko.

Gurasoekin bizi diren gazteen erdiak baino zertxobait gehiagok hiru urteko epean emantzipatzeko asmoa dutela adierazi dute. Hauek dira epe laburrean emantzipatzeko asmoa dutela gehien adierazten dutenak: noizbait emantzipatuta bizitzen egon direnak, 25-29 urteko taldekoak eta lanean ari direnak.

Hiru urteko epean emantzipatuko direla esaten dutenek zein hori egitea oraindik aurreikusita ez dutenek etxebizitza alokatzearen alde egiten dute, erostearen alde baino gehiago. Alokatzearan alde egiten dutenen ehunekoak gora egin du, nabarmen, azken bost urteotan, nahiz eta bost lagunetik batek dioten alokatzea behin-behineko irtenbidetzat hartzen duela, etxebizitza erosi ahal izan bitartean. Alokairua aukeratzeko arrazoi nagusia kreditu batekin hipotekatu nahi ez izatea da.

Gurasoekin bizi diren bitartean, gutxi dira etxean familiako gastuak ordaintzen laguntzeko dirua ematen dutenak. Haien ehunekoak, bestalde, behera egin du azken urteotan.

30-34 urteko taldean abiapuntuko egoera oso desberdina da: pertsona gehienak emantzipatuta daude, eta gurasoekin bizi direnen artean (adin-talde horretako pertsona guztien laurdena), erdiak diote lehenago emantzipatuta egon direla. Adin horretan, gurasoekin bizi diren lau lagunetik hiruk (iraganean emantzipatuta egon edo ez) adierazten

dute hiru urteko epean beren kontura bizitzen jartzeko asmoa dutela, eta berdinak dira etxebizitza alokatzearen alde zein erostearen alde egiten dutenen zenbatekoak. Adin-talde horretan txikiagoa da alokatzearen alde egiten dutenen ehunekoa 16-29 urtekoen taldean baino, baina hala ere, ehuneko horrek asko egin du gora azken urteotan. Azkenik, 30-34 urteko emantzipatu gabeko hamar lagunetik hiruk etxean dirua ematen dute aldizka, familiaren gastuak ordaintzen laguntzeko, eta 16-29 urteko taldekoan baino gehiago badira ere, kopuru horrek behera egin du azken urteotan.



# 7

## Emantzipatzeko zailtasunak eta baliabideak

Kapitulu honetan, aztertuko dugu zer zailtasun dituzten gazteek emantzipatzeko orduan, eta zenbateko atzerapena eragiten duten zailtasun horiek gazteen nahiekin eta gazteek egokientzat hartzen duten adinarekin alderatuta.

Bestalde, etxebizitza-zerbitzu publikoen erabilera aztertuko dugu, emantzipatzeko baliabide gisa, jakiteko zenbat gaztek eman duten izena haietan, eta zenbatek lortu duten horrelako etxebizitzarik.

Gai horiek jorratzeko, emantzipatutako gazteak zein emantzipatu gabeak hartuko ditugu kontuan, eta aztertuko dugu ea zailtasun berdinak dituzten edo izan dituzten, eta ea neurri berean ematen duten izena etxebizitza-zerbitzu publikoetan.

### 7.1. EMANTZIPAZIOA ATZERATZEA


Lehenik eta behin, aipatu behar da 30 urtetik beherako gazteen % 87,9k emantzipatuta bizi nahi dutela, baina % 26,8 soilik daudela emantzipatuta.

Familiaren etxetik emantzipatzea gehiengoaren nahi orokorra da adin guztietan, baina horretarako behar diren baliabideak ez dituztenen artean ere.

Hori bereziki kezagarria da 25-29 urteko gazteen taldean, 25 urtetik aurrera gazte landunak gehiengoa baitira. Adin-talde horretan, % 92,1ek beren kontura bizi nahi dute, baina % 46,0 daude benetan emantzipatuta.

## 7.1 grafikoa

EMANTZIPATUTA BIZI NAHI DUTEN ETA EMANTZIPATUTA DAUDEN PERTSONEN  
EHUNENKOEK ARTEKO ALDEA 16-29 URTEKOEN TALDEAN, ADIN-TALDEEN ARABERA (%)



Izan ere, gazteen ustez, emantzipatzeko adin onena 24 urte da. Hori da gazte guztien taldeari dagokion batezbestekoa. Taldeka banatuta, 16-29 urtekoen ustez 23 urte eta erdi da adinik egokiena; eta 24 urte eta erdi, berriz, 25-29 urtekoentzat (talde horretakoek, beraz, jada gaitututa dute adin egokiena).


Hala ere, Euskadiko gazteen emantzipazio-adin erreala 30 urte da; hau da, sei urteko atzerapena dago gazteek egokientzat hartzen duten adinaren eta adin errealaren artean (adin errealarari buruzko datuak, azterketa honetan kontsulta daitezke: *Euskadiko gazteen panoramika. Gazteen Adierazleak 2015*<sup>9</sup>, Gazteen Euskal Behatokiak egina).

Euskal biztanleriaren batez besteko emantzipazio-adin hori Europako altuenetako bat da, Kroazian, Maltan, Eslovakian eta Italian soilik baita altuagoa. Batez besteko adin hori Europako batezbestekoa baino lau urte handiagoa da. Europakoa, 26 urte da (26,1 urte, hain zuzen).

<sup>9</sup> CORCUERA BILBAO, Nieves; BILBAO GAZTAÑAGA, Miren eta LONGO IMATZ, Oskar (2016). *Euskadiko Gazteen Panoramika. Gazteen Adierazleak 2015* [online]. Web orri honetan dago eskuragarri: [http://www.gazteukera.euskadi.eus/contenidos/informacion/tableau\\_datu\\_base\\_15/eu\\_def/adjuntos/Indicadores\\_%202015\\_e.pdf](http://www.gazteukera.euskadi.eus/contenidos/informacion/tableau_datu_base_15/eu_def/adjuntos/Indicadores_%202015_e.pdf) [Kontsulta: 2016/12/20]

## 7.2 grafikoa


## BATEZ BESTEKO EMANTZIPAZIO-ADINA EUROAPAN



Sexuaren araberako aldeak aztertuz gero, ikusten da gizon zein emakume gazteek uste dutela 24 urte dela emantzipatzeko adinik onena, baina praktikan, emakumeak gizonak baino zertxobait lehenago emantzipatzen dira, 28-29 urteren inguruan, eta gizonak, berriz, 30-31 urterekin joaten dira, batez beste, familiaren etxetik.

### 7.3 grafikoa


16-29 URTEKO PERTSONEN TALDEAN, EMANTZIPAZIORAKO EGOKIENTZAT HARTZEN DEN ADINAREN ETA EUSKADIKO BIZTANLERIAREN EMANTZIPAZIO-ADIN ERREALAREN ARTEKO ALDEA, SEXUAREN ARABERA (%)



2011tik 2015era, gazteen emantzipatzeko nahiak gora egin du zertxobait, baina joera hori ez da lineala izan; izan ere, 2011tik 2013ra jaitsi egin zen, eta 2015ean, berriz, igo eta 2011ko zifra gainditu du. Bitxia bada ere, 2013an izan ziren txikiak emantzipatuta bizi nahi zutela adierazten zuten gazteen zifrak, baina urte horretan izan ziren emantzipatutako pertsonen zifra handienak. Hau izan zen horren arrazoa: gurasoekin bizi zirenen taldean, % 20,8ra arte igo zela familiaren etxean bizitzen jarraitu nahi zutenen ehunekoa.

### 7.4 grafikoa

EGOITZAKO ETXEBIZITZAREN AUKERA GOGOKOENAREN BILAKAERA EMANTZIPATU GABEKO GAZTEEN ARTEAN (%)



Emantzipazio-adin ideala ez da aldatu urte horietan; aztertu diren hiru urteetan, gazteek erantzuten dute 24 urte dela adin hori.

Beraz, esan daiteke Euskadin gazteak ez direla nahi dutenean emantzipatzen. Horregatik, jarraian, aztertuko dugu zer zailtasun nagusi dituzten emantzipatzeko.

## 7.2. EMANTZIPATZEKO ZAILTASUNAK

Jarraian, gazteek emantzipatzeko garaian izan ditzaketen bost zailtasun-mota aztertuko ditugu.


Azterketa horretan, jada emantzipatu diren pertsonak eta gurasoekin bizi baina emantzipatu nahi dutenak bereiziko ditugu.

### 7.2.1. Etxebizitza garesti egotea, erosteko zein alokatzeko

30 urtetik beherako pertsona emantzipatu gehienek diote emantzipatzeko zailtasunak izan dituztela, etxebizitzak garesti daudelako, bai erosteko, bai alokatzeko (% 62,6). Alokairuan emantzipatuta bizi diren pertsonen artean, zailtasun hori adierazten dutenen ehunekoa (% 67,1) batezbesteko orokorra baino handiagoa da. Eta Bizkaian edo Gipuzkoan bizi diren gazte emantzipatuek neurri handiagoan adierazi dute zailtasun hori izan dutela Araban bizi diren gazteek baino.

#### 7.5 grafikoa

30 URTETIK BEHERAKO PERTSONA EMANTZIPATUEN TALDEAN,  
ETXEBIZITZA GARESTI EGOTEA EMANTZIPATZEKO ZAILTASUNA IZAN ZELA ADIERAZI DUTENAK,  
LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA (%)



Hori ez da harritzekoa, kontuan izanda zer alde dauden lurralde historiko batetik bestera salmentan dauden etxebizitzaren batez besteko prezioetan edo etxebizitza libreak alokatzeko batez besteko errentetan.

## 7.1 taula

## LURRALDE HISTORIKOETAKO ETXEBIZITZEN PREZIOEN ARTEKO ALDEAK (EUROTAN)

| (€)   | Lurralde historikoa |         |          |
|---|---------------------|---------|----------|
|   | Araba               | Bizkaia | Gipuzkoa |
| Etxebizitza (berria zein erabilia) librearen batez besteko salmenta-prezioa | 167.043             | 192.781 | 210.415  |
| Pisu babestuen batez besteko salmenta-prezioa                               | 118.098             | 156.813 | 142.745  |
| Etxebizitza librearen batez besteko alokairu-errenta                        | 740                 | 880     | 912      |

Iturria: López Oller, J. (Etxebizitza-emantzipazioaren kostua Euskadin 2015)

Emantzipatutako emakume gazteek gizonek baino neurri handiagoan adierazten dute etxebizitza garesti egotearen zailtasunari aurre egin behar izan diotela, eta hori bat dator emakumeen batez besteko soldatak gizonenak baino txikiagoak izatearekin, 1. kapituluari adierazi dugun moduan; beraz, esfortzu ekonomiko handiagoa egin behar dute zenbateko berdina ordaintzeko. Emantzipatutako emakumeen % 64,8k esan dute zailtasun horri aurre egin behar izan diotela, eta ehuneko hori zertxobait handiagoa da gizonena baino (% 59,5).

Beren burua behe-mailako edo maila ertain baxuko gizarte-klasekotzat hartzen duten emantzipatutako pertsonen ere, neurri handiagoan (% 77,9) aipatu dute etxebizitza garesti egoteak emantzipatzeko zailtasunak sortu dizkiela, beren burua erdi-mailako edo maila ertain altuko gizarte-klasekotzat hartzen dutenek baino (% 53,3).

Bestalde, gurasoekin bizi diren baina beren kontura bizi nahi duten pertsona gazteek neurri handiagoan aipatzen dute arazo horri aurre egin behar diotela, jada emantzipatutako gazteek baino: % 77,0 eta % 62,6, hurrenez hurren.

Eta kolektibo horren barruan (gurasoekin bizi diren gazteetatik, emantzipatuta bizi nahiko luketenak), halaber, gizon baino emakume gehiagok aipatzen dute etxebizitza garesti egotearen zailtasuna (% 78,9 eta % 75,5, hurrenez hurren). Halaber, gehiago aipatzen dute zailtasun hori Gipuzkoan (% 81,9) edo Bizkaian (% 76,2) bizi direnek Araban bizi direnek baino (% 70,0).

Datuen bilakaerari dagokionez, 2015ean aurreko urteetan baino gutxiago aipatzen dute jada emantzipatutako gazteek etxebizitza garesti egotea zailtasun bat izan zela emantzipatzeko. Halaber, gurasoekin bizitzen dauden eta emantzipatu nahiko luketen gazteen artean, lehen baino gutxiagok esan dute etxebizitza alokatzeko edo erosteko garesti egotea zailtasun bat denik emantzipatzeko.

## 7.2 taula

## EMANTZIPATZEKO ZAILTASUN GISA, ETXEBIZITZA ALOKATZEKO EDO EROSTEKO GARESTI EGOTEAREN INGURUKO AIPAMENEN BILAKAERA (%)

| (%)  | 2011 | 2013 | 2015 |
|--|------|------|------|
| Emantzipatutako gazteen artean, etxebizitza garesti egotea emantzipatzeko zailtasuna izan zela diotenak                            | 74,3 | 74,3 | 62,6 |
| Gurasoekin bizi baina beren kontura bizi nahiko luketen artean, etxebizitza garesti egotea emantzipatzeko zailtasuna dela diotenak | 89,9 | 80,5 | 77,0 |

Beherakada hori bat dator etxebizitza librearen batez besteko salmenta-prezioak merkatzearekin (2011n, batez besteko prezio hori 250.341 euro zen, eta 2015ean, berriz, 196.053 euro). Batez besteko alokairu-errenten bilakaera, berriz, desberdina izan da: zertxobait merkatu dira, 2015eko batezbestekoa (872 euro/hil) 2011ko batezbestekoarekin alderatzen badugu (896 euro/hil), baina garestitu egin dira 2013. urtearekiko, urte hartan hileko batez besteko errenta 825 euro baitzen (alokatzeko etxebizitza libre guztien batez besteko prezioa da hori, ez emantzipatutako gazteek ordaintzen dituzten errenten batezbestekoa). Etxebizitza babestuari dagokionez, guztiz kontrakoa gertatu da, prezioak igo egin baitira<sup>10</sup>, baina gogoan izan behar da etxebizitza babestua hartuta emantzipatu diren gazteak gutxiengoa direla.


## 7.2.2. Diru-sarrera propioak izateko zailtasunak

Emantzipatutako gazteek gehien aipatzen duten bigarren zailtasuna diru-sarrera propioak izatea da. Beren kontura bizi diren 30 urtetik beherako pertsonen erdiak baino gehiagok (% 57,1, hain zuzen ere) diote arazo hori izan dutela. Zailtasun hori gehiago aipatzen dute emakume gazte emantzipatuek gizonek baino (% 59,3 eta % 54,0, hurrenez hurren), eta hori logikoa da, kontuan hartuta emakumeen artean direla handiagoak aldi baterako lan-kontratuen eta lanaldi partzialeko kontratuen ehunekoak, eta, batez beste, gizonek baino soldata txikiagoak dituztela, lehen aipatu dugun moduan.

Adinaren arabera, aldeak gero eta nabarmenagoak dira. 25 urtetik beherako gazte emantzipatuen artean, diru-sarrera propioak izatearen arazoa aipatzen dutenen ehunekoak % 68,8ra iristen da, eta 25-29 urtekoen taldean, berriz, % 52,8k diote oztopo hori izan dutela emantzipatzeko.

### 7.6 grafikoa

30 URTETIK BEHERAKO PERTSONA EMANTZIPATUEN TALDEAN, DIRU-SARRERA PROPIOAK IZATEKO ZAILTASUNA EMANTZIPATZEKO OZTOPOA IZAN ZELA ADIERAZTEN DUTENAK, SEXUAREN ETA ADIN-TALDEEN ARABERA (%)



<sup>10</sup> Etxebizitza babestuaren prezioen bilakaera kontsultatzeko, ikusi *Etxebizitza-emantzipazioaren kostua Euskadin 2015, op. cit.*

Gizarte-klasearen arabera, aldeak are handiagoak dira: behe-mailako edo maila ertain baxuko gazte emantzipatuek neurri handiagoan egin behar izan diote aurre diru-sarrera propioak izateko zailtasunari (% 79,1) beren burua erdi-mailako edo maila ertain altuko gizarte-klasekotzat hartzen dutenek baino (% 44,6).

Bestalde, beren kontura bizitzera joan nahiko luketen gazte emantzipatu gabeen artean, % 72,6k aipatzen dute arazo hori beren emantzipazio-proiektua martxan jartzeko; hau da, emantzipatu nahi bai, baina gurasoekin bizi diren gazteek gehiago aipatzen dute arazo hori, independizatzeko unean zailtasun hori gainditu behar izan zutela adierazten duten gazte emantzipatuek baino.

Zailtasun hau zer neurritan adierazten den aztertuz gero, ikusten da behera egin duela hura aipatzen dutenen ehunekoa, bai emantzipatuta daudenen artean, bai emantzipatzeko zain daudenen artean.

### 7.3 taula

DIRU-SARRERA PROPIOAK IZATEKO ARAZOA EMANTZIPAZIORAKO  
OZTOPOTZAT AIPATZEAREN BILAKAERA (%)

| (%)  | 2011 | 2013 | 2015 |
|--|------|------|------|
| Emantzipatutako gazteen artean, diru-sarrera propioak izateko arazoa emantzipatzeko zailtasuna izan zela diotenak                            | 65,6 | 64,4 | 57,1 |
| Gurasoekin bizi baina beren kontura bizi nahiko luketen artean, diru-sarrera propioak izateko arazoa emantzipatzeko zailtasuna dela diotenak | 81,9 | 75,6 | 72,6 |

Jaitsiera hori lotuta egon daiteke langabezia-zifrek izandako beherakadarekin eta langabezian dauden pertsonen enplegua aurkitzeko itxaropen handiagoak izatearekin (2011n, langabezian zeuden gazteetatik % 32,2k pentsatzen zuten sei hilabeteko epean lana aurkituko zutela; 2015ean, ehuneko hori % 53,4ra igo da).


### 7.2.3. Banku-maileguak eskuratzeko zailtasuna

Emantzipatutako gazteen % 53,1ek diote emantzipatzean arazoak izan dituztela kreditu-mailegu bat lortzeko. Alokairuan bizi direnen artean (gogoan izan 30 urtetik beherako gazteen gehiengoa dela), % 59,1ek aipatu dute zailtasun hori.

Alokairuan bizi diren gazteez gain, hauek dira banku-kreditu bat lortzeko zailtasun handienak adierazten dituzten gazte emantzipatuen kolektiboak: emakumeak (% 55,9k diote arazoak izan dituztela), 25 urtetik beherako gazteak (% 66,2k horrelako arazoak izan dituzte), hilean 1.200 eurotik behera dituztenak (% 64,0), eta beren burua behe-mailako edo maila ertain baxuko gizarte-klasekotzat hartzen dutenak (% 70,6).

**7.7 grafikoa**

30 URTETIK BEHERAKO PERTSONA EMANTZIPATUEN TALDEAN, BANKU-KREDITUAK LORTZEKO ZAILTASUNA EMANTZIPATZEKO TRABA IZAN ZELA ADIERAZTEN DUTENAK, SEXUAREN, ADIN-TALDEEN ETA HILEKO DIRU-BALIABIDEEN ARABERA (%)



Emantzipatu nahiko luketen gazte emantzipatu gabeen artean, % 65,4k aipatzen dute arazo hori; hau da, emantzipatu nahi duten hiru gaztetatik bik arazoak dituzte edo izango lituzkete banku-kreditu bat lortzeko. Behe-mailako edo maila ertain baxuko gizarte-klaseko gazteen artean, emantzipatu nahi dutenen taldean, banku-kreditu bat lortzeko arazoak dituztenen edo arazoak izango lituzketela aurreikusten dutenen ehunekoak batezbestekoa baino hamar puntu handiagoa da (% 74,6).

Datu horren bilakaerak adierazten du behera egin duela banku-kredituak eskuratzeko arazoak izan dituztela adierazten duten gazte emantzipatuen ehunekoak (% 63,1etik % 53,1era). Alderdi horri dagokionez, aipatu behar da 2015ean gazte emantzipatu gehiago daudela alokairuan (ehunekotan, 2013an baino hamar puntu gehiago), eta horrek eragina izan dezake kredituak lortzeko zailtasunak behera egiteko, kreditua gazte gutxiagok eskatuko zutelako, eta horrenbestez, krediturik lortzeko zailtasunak izan dituztenen ehunekoak ere txikiagoa da.

Emantzipatu nahiko luketen gazte emantzipatu gabeei dagokienez, talde horretan ere, jaitsiera dago kredituak lortzeari buruzko aipamenetan: % 72,2tik (2013) % 65,4ra (2015), hain zuzen. Jaitsiera horrekin bat, gora egin dute talde horretan etorkizunean emantzipatzeko alokairuaren alde egingo luketela diotenek (% 51,0tik % 61,7ra), eta horrek eragina izan dezake kredituekin lotutako arazoetan: gazte gutxiagok eskatuko dituztenez, gutxiagok izango dituzte kredituak lortzeko arazoak.

**7.4 taula**

BANKU-KREDITU BAT ESKURATZEKO ZAILTASUNA EMANTZIPAZIORAKO OZTOPOTZAT AIPATZEAREN BILAKAERA (%)

| (%)  | 2013 | 2015 |
|--|------|------|
| Emantzipatutako gazteen artean, banku-kreditu bat eskuratzeko arazoa emantzipatzeko zailtasuna izan zela diotenak                            | 63,1 | 53,1 |
| Gurasoekin bizi baina beren kontura bizi nahiko luketen artean, banku-kreditu bat eskuratzeko arazoa emantzipatzeko zailtasuna dela diotenak | 72,2 | 65,4 |


## 7.2.4. Familiaren oposizioa

Emantzipatzeko garaian, oztopo bat al da benetan familiaren iritzia? Emantzipatutako gazteen % 4,2k soilik aipatu dute arazo hori izan dutela emantzipatzeko.

Ez daude alde handiak emantzipatutako pertsonaren sexuaren edo gizarte-klasearen arabera, baina bai adinaren edo jatorriaren arabera. 25 urtetik beherako gazte emantzipatuek adin horretatik gorakoek baino neurri handiagoan izan dute familiaren oposizioa emantzipatzeko garaian (% 6,4k diote horrelako arazoak izan dituztela). Gazte atzerritarrek Euskadin jaiotakoek baino familia-oposizio handiagoa izan zuten emantzipatzeko garaian (% 6,9 eta % 2,5, hurrenez hurren). Hori logikoa da, kontuan hartuta emantzipazioak, familiaren etxetik irteteaz gain, jatorriko herrialdetik irtetea zekarrela batzuetan.

### 7.8 grafikoa

30 URTETIK BEHERAKO PERTSONA EMANTZIPATUEN TALDEAN, FAMILIAREN OPOSIZIOA EMANTZIPATZEKO TRABA IZAN ZELA ADIERAZTEN DUTENAK, ADIN-TALDEEN ETA JAIOTZA-LEKUAREN ARABERA (%)



Emantzipatu nahi duten gazte emantzipatu gabeen artean, % 8,3k diote familiaren oposizioa emantzipatzeko oztopoa dela. Kasu horretan, funtsean, aldeak adinaren arabekoak dira. 25 urtetik beherakoen taldean, emantzipatu nahi dutenen % 10,3k familia emantzipatzearen aurka dute. 25-29 urtekoen taldean, berriz, % 4,1ek dute familia erabaki horren kontra. Izan ere, 16-24 adin-tarte horretan, sarritan, gazteen zenbait egoera direla eta (oraindik ikasten egotea, diru-baliabide urriak izatea eta abar), haien emantzipazio-proiektua familiarentzako karga ekonomikoa izan daiteke.

Datuen bilakaerak erakusten digu beren emantzipazio-proiektua gauzatzeko familiaren oposizioari aurre egin behar izan zioten gazte emantzipatuen ehuneko oso minoritarioa izan dela aztertutako hiru urteetan. Gainera, 2015ean, ehuneko hori zertxobait jaitsi da. Gurasoekin bizitzen egonda emantzipatu nahiko luketen gazteek aurre egin beharreko familia-oposizioa zertxobait behera egiten ari da.

### 7.5 taula

FAMILIAREN OPOSIZIOA EMANTZIPAZIORAKO OZTOPOTZAT AIPATZEAREN BILAKAERA (%)

| (%)  | 2011 | 2013 | 2015 |
|--|------|------|------|
| Emantzipatutako gazteen artean, familiaren oposizioa emantzipatzeko zailtasuna izan zela diotenak                            | 5,6  | 6,0  | 4,2  |
| Gurasoekin bizi baina beren kontura bizi nahiko luketen artean, familiaren oposizioa emantzipatzeko zailtasuna dela diotenak | 10,2 | 9,3  | 8,3  |

#### 7.2.5. Familiarekin bizitzen izaten den erosotasuna galdu nahi ez izatea

Sarritan entzuten da gazteak ez direla emantzipatzen gurasoen etxean oso eroso bizi direlako eta erosotasun hori galdu nahi ez dutelako. Gurasoen etxean eroso bizi direla kontuan hartuta ere, benetakoa arrazoia al da hori ez emantzipatzeko?

30 urtetik beherako pertsona emantzipatuetatik % 3,8k soilik diote familiaren etxean zituzten erosotasunak galdu nahi ez izatea emantzipatzeko zailtasuna izan zela.

Mutilen eta 25 urtetik beherako pertsonen kasuan, ehuneko hori zertxobait handiagoa da (% 4,8 bi kasuetan).

Bestalde, emantzipatu nahiko luketen gazte emantzipatu gabeen taldean, % 19,7k adierazi dute gurasoen etxean dituzten erosotasunak galdu nahi ez izatea emantzipatzeko traba dela beraientzat; hau da, gurasoekin bizi diren 30 urtetik beherako bost lagunetik batek emantzipatu nahiko luke, baina familiaren etxeko erosotasunekin. Talde horretan, 25 urtetik beherakoek eta beren burua erdi-mailako edo maila ertain altuko gizarte-klasekotzat hartzen duten pertsonak adierazten dute gehien familiaren etxeko erosotasunak galdu nahi ez izatea, emantzipazioa atzerako argudio gisa (% 21,9 eta % 21,4, hurrenez hurren)

2013an, emantzipatutako gazteen % 7,3k adierazten zuten familiaren etxeko erosotasunak galdu nahi ez izateak zailtasunak eragin zizkiela emantzipatzeko orduan. 2015ean, ehuneko hori erdira jaitsi da (% 3,8). Aldiz, gurasoekin bizitzen daudenen multzokoen artean, emantzipatuta bizi nahi badute ere, zertxobait gora egin du familiaren etxeko erosotasunak galdu nahi ez izateak (beste arrazoi batzuez gain) emantzipazioa atzerazten diela adierazten dutenen ehunekoak (% 17,7tik % 19,7ra).

### 7.6 taula

FAMILIAREKIN BIZITZEN IZATEN DEN EROSOTASUNA GALDU NAHI EZ IZATEA  
EMANTZIPAZIORAKO OZTOPOTZAT AIPATZEAREN BILAKAERA (%)

| (%)   | 2013 | 2015 |
|---|------|------|
| Emantzipatutako gazteen artean, familiarekin duten erosotasuna galdu nahi ez izatea emantzipatzeko zailtasuna izan zela diotenak                            | 7,3  | 3,8  |
| Gurasoekin bizi baina beren kontura bizi nahiko luketen artean, familiarekin duten erosotasuna galdu nahi ez izatea emantzipatzeko zailtasuna dela diotenak | 17,7 | 19,7 |

### 7.3. ETXEBIZITZA-ZERBITZU PUBLIKOAK, EMANTZIPAZIOA ERRAZTEKO BALIABIDEA

Emantzipatutako hamar gaztetatik seik ez dituzte inoiz erabili etxebizitza-zerbitzu publikoak (% 59,9) Horren arrazoiak, besteak beste, interesik eza, ezjakintasuna edo etxebizitza publiko bat eskuratzeko behar diren baldintzak ez betetzea izan daitezke, baina ez dakigu zenbaterainoko eragina duen arrazoi horietako bakoitzak.

Emantzipatutako gazteen % 25,0 (hau da, laurdena) izena emanda daude etxebizitza-zerbitzu publikoren batean, zozketaren zain. Zozketaren zain dauden pertsona emantzipatuen % 90 alokairuan bizi dira gaur egun.

Emantzipatutako pertsona gazteen beste % 9,3k diote lehenago izena emanda egon zirela, baina borratu egin zirela, eta ez zirela inoiz etxebizitza publikorik eskaini.

Azkenik, emantzipatutako gazteen % 5,3k diote izena emanda egoteaz gain, etxebizitza publiko bat esleitu zirela (jabetzan edo alokairuan). Talde hori honela banatzen da: % 3,6k etxebizitza publikoa eskuratu zuten eta gainerakoek (% 1,7) uko egin behar izan zioten, gastuari aurre egiteko ahalmenik ez zutelako edo etxebizitza ordaintzeko banku-kreditua eman ez zirelako (etxebizitza sozialen edo babes ofizialeko etxebizitzaren kasuan).


Etxebizitza publikoa eskuratu dutenen ehuneko hori (% 3,6) txikiagoa da etxebizitza publiko batean bizi direla diotenen gazte emantzipatuen ehunekoa baino (% 5,8). Horren arrazoiak da gazte gehienak bikotekidearekin emantzipatzen direla, etxebizitza publikoaren onuraduna bikoteko kideetako bat izanik.

Bestalde, gurasoekin bizi diren gazteetatik gehienek ez dute inoiz izena eman etxebizitza-zerbitzu publikoetan (% 90,7).

% 6,1 izena emanda daude, zozketen zain. Beste % 1,8 izena emanda egon ziren lehen, baina borratu egin ziren, zozketetan ezer tokatu gabe. % 0,3k etxebizitza sozial bat edo babes ofizialeko etxe bat lortu dute eta hartan bizitzen jartzeko zain daude, eta beste % 0,3k diote etxebizitza publiko bat tokatu zitzaizela, baina uko egin behar izan ziotela, gastuari aurre egin ezin zirelako edo banku-mailegurik lortu ez zutelako.

## 7.9 grafikoa

16-29 URTEKO GAZTE EMANTZIPATUEN ETA EMANTZIPATU GABEEN BANAKETA, KONTUAN HARTUTA EA INOIZ IZENA EMAN DUTEN ETXEBIZITZA-ZERBITZU PUBLIKOREN BATEAN, ETXEBIZITZA SOZIAL BAT EDO BABES OFIZIALEKO ETXEBIZITZA BAT LORTZEN SAIAZTEKO, DELA JABETZAN, DELA ALOKAIRUAN (%)



2013tik 2015era, emantzipatutako gazteen taldean, etxebizitza sozial bat edo babes ofizialeko etxebizitza bat lortu dutenen ehunekoak behera egin du (% 10,1etik % 3,6ra). 16-29 urteko gazteen talde osoari dagokionez, beherakada izan da 2013tik 2015era, % 3,3tik % 1,1era.

Beherakada horren arrazoiak aztertzean, aipa daiteke notario aurrean eskuraturako etxebizitza babestuen kopuruak behera egin duela inkestaren aurreko urteetan. Hala, 2012an, Euskadin 3.552 etxebizitza babestu eskuratu ziren notarioaren aurrean, baina 2014an kopuru hori txikiagoa izan zen (1.835 etxebizitza<sup>11</sup>). Halaber, beherakada egon da alokairu-erregimeneko etxebizitza babestuen edo sozialen parkean. Izan ere, 2012an, 18.445 etxebizitzek osatzen zuten parke hori, eta 2014an, berriz, 17.770 dira<sup>12</sup>. Kopuru horietan, etxebizitza babestu guztiak sartzen dira, eta ez gazteek eskuraturako edo haiei esleitutako etxebizitzak soilik. Dena dela, kopuru horiek aditzera ematen dute zer-nolako jaitziera egon den erosteko edo alokatzeko etxebizitza babestuen eskaintzan.

Aldiz, gora egin du izena inoiz eman ez duten gazteen ehunekoak edo, izena emanda, etxebizitza babesturik tokatu gabe erregistrotik borratu direnenak. Ehuneko hori 30 urtetik beherako gazte guztien % 81,8 zen 2013an, eta % 86,3 da 2015ean. Jaitziera hori lotuta egon daiteke Etxebide (etxebizitza babestuak esleitzeko ardura duen zerbitzu publikoa) arautzen duen agindua indarrean sartzearekin (2013an). Agindu horren arabera, eskaera bi urtean behin berri behar da, eta gainera, erostearen alde ala alokatzearen alde hautatu behar da ezinbestean<sup>13</sup>. Hori dela eta, gerta liteke zenbait pertsonak atzera egitea eskaera egiterakoan, edo eskaera berri gabe iraungitzen uztea.

<sup>11</sup> LÓPEZ OLLER, Joffre. *op. cit.*

<sup>12</sup> Etxebizitzaren Euskal Behatokia: *EAEko alokairu-politikaren ebaluazio-txostena 2015* [online]. Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila (2016). Hemen eskuragarri: [http://www.garraioak.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/ovv\\_adm\\_alquiler2015/eu\\_ovv\\_admi/adjuntos/evaluacion\\_alquiler\\_2015\\_eu.pdf](http://www.garraioak.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/ovv_adm_alquiler2015/eu_ovv_admi/adjuntos/evaluacion_alquiler_2015_eu.pdf) [Kontsulta: 2017/01/31]

<sup>13</sup> 211. zenbakidun EHAA, 2012ko urriaren 31koa. AGINDUA, 2012ko urriaren 15ekoa, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, etxebizitza-eskatzaileen erregistroari eta babes ofizialeko etxebizitzak nahiz araubide autonomikoko zuzkidura-bizitokiak esleitzeko prozedurei buruzkoa [online]. Hemen dago eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2012/10/120481e.pdf> [Kontsulta: 2017/01/31]

Bestalde, *Erroldan izena emanda dauden etxebizitza babestuaren eskatzaileei egindako inkesta 2015*<sup>14</sup> inkestako datuen arabera, eskatzaileen % 16,5ek soilik dute 30 urtetik behera. Datu horiek bat datoz etxebizitza babestuen eskatzaileen zein esleipendunen artean gazteek duten presentzia erlatibo urriarekin. Baina kontuan izan behar da etxebizitza babestu bat eskuratu ahal izateko zenbait baldintza zehazten direla; esaterako, diru-sarrera maximoak ezartzen dira, baina baita diru-sarrera minimoak ere, eta askotan, gazteak ez dira diru-sarrera minimo horietara iristen.

### Gazteen artean, zein izan dira etxebizitza babestuen onuradun handienak?

Araban eta Gipuzkoan bizi diren gazteek proportzio handiagoan eskuratu dituzte etxebizitza babestuak Bizkaian bizi direnek baino. Hala ere, pertsona horietatik, batzuek uko egin behar izan diote esleitutako etxebizitzari, gastuari aurre egin ezin ziotelako. Beren burua behe-mailako edo maila ertain baxuko gizarte-klasekotzat hartzen duten pertsoneri ere, neurri handiagoan esleitu zaizkie etxebizitza publikoak, beren burua erdi-mailako edo maila ertain altuko gizarte-klasekotzat hartzen dutenei baino.

#### 7.7 taula

16-29 URTEKO GAZTEEN BANAKETA, ETXEBIZITZA-ZERBITZU PUBLIKO EKIKO HARREMANA KONTUAN HARTUTA, EGOITZAKO LURRALDE HISTORIKOAREN ETA GIZARTE-KLASE SUBJEKTIBOAREN ARABERA (%).

| (%)   | GUZTIRA | Lurralde historikoa |         |          | Gizarte-klase subjektiboa |                           |
|---|---------|---------------------|---------|----------|---------------------------|---------------------------|
|   |         | Araba               | Bizkaia | Gipuzkoa | Erdi-maila + ertain altua | Behe-maila + ertain baxua |
| Bai eta etxebizitza publikoa eskuratu zuten (jabetzan edo alokairuan)   | 1,1     | 1,5                 | 0,7     | 1,6      | 0,7                       | 2,7                       |
| Bai eta etxebizitza publikoa esleitu zieten, baina uko egin behar izan zioten ezin ziotelako gastuari aurre egin edo ez ziotelako banku-kreditua eman | 0,6     | 0,9                 | 0,0     | 1,6      | 0,6                       | 1,0                       |
| Bai, izena eman dute eta zozketaren zain daude  | 11,1    | 6,8                 | 12,7    | 10,6     | 10,0                      | 16,0                      |
| Izena emanda zeuden baina borratu egin ziren etxebizitza publikorik lortu gabe  | 3,7     | 3,1                 | 4,1     | 3,5      | 3,5                       | 4,0                       |
| Ez dute inoiz izena eman  | 82,6    | 87,5                | 81,4    | 82,0     | 84,7                      | 74,4                      |
| Ed/Ee   | 0,8     | 0,3                 | 1,0     | 0,7      | 0,5                       | 1,9                       |
| GUZTIRA   | 100     | 100                 | 100     | 100      | 100                       | 100                       |
| (n)   | 1338    | 335                 | 530     | 473      | 1001                      | 311                       |

<sup>14</sup> Etxebizitzaren Euskal Behatokia: *Etxebide Etxebizitzaren Euskal Zerbitzuaren ebaluazioa. Erroldan izena emanda dauden etxebizitza babestuaren eskatzaileei egindako inkesta 2015* [online] - Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila (2016). Hemen eskuragarri: [http://www.garraioak.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/ovv\\_per\\_demandaetxebide2015/eu\\_ovv\\_opi/adjuntos/Inscritos%20Etxebide%202015eu.pdf](http://www.garraioak.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/ovv_per_demandaetxebide2015/eu_ovv_opi/adjuntos/Inscritos%20Etxebide%202015eu.pdf) [Kontsulta: 2017/01/31]

## 7.4. EMANTZIPATZEKO ZAILTASUNAK ETA BALIABIDEAK 30-34 URTEKO PERTSONEN TALDEAN


Lehenik eta behin, aipatu behar da emantzipatu nahi duten pertsona guztiak ez daudela emantzipatuta adin horretan. 30-34 urteko pertsonen % 92,9k emantzipatuta bizi nahi dute (% 70,2, bikotekidearekin; % 18,2, bakarrik; eta gainerako % 4,6, lagunekin); hala ere, adin horretan emantzipatuta daudenen ehunekoa % 74,3 da. Nahiaren eta errealtatearen arteko ehunekoen aldea 18,6 puntukoa da.

30-34 urteko pertsona emantzipatuen ehunekoa ez da asko aldatu azken urteotan: 2011n, % 73,7 ziren; 2013an, % 76,2; eta 2015ean, % 74,3. Emantzipatuta bizi nahi dutenen ehunekoa zertxobait handiagoa izan zen 2013an (% 95,4) gaur egun baino. 2015eko balioa 2011ko balioaren antzekoa da (% 92,1). Emantzipatuta dauden pertsonen eta emantzipatuta bizi nahi duten pertsonen ehunekoen arteko aldea ez da ia aldatu urte hauetan: 18,4 puntukoa zen 2011n; 19,2 puntukoa 2013an; eta 18,6 puntukoa, berriz, 2015ean.

Alde hori txikiagoa da 16-29 urteko gazteen taldean dagoena baino. Talde horretan, hain zuzen, emantzipatuta bizi nahi dutenen ehunekoa altua da ere, baina benetan emantzipatuta daudenen ehunekoa, berriz, minoritaria da.

### 7.10 grafikoa

EMANTZIPATUTA BIZI NAHI DUTENEN ETA EMANTZIPATUTA DAUDENEN ARTEKO ALDEA. 16-29 URTEKO ETA 30-34 URTEKO TALDEEN ARTERAKETA (%)



Adin-talde horretan, uste da 25 urte dela emantzipatzeko adinik onena, baina kolektibo horretako laurden bat (% 24,7) emantzipatu gabe dago eta 30 urtetik gora ditu jada.

Aurreko urteetan emantzipatzeko adin egokientzat hartzen zen adina (hau da, 24 urte eta erdi) ez da apenas aldatu.


Adin ideal hori urtebete handiagoa da 16-29 urteko taldekoek adin egokientzat hartzen duten adinaren aldean.

30-34 urteko pertsona emantzipatuek beren kontura bizitzera joateko izan dituzten zailtasunei dagokienez, erdiak baino zertxobait gehiagok (% 55,2) diote arazoak izan zituztela etxebizitza garesti egoteagatik, dela alokatzeko, dela erosteko. Erdiak baino gutxiagok adierazten dute arazoak izan dituztela diru-sarrera propioak izateko (% 46,7) edo banku-kreditu bat eskuratzeko (% 44,0). Adin horretako oso pertsona emantzipatu gutxik (% 3,3) adierazten dute gurasoekin bizitzen zituzten erosotasunak galdu nahi ez izatea arazo bat izan zela gurasoen etxetik joateko. Gutxi dira, halaber, familiaren oposizioari aurre egin behar izan ziotela diotenak (% 2,3).

Alderatzen badugu zenbat aipatzen diren arazo horiek 30-34 urteko pertsona emantzipatuen eta 16-29 urteko gazte emantzipatuen artean, ikusiko dugu aipatzen diren arazoaren rankinga oso antzekoa dela, eta etxebizitza garesti egotea izan dela bi kolektibo horietan emantzipatzeko oztopo nagusia. Hala ere, zailtasun horietako bakoitzari buruzko aipamenei dagozkien ehunekoak handiagoak dira 30 urtetik beherakoen taldean 30-34 urteko pertsonen taldean baino.

### 7.11 grafikoa

16-29 URTEKO ETA 30-34 URTEKO PERTSONA EMANTZIPATUEK EMANTZIPAZIORAKO ADIERAZITAKO ARAZO NAGUSIAK (%)



Hori ez da harritzekoa, kontuan hartzen baditugu 16-29 urteko pertsona emantzipatuen taldekoen eta 30-34 urteko pertsona emantzipatuen taldekoen baldintzak. Izan ere, bigarren taldean, handiagoa da pertsona landunen ehunekoa, eta gainera, gehiagok dituzte baldintza hauek: lan-kontratu mugagabea, lanaldi osokoa, soldata handiagoa, eta, horrenbestez, hileko diru-sarrera handiagoak. Horrek eragiten du diru-sarrera propioak egonkorragoak izatea, etxebizitza ordaintzeko esfortzu txikiagoa egin behar izatea, eta banku-erakundeek pertsona horiek kreditua ordaintzeko duten kaudimenarekin gehiago fidatzea.

Bestalde, 30-34 urteko pertsona emantzipatuen taldean arrazoi horien bilakaera aztertzen badugu, ikusten da etxebizitza garesti egotearen arazoia gutxiago aipatzen dela 2015ean (% 55,2) 2011n (% 67,6) edo 2013an (% 67,4) baino. Arazo horren aipamenei jaitziera jada komentatu dugu 30 urtetik beherako gazteen taldean ere.

Diru-sarrera propioak lortzeko zailtasuna ere gutxiago aipatzen da 2015ean (% 46,7) aurreko urteetan baino (2011n % 51,7 eta 2013an % 53,4). Talde horren barruan langabezian dauden ehunekoak behera egitea (2011n % 19,8 ziren; 2013an % 22,8; eta 2015ean % 17,8) izan daiteke diru-sarrera propioak eskuratzeko arazo gutxiago izatearen arazoietako bat (izan ere, 2013an langabezian zeuden pertsona emantzipatuen ehunekoa handiagoa zen eta diru-sarreraren arazoa gehiagok aipatu zuten; 2015ean, berriz, langabe gutxiago daude eta gutxiagok aipatzen dute diru-sarreraren arazoa).

Banku-kreditu bat lortzeko arazoa ere gutxiago aipatu da 2015ean 2013an baino; 30-34 urteko pertsona emantzipatuen taldean, arazo hori izan dutela dioten ehunekoak behera egin du, % 56,5etik % 44,0ra. Talde horren barruan alokatzearen aukerak gora egin du (2013an % 40,4, eta 2015ean, berriz, % 43,5), eta, agian, arrazoi horregatik dira gutxiago kreditu bat eskuratzeko zailtasunak izan dituztela diotenak (baina,aldi berean, alokairuaren aukerak gora egitea zailtasun horien ondorio izan daiteke).

Familiarekin bizitzen izaten zituzten erosotasunak galdu nahi ez izatearen arrazoia, emantzipaziorako traba gisa, gutxiagok aipatu dute 2015ean (% 3,3) 2013an baino (% 7,0). Gogoan izan behar da 2013an izan zirela langabezia-tasa handienak eta lanean zeudenen batez besteko soldatak txikiagoak izan ziren; beraz, emantzipatzea nekezagoa zen.

Azkenik, familiaren oposizioa oso minoritaria izan da aztertutako hiru urteetan.

Adin-talde horretan, erreparatzen badiegu emantzipatu nahi bai, baina oraindik emantzipatu gabe daudenei, ikusten da oraindik gurasoen etxean bizi direnen taldean, 2015ean, % 87,9k aipatzen dutela etxebizitza garesti egotearen arrazoia; % 71,4k, diru-sarrera propioak izateko zailtasuna; eta % 70,7k, kreditu bat lortzeko zailtasuna. Bestalde, % 13,0k gurasoen etxeko erosotasunak galdu nahi ez dituztela diote, eta % 3,3k soilik familiaren oposizioari aurre egin behar diotela. Beraz, emantzipatu nahi bai, baina oraindik familiaren etxean jarraitzen dutenen taldean, esan daiteke neurri handiagoan egin behar dietela aurre arazo horiei jada emantzipatuta daudenen taldean baino.


Etxebizitza publikoa emantzipazioa errazteko baliabide izateari dagokionez, 30-34 urteko pertsona emantzipatuen taldean, % 12,7ri esleitu zaie etxebizitza sozial bat edo babes ofizialeko etxebizitza bat, dela jabetzan, dela alokairuan. Hala ere, etxebizitza eskuratzea lortu zutenen ehunekoa % 8,6 izan zen. Gainerakoek (% 4,1) uko egin behar izan zioten etxebizitzari, ordaindu ezin zutelako edo banku-kreditu bat lortu ez zutelako. Gaur egun, % 16,4k egin dute eskaera, eta zozketaren zain daude. % 26,4 izena emanda egon ziren, baina berratu egin ziren etxebizitza publikorik inoiz tokatu gabe. Talde ugarietak, adin-talde horretako pertsona emantzipatuen % 43,4k, ez du inoiz izena eman etxebizitza-zerbitzu publikoetan, etxebizitza babestu bat lortzeko aukera izateko.

30 urtetik beherako gazte emantzipatuekin alderatuta, ikusten da 30-34 urteko pertsona emantzipatuen taldean etxebizitza sozialen edo babes ofizialeko etxebizitzaren esleipendun gehiago daudela (bai etxebizitzaren titularrak, bai etxebizitzari uko egin behar izan diotenak), eta jende gehiagok bilatu behar izan zuela emantzipatzeko beste moduren bat (etxebizitza publikorik lortu gabe berratu ziren erregistro publiko horietatik).

Aldiz, 30 urtetik beherako gazte emantzipatuen taldean, etxebizitza-zerbitzu publikoak inoiz erabili ez dituztenen ehunekoa handiagoa da, eta, aldi berean, pertsona gehiago daude etxebizitza publikoaren zozketaren zain.

### 7.12 grafikoa

16-29 URTEKO ETA 30-34 URTEKO PERTSONA EMANTZIPATUEN BANAKETAREN ALDERAKETA, ETXEBIZITZA-ZERBITZU PUBLIKOEN HARREMANAREN ARABERA (%)



Hala ere, gogoan izan behar da gaur egun etxebizitza babestu batean bizi diren 30-34 urteko pertsona emantzipatuen ehunekoak ez dela % 8,6, baizik eta % 11,2, gerta liteke-eta bikotekidea izatea etxebizitza publikoaren onuraduna.

2013tik 2015era, 30-34 urteko pertsona emantzipatuen taldean, behera egin du etxebizitza publikoa benetan eskuratu dutenen ehunekoak (% 13,4tik % 8,6ra). Etxebizitzari uko egin behar izan diotenen ehunekoak, berriz, ez da ia aldatu (2013an, % 4,6, eta 2015ean, % 4,1).

Bestalde, oraindik gurasoekin bizi diren 30-34 urteko pertsonen taldean, % 4,3ri etxebizitza babestu bat tokatu zitzaion, baina uko egin behar izan zioten, gastuari aurre egiteko baliabiderik ez zutelako. % 0,4ri etxebizitza publiko bat esleitu diete, eta sartzeko zain daude. Eta % 20,2k eskaera egin dute, eta zozketaren zain daude.

## 7.5. KAPITULUAREN LABURPENA

Gazteak ez dira emantzipatzen nahi duten adinean; emantzipatzeko adinik onena 24 urte bada, benetako emantzipazioa askoz geroago gertatzen da (30 urterekin, batez beste). Horregatik, oso alde handia dago emantzipatu nahi dutenen ehunekoaren eta emantzipatu direnen ehunekoaren artean.

Gazteek emantzipatzeko aipatzen duten zailtasun nagusia etxebizitza garesti egotea da, dela erosteko, dela alokatzeko. Bigarren arazo garrantzitsua diru-sarrera propioak izateko zailtasuna da, eta hirugarrena, berriz, banku-kreditu bat lortzeko zailtasuna. Saillkapen hori bera (emantzipatzeko lehen, bigarren eta hirugarren zailtasun horiek) errepikatu egiten da emantzipatuta daudenen artean zein oraindik gurasoekin bizitzen egonik emantzipatu nahi dutenen artean, nahiz eta bigarren talde horretan arazo horiek aipatzen dituztenen ehunekoak handiagoak diren. Oso gazte gutxi aipatzen dute familiaren oposizioa edo gurasoen etxean izaten diren erosotasunak galdu nahi ez izatea.

30 urtetik beherako gazte gehienek ez dute inoiz izena eman etxebizitza publiko bat eskuratzeko aukera izateko erregistroetan. 2015ean, 16-29 urteko ehun lagunetik batek dio etxebizitza publiko bat lortu duela (proportzio hori aurreko urteetako baino zertxobait txikiagoa da).

30-34 urteko pertsonen taldean, oraindik aldeak daude emantzipatu nahi dutenen eta emantzipatuta daudenen artean, nahiz eta talde horretan tartea txikiagoa den 16-29 urtekoen taldean baino. Emantzipatzeko hiru zailtasun nagusiak ordena berean aipatzen dira, baina oro har, 30-34 urteko pertsona emantzipatuen taldean, gutxiagok diote arazo horiek izan dituztela 16-29 urtekoen taldean baino. Adin handieneko taldean, gehienak etxebizitza-zerbitzu publikoren batean izena emanda daude edo egon dira, eta etxebizitza publikoren bat jabetzan zein alokairuan lortu dutenak gutxiengoak badira ere, 30 urtetik beherako taldean baino askoz gehiago dira (bikoitzetik gora).

# 8

## Alokatzea ala erostea?

Kapitulu honetan aztertuko dugu zer nahiago duten gazteek, alokatzea ala erostea. Horretarako, talde hauek hartuko ditugu kontuan: modu batean edo bestean emantzipatu diren pertsonak, emantzipatuta egonik etxebizitzaz aldatu nahi duten pertsonak, eta oraindik gurasoekin bizi diren pertsonetatik etxebizitza hartzeko modu baten edo bestearen alde egin duten pertsonak. Beraz, azterketa honetako beste kapitulu batzuetan erosketari eta alokairuari buruz adierazi diren datuak laburbilduko ditugu. Oraingoan, ordea, sakonago aztertuko ditugu lurralde historikoen arteko aldeak.

Datu horien bilakaera ikusiko dugu berriz, eta 30 urtetik beherako gazteen eta 30-34 urteko pertsonen egoerak alderatuko ditugu.

### **8.1. ETXEBIZITZA EROSTEAREN ALA ALOKATZEAREN ALDE EGITEA 16-29 URTEKO GAZTE EMANTZIPATUEN TALDEAN**

30 urtetik beherako pertsonak erostearen edo alokatzearen artean hautatutako aukera aztertzeko, bereizi egingo dugu gazteek emantzipatzeko hautatu dutena, batetik, eta etxebizitzaz aldatzeko asmoa dutenek etorkizunerako hautatu nahi dutena, bestetik.

#### **8.1.1. 16-29 urteko gazte emantzipatuek hautatutako aukera**


30 urtetik beherako gazteek alokairua hautatzen dute batik bat emantzipatzeko. Aukera horren alde egin dute adin horretan emantzipatuta dauden gazteen % 73,6k, eta % 17,8k, berriz, nahiago izan dute etxebizitza erosi. Gainerakoek bizi diren etxebizitza oinordetza bidez jaso dute, familiak alde baterako laga die, edo beste edukitza-modalitate minoritario baten bitartez eskuratu dute.

Alokatzearen aukerak indar handiagoa du 25 urtetik beherakoen artean (% 84,1), gazte immigranteen artean (% 91,6) eta beren burua behe-mailako edo maila ertain baxuko gizarte-klasekotzat hartzen dutenen artean (% 83,0). Kolektibo horietan enplegu-zifrak txikiagoak dira eta hileko diru-sarrera txikiagoak dituzte.

Lurralde historikoei erreparatuta, alokairua zertxobait hedatuago dago Bizkaiko eta Gipuzkoako gazteen artean Arabako gazteen artean baino, eta horren arrazoia izan daiteke Bizkaian eta Gipuzkoan Araban baino garestiagoak direla etxebizitzaren salerosketako batez besteko prezioak, bai etxebizitza libreenak, bai etxebizitza babestuenak.

### 8.1 grafikoa

16-29 URTEKO GAZTE EMANTZIPATUAK, ETXEBIZITZA EROSITA EDO ALOKATUTA, EGOITZAKO LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA (%)



Edukitza-modalitate horien bilakaerak erakusten digu alokairuan dauden gazteen ehunekoak gora egin duela, asko, 2013tik aurrera batik bat, eta etxebizitza erosita dutenen ehunekoak, berriz, behera egin du, alokatzeko aukerak gora egin duen neurri berean ia.

Bilakaera hori ez da berdina izan hiru lurralde historikoetan. 2011n, Gipuzkoa zen alokairuan zeuden gazte emantzipatuen ehuneko txikiena zuen lurraldea. 2015ean, berriz, alokairuan dauden gazteen ehuneko handiena du, eta goranzko joera hori ia lineala izan da aztertutako hiru urteetan. Erosketaren aukerak, berriz, asko egin du behera urte batetik bestera. Araban, aldiz, alokatzearen aukerak behera egin zuen zertxobait 2011tik 2013ra. 2015ean, berriz, etxebizitza alokatuz emantzipatu diren gazteen ehunekoa 2011. urteko ehuneko berdina da. Araban, etxebizitza erosi duten gazteen kopuruak behera egin du, baina ez hain nabarmen. Bizkaian, berriz, 2013ko datuak eta 2011koak oso antzekoak izan ziren, etxebizitza erosteari edo alokatzeari dagokionez, eta 2015ean, alokairuaren aukerak gora eta erosketaren aldeko aukerak behera egin dute, asko gainera, eta 2013. urteko ehunekoekiko aldeak askoz handiagoak dira beste lurraldeetan baino.

## 8.1 taula

ETXEBIZITZA EROSTEAREN ETA ALOKATZEAREN AUKEREN BILAKAERA, 16-29 URTEKO GAZTE EMANTZIPATUEN ARTEAN, EGOITZAKO LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA (%)

|          | (%)          | 2011 | 2013 | 2015 |
|----------|--------------|------|------|------|
| Euskadi  | Alokatu dute | 61,0 | 63,1 | 73,6 |
|          | Erosi dute   | 30,3 | 26,7 | 17,8 |
| Araba    | Alokatu dute | 68,6 | 64,1 | 68,6 |
|          | Erosi dute   | 26,5 | 22,2 | 19,9 |
| Bizkaia  | Alokatu dute | 62,3 | 60,8 | 74,2 |
|          | Erosi dute   | 29,4 | 29,6 | 16,7 |
| Gipuzkoa | Alokatu dute | 54,7 | 66,7 | 75,1 |
|          | Erosi dute   | 33,9 | 23,7 | 18,3 |

Galdera hau bakarrik emantzipatutako gazteei egin zaie


Alokatzearen aldeko aukerak izan duen igoerarekin batera, beherakada izan da alokairua etxebizitza erosteko aukera izan bitarterako behin-behineko irtenbidetzat hartzen dutenen ehunekoan (dela une horretan jabetzan erositako etxebizitza bat ordaindu ezin dutelako, dela banku-erakundeek krediturik ematen ez dietelako, dela beste arrazoi batzuegatik). 2011n, alokairuan emantzipatutako gazteen erdiak behin-behineko irtenbidea zela zioten; 2015ean, berriz, gazteen laurdenak baino gutxiagok diote hori. Alokatzea B plan bat izan daitekeela eta ahal izanez gero erosiko luketela diotenen beherakadak argi uzten du gazteek gero eta gehiago egiten dutela alokatzearen alde, lehen aukera gisa.

Bestalde, indar handiagoa hartu du kreditu batean hipotekatu nahi ez izatearen arrazoiak. Izan ere, 2015ean, alokairuan dauden hamar gazte emantzipatutatik lauk adierazten dute arrazoi hori. Igoera horren atzean, etxegabetzeekiko eta hipoteka-exekuzioekiko beldurra egon daiteke. Izan ere, Estatistika Institutu Nazionalak hipoteka-exekuzioei buruz emandako datuen arabera<sup>15</sup>, 2015ean soilik, 261 hipoteka-exekuzio abiatu dira Euskadin, (adin orotako) pertsona fisiko bat titulartzat duten etxebizitzaren gainean. Exekuzio horietatik erdia baino gehiago Bizkaian izan dira (142).

<sup>15</sup> Estatistika Institutu Nazionala (INE): *Hipoteka-exekuzioen estatistika, op. cit.*

## 8.2 grafikoa

ALOKAIRUAN EMANTZIPATUTAKO 16-29 URTEKO TALDEAN, ALOKATZEAREN ALDE EGITEKO ADIERAZITAKO ARRAZOIEN BILAKAERA (%)



### 8.1.2. 16-29 urteko gazte emantzipatuen taldean, etxebizitzaz aldatzeko asmoa dutenek hautatuko luketen aukera

16-29 urteko gazte emantzipatuen multzo osoa berriz hartzen badugu, ikusten da talde horretako laurdenak (% 26,0) urtebeteko epean etxebizitzaz aldatzeko asmoa dutela. Talde txikia da; guztira, adin horretako gazte guztien % 7,0 baino ez. Baina aipagarria da etxebizitzaz aldatzeko asmoa duten talde horretako hamar lagunetik bederatzik alokairuan bizi direla, eta gehienek (% 72,8) alokairua hautatuko lukete berriro.

Noren artean da handiena etxebizitzaz aldatzeko aurreikuspena? Alokairuan bizi diren pertsonak adierazten dute neurri handiagoan inkestaren osteko urtean etxebizitzaz aldatzeko asmoa dutela. Pertsona horietatik herenak (% 32,5) diote hori.

Talde hauetan ere, etxebizitzaz aldatzeko asmoa dute kideen % 30ek baino gehiagok: Bizkaian bizi diren pertsonen % 33,9k, 25 urtetik beherakoen % 37,2k, atzerrian jaio direnen % 33,8k (gogoan izan hamar atzerritarretatik bederatzik alokairuan bizi direla), hipoteka-kuotagatik edo alokairu-errentagatik hilean 540 eurotik gora ordaintzen dutenen % 30,5ek (hau da, hipoteka edo alokairua ordaintzen duten gazte emantzipatuek batez beste ordaintzen duten zenbatekotik gora ordaintzen dutenek), eta gehiegizko esfortzu ekonomikoko egoeran daudenen % 34,4k (diru-sarreraren % 40tik gora erabili behar dituztelako hipoteka edo alokairua ordaintzeko).


Taldeko kideen % 30era iritsi gabe, 73 m<sup>2</sup>-tik beherako azalera duten etxebizitzetan bizi direnen taldean handiagoa da urtebeteko epean etxebizitzaz aldatzeko asmoa dutenen ehunekoa (% 28,3), 73 m<sup>2</sup>-tik gorako azalera duten etxebizitzetan bizi direnen taldean baino (% 21,6) —gogoan izan gazte emantzipatuen etxebizitzetan batez besteko

tamaina dela azalera hori (73 m<sup>2</sup>)—. Eta hilean 1.200 eurotik behera dituztenen taldean handiagoa da etxebizitzaz aldatzeko asmoa dutenen ehunekoa, hilean zenbateko hortik gora dutenen artean baino (% 27,6k eta % 22,9k, hurrenez hurren, urtebeteko epean etxebizitzaz aldatzeko asmoa dute).

Lehenago esan bezala, etxebizitzaz aldatu nahi duten pertsona gehienek (% 72,8) alokatzearen alde egiten dute.

### 8.3 grafikoa

16-29 URTEKO PERTSONA EMANTZIPATUEN TALDEAN, ETXEBIZITZAZ ALDATZEKO AURREIKUSPENA, ETA EROSTEAREN EDO ALOKATZEAREN ARTEKO HAUTAKETA



## 8.2. ETXEBIZITZA EROSTEAREN EDO ALOKAIKIRUAN HARTZEAREN ALDE EGOTEA, 16-29 URTEKO GAZTE EMANTZIPATU GABEEN ARTEAN

Halaber, etorkizunean emantzipatzeko zer nahiago duten galdetu diegu gazte emantzipatu gabeei. Erdiak baino gehiagok (% 55,7) adierazi dute nahiago dutela alokatu, eta % 37,7k, berriz, erostearen alde egin dute (gainerakoek ez dute iritzirik eman).

2011tik 2015era, gurasoekin bizi diren pertsona gazteen artean, alokatzearen aldekoen ehunekoak gora egin du, nabarmen: 2011n, emantzipatu gabeko gazteen % 18,0 ziren alokatzearen aldekoak; 2013an, % 43,9 ziren, eta 2015ean, berriz, % 55,7.

Hiru urte igaro baino lehenago emantzipatzeko asmoa dutenen artean, alokairuaren alde joko luketenen ehunekoa batezbestekotik gorakoa da (2015ean, % 61,7), eta, gainera, alokatzearen aldekoen ehunekoak batezbestekotik gorako igoera izan du azken urteotan (41,3 puntu 2011tik; urte hartan, hiru urteko epean emantzipatzeko asmoa zutenen ehunekoa % 20,4 zen).

Emantzipatu gabeko gazte guztiak kontuan hartuta (eta ez soilik hiru urteko epean emantzipatzeko asmoa dutenak), ikusten da atzerrian jaiotakoek gehiago egiten dutela alokatzearen alde Euskadin jaiotakoek baino (% 60,7 eta % 54,9, hurrenez hurren). Gizarte-klasearen arabera, ordez, ez dago alderik alderdi horretan.

Alokatzearen alde egitea hedatuago dago Gipuzkoan bizi direnen artean (% 61,2) Araban bizi direnen artean (Arabako gazte emantzipatu gabeen % 56,8 alokatzearen alde daude) edo Bizkaian bizi direnen artean baino. Bizkaian, alokatzearen alde egiten dutenen ehunekoa gehiengoa izan arren, beste lurraldeetan baino txikiagoa da (% 52,3).

Lurralde historikoen arabera bilakaerari erreparatuz gero, ikusten da Gipuzkoan aldaketa nabarmenena egon dela emantzipatu gabeko gazteen taldean, eta etorkizunean emantzipatzeko alokatzearen aukera hautatuko luketen gazteen proportzio txikiena izatetik, proportzio handiena izatera bilakatu da.

### 8.2 taula

GURASOEKIN BIZI DIREN 16-29 URTEKOEN TALDEAN, ETORKIZUNEAN EMANTZIPATZEKO ALOKATZEKO AUKERAREN EDO EROSTEKO AUKERAREN ALDE EGITEN DUTENEN BILAKAERA, EGOITZAKO LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA (%)

|          | (%)              | 2011 | 2013 | 2015 |
|----------|------------------|------|------|------|
| Euskadi  | Alokatuko lukete | 18,0 | 43,9 | 55,7 |
|          | Erosiko lukete   | 77,1 | 51,0 | 37,7 |
| Araba    | Alokatuko lukete | 23,6 | 39,7 | 56,8 |
|          | Erosiko lukete   | 73,8 | 55,6 | 32,5 |
| Bizkaia  | Alokatuko lukete | 17,8 | 40,6 | 52,3 |
|          | Erosiko lukete   | 76,9 | 54,3 | 41,1 |
| Gipuzkoa | Alokatuko lukete | 15,9 | 52,4 | 61,2 |
|          | Erosiko lukete   | 78,8 | 42,4 | 34,2 |


Emantzipatu gabeko gazteei bakarri galdetu zaie

Alokatzearen alde egitearen arrazoi nagusia kreditu batekin hipotekatu nahi ez izatea da, alokairu-erregimenean emantzipatutako gazteen artean gertatzen den moduan: Emantzipatuz gero, etxebizitza alokatzea nahiago luketela dioten emantzipatu gabeko pertsonetatik % 49,5ek adierazten dute arrazoi hori. % 26k diote etxebizitza alokatzeak mugikortasun-aukera handiagoak ematen dituela. Eta % 20,6rentzat, behin-behineko irtenbidea da, etxebizitza erosteko aukera izan arte, dela orain behar adina diru-sarrerak ez dituztelako, dela hipoteka-mailegua emango ez dietela pentsatzen dutelako, dela etxebizitza-sustapen jakin bat eraiki arte itxoiten ari direlako...).

2011tik 2015era, igo egin da etxebizitza alokatzeak mugikortasun eta askatasun handiagoa eskaintzen dituela aipatzen dutenen ehunekoa, bai eta kreditu batean hipotekatu nahi ez dutenen ehunekoa ere. Aldiz, alokairua etxebizitza erosteko aukera izan bitarteko behin-behineko irtenbidetzat hartzen dutenen ehunekoak behera egin du, nabarmen, 2013tik 2015era.

## 8.4 grafikoa

GURASOEKIN BIZI DIREN 16-29 URTEKOEN TALDEAN, ETORKIZUNEAN EMANTZIPATZEAN ALOKAIUAREN ALDE EGITEKO ADIERAZITAKO ARRAZOIEN BILAKAERA (%)




### 8.3. ETXEBIZITZA EROSTEAREN EDO ALOKAIUAREN HARTZEAREN ALDE EGOTEA, 30-34 URTEKO PERTSONEN TALDEAN

30-34 urtekoen taldean, zertxobait gehiago dira etxebizitza erosi duten pertsona emantzipatuak (% 48,0) alokairuan hartu dutenak baino (% 43,5). Hau da, 30-34 urteko pertsona emantzipatuak neurri txikiagoan egin dute alokatzearen alde 16-29 urteko taldekoek baino. Hala ere, 30-34 urteko pertsonen taldean ere, etxebizitza erosi duten pertsonen ehunekoak behera egin du. Alokairuan bizi direnen ehunekoak, berriz, gora egin du.

## 8.5 grafikoa

ETXEBIZITZA HARTZEKO MODALITATEAREN BILAKAERA, 16-29 URTEKO ETA 30-34 URTEKO PERTSONA EMANTZIPATUEN ARTEAN (%)



Atzerrian jaiotako 30-34 urteko pertsonen taldean, % 84,7 alokairuan bizi dira; Euskadin jaio direnen artean, berriz, ehuneko hori % 30,4 da.

Beren burua behe-mailako edo maila ertain baxuko gizarte-klasekotzat hartzen dutenak ere proportzio handiagoan bizi dira alokatutako etxebizitzetan beren burua erdi-mailako edo maila ertain altuko gizarte-klasekotzat hartzen dutenak baino (% 62,0 eta % 34,5, hurrenez hurren).

Lurralde historikoei erreparatu gero, alokairua hedatuago dago Bizkaian (% 47,1) eta Gipuzkoan (% 42,7) Araban baino. Datu hori jada ikusi dugu 30 urtetik beherako gazte emantzipatuen taldean egoitza-lurraldearen arabera aldeak aztertzean.

Alokairuaren bilakaera lurralde historikoen arabera aztertuz gero, ikusten da Gipuzkoan izan dela hazkunde handiena: 2011n emantzipatutakoen % 29,8 alokatutako etxebizitzetan bizi ziren, eta 2015ean, berriz, % 42,7. Bizkaian ere gora egin du alokairuan emantzipatutako 30-34 urteko pertsonen ehunekoak, baina ez Gipuzkoan bezainbeste. Araban, aldiz, alokairuan bizi diren 30-34 pertsonen ehunekoa ez da ia aldatu urte hauetan.

### 8.3 taula

ETXEBIZITZA EROSTEAREN ETA ALOKATZEAREN ALDEKO AUKEREN BILAKAERA, 30-34 URTEKO PERTSONA EMANTZIPATUEN TALDEAN, EGOITZAKO LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA (%)


|  |          | (%)          | 2011 | 2013 | 2015 |
|--|----------|--------------|------|------|------|
| 30-34 urte bitarteko<br>pertsona emantzipatuak | Euskadi  | Alokatu dute | 36,4 | 40,4 | 43,5 |
|  |          | Erosi dute   | 58,6 | 49,4 | 48,0 |
|  | Araba    | Alokatu dute | 34,8 | 32,3 | 34,0 |
|  |          | Erosi dute   | 61,0 | 55,6 | 57,6 |
|  | Bizkaia  | Alokatu dute | 41,5 | 46,2 | 47,1 |
|  |          | Erosi dute   | 53,6 | 43,1 | 43,5 |
|  | Gipuzkoa | Alokatu dute | 29,8 | 35,0 | 42,7 |
|  |          | Erosi dute   | 64,9 | 56,6 | 50,2 |

Galdera hau bakarrik emantzipatutako gazteei egin zaie

Alokatzearen alde egitearen arrazoi nagusia kreditu batekin hipotekatu nahi ez izatea da, eta halaxe adierazi dute alokairuan emantzipatu diren 30-34 urteko ia pertsonen erdiak (% 46,4). Bestalde, arrazoi horrek gora egin du azken urteotan, eta joera hori bera ageri da 30 urtetik beherakoaren artean.

## 8.6 grafikoa

ALOKAIRUAN EMANTZIPATUTAKO 16-29 URTEKO ETA 30-34 URTEKO PERTSONEN TALDEAN, KREDITU BATEAN HIPOTEKATU NAHI EZ IZATEA ALOKAIRUA HAUTATZEKO ARRAZOITZAT AIPATZEAREN BILAKAERA (%)



Alokairuan emantzipatutako 30-34 urteko pertsonen taldean gehien aipatzen den bigarren arrazoa (% 21,4) alokairua behin-behineko irtenbidea dela da, erosteko aukera izan arte, eta hirugarrena, berriz, etxebizitza alokatzeak askatasun eta mugikortasun handiagoak eskaintzen dituela (% 19,0).

## 8.4 taula

URTEBETEKO EPEAN ETXEBIZITZAZ ALDATZEKO ASMOA DUTEN PERTSONA EMANTZIPATUAK. 16-29 URTEKO ETA 30-34 URTEKO ADIN-TALDEEN ALDERAKETA, ZENBAIT ALDAGAI KONTUAN HARTUTA (%)

| (Talde bakoitzean etxebizitzaz aldatzeko asmoa dutenen %)         |  | 16-29 urte bitarteko emantzipatuak | 30-34 urte bitarteko emantzipatuak |
|---|--|------------------------------------|------------------------------------|
| Etxebizitzaren edukitza-erregimena                                | Jabetza                                    | 4,3                                | 7,6                                |
|   | Alokairua                                  | 32,5                               | 34,5                               |
| Jaiotza-lekua   | Euskadi                                    | 21,9                               | 16,8                               |
|   | Atzerria                                   | 33,8                               | 28,7                               |
| Lurralde historikoa   | Araba                                      | 21,6                               | 13,8                               |
|   | Bizkaia                                    | 33,9                               | 24,7                               |
| Hileko diru-baliabideak   | Gipuzkoa                                   | 17,9                               | 14,7                               |
|   | 1200 € baino gutxiago                      | 27,6                               | 24,6                               |
| Gizarte-klase subjektiboa   | 1200 € baino gehiago                       | 22,9                               | 13,7                               |
|   | Erdi-maila edo maila ertain altua          | 26,2                               | 17,0                               |
| Hipoteka-kuota edo alokairu-errenta ordaintzeko hileko gastua     | Behe-maila edo maila ertain baxua          | 25,1                               | 24,3                               |
|   | 540 euro baino gutxiago                    | 24,5                               | 21,4                               |
| Hipoteka edo alokairua ordaintzeko gehiegizko esfortzu ekonomikoa | 540 euro baino gehiago                     | 30,5                               | 21,8                               |
|   | Bai  | 34,4                               | 30,5                               |
| Etxebizitzaren azalera  | Ez   | 24,8                               | 17,1                               |
|   | 73 m <sup>2</sup> edo hori baino txikiagoa | 28,3                               | 26,0                               |
|   | 73 m <sup>2</sup> baino handiagoa          | 21,6                               | 13,2                               |
| (n)   |  | 374                                | 450                                |

30-34 urteko pertsona emantzipatu guztietatik (etxebizitzaren edukitza-erregimena dena delakoa izanda ere) % 19,6k adierazten dute etxebizitza aldatzeko asmoa dutela urtebeteko epean. Ehuneko hori zertxobait txikiagoa da 30 urtetik beherakoen taldeko ehunekoak baino (% 26,0).

Hala ere, etxebizitzaz aldatzeko asmo handiena duten taldeak berdinak dira adin-talde batean eta bestean: alokairuan bizi direnak, Bizkaian bizi direnak, hilean 1.200 euro baino gutxiago dituztenak, atzerrian jaio direnak, hipoteka edo alokairua ordaintzeko gehiegizko esfortzu ekonomikoko egoeran daudenak, eta 73 m<sup>2</sup>-tik beherako etxebizitzetan bizi direnak.

30-34 urteko pertsona emantzipatuen taldean, ez dago alde handirik hipotekagatik edo alokairuagatik hilean 540 eurotik gora edo behera ordaindu behar dutenen artean (30 urtetik beherakoen taldean gertatzen zen bezala), baina badaude aldeak gizarte-klase subjektiboaren arabera. Izan ere, beren burua behe-mailako edo maila ertain baxuko gizarte-klasekotzat hartzen dutenek dituzte hamabi hilabeteko epean etxebizitzaz aldatzeko asmorik handienak.

30-34 urteko taldean, etxebizitzaz aldatzeko asmoa dutenen artean, gehiagok egiten dute alokatzearen alde erostearen alde baino (% 62,1 eta % 33,6, hurrenez hurren), baina adin-talde horretan, ehuneko hori txikiagoa da 16-29 urtekoen taldean baino.

Bestalde, adin horretan oraindik gurasoekin bizi direnen taldean (adin-talde horretako gazte guztien % 24,7), ez dago alde nabarmenik erostearen alde eta alokatzearen alde egiten dutenen artean, aukera baten eta bestearen aldekoen ehunekoak antzekoak baitira: % 47,2k nahiago lukete erosi, eta % 47,0k, berriz, alokatu.

Datuen bilakaerak erakusten du alokairuak asko egin duela gora adin-talde horretan ere, etorkizuneko emantzipaziorako aukera gisa, baina alokatzearen aldekoen ehunekoak ez dira 16-29 urteko pertsona emantzipatu gabeen taldeko ehunekoetara iristen.

### 8.5 taula

ETXEBIZITZA EROSTEAREN EDO ALOKATZEAREN ALDE DAUDENEN EHUNEKOEEN BILAKAERA, EMANTZIPATU GABEKO PERTSONEN ARTEAN. 16-29 URTEKO ETA 30-34 URTEKO ADIN-TALDEEN ARTEKO ALDERAKETA (%)

| (%)                         | 2011       |            | 2013       |            | 2015       |            |
|-----------------------------|------------|------------|------------|------------|------------|------------|
|                             | 16-29 urte | 30-34 urte | 16-29 urte | 30-34 urte | 16-29 urte | 30-34 urte |
| Alokatu                     | 18,0       | 16,4       | 43,9       | 39,2       | 55,7       | 47,0       |
| Erosi                       | 77,1       | 79,1       | 51,0       | 49,7       | 37,7       | 47,2       |
| Ed/Ee                       | 5,0        | 4,5        | 5,1        | 11,1       | 6,6        | 5,9        |
| Emantzipatu gabeak, GUZTIRA | 100        | 100        | 100        | 100        | 100        | 100        |
| (n)                         | 943        | 135        | 905        | 119        | 937        | 142        |

Emantzipatu gabeko pertsonen bakarrak galdetu zaie

## 8.4. KAPITULUAREN LABURPENA

Emantzipatutako pertsona gazteen artean, gora egin du, nabarmen, alokatzearen aldeko aukerak, eta ez soilik erosteko aukera izan bitarterako behin-behineko irtenbidetzat, baizik eta etorkizunerako aukeratzat ere. Izan ere, etxebizitza aldatzeko asmoa duten gazte gehienek alokatzearen alde egingo lukete.

Halaber, emantzipatu gabeko gazteen artean, alokairua izango litzateke aukera nagusia etorkizunari begira. Lau urteko epean, alokatzearen aldekoen ehunekoak bikoiztu egin da, eta gehiago bihurtu da.

Alokatzearen alde egitearen arrazoi nagusia kreditu batean hipotekatu nahi ez izatea da, bai alokairuan emantzipatutako gazteen taldean, bai gurasoekin bizitzen dauden baino alokairuan emantzipatu nahiko luketen gazteen taldean. Arrazoi horrek, bestalde, indar handia hartu du eta, aldi berean, behera egin du alokairua etxebizitza erosteko aukera izan bitarterako behin-behineko irtenbidetzat hartzen dutenen kopuruak.

30-34 urteko pertsonen artean, joera berdina daude. Alokairuan bizi diren pertsona emantzipatuen ehunekoak gora egin du azken urteotan; etxebizitzaz aldatzeko asmoa duten pertsona emantzipatuen artean, gehienek alokatzearen alde egingo lukete; eta gurasoekin bizi direnen artean, berriz, alokairuaren aldekoak gehiengo ez badira ere, gero eta gehiagok hautatuko lukete aukera hori. Alokairuan bizi direnek edo bizi nahiko luketenek adierazitako arrazoi nagusia kreditu batekin hipotekatu nahi ez izatea da, 30 urtetik beherako gazteen taldean alokairuaren alde egiten dutenek adierazten duten arrazoi bera.



# 9

## Emaitza esanguratsuenak

### 9.1. 16-29 URTEKO GAZTEAK

- **Gazteen enpleguari eta diru-sarrerei buruzko adierazleek erakusten dute gazte gutxik dituztela emantzipatzeko baliabideak**

16-29 urteko gazteetatik lana dutenak herena baino zertxobait gehiago dira (% 34,8), eta lanean ari direnen artean, lan-egonkortasunak okerrera egin du. Pertsona horien batez besteko soldata apenas iristen da 1.000 eurora (hilean 996 euro, hain zuzen) eta lan egiten duten gazteen erdia beren diru-sarreretatik eta/edo bikotekidearen diru-sarreretatik bizi dira, familiaren laguntza ekonomikorik baliatu gabe (% 50,2).

30 urtetik beherako gazte guztiak kontuan hartuta, ikus dezakegu hilean 900 euro baino gehiago dituztenak ez direla laurden batera iristen (% 22,6).

- **30 urtetik behera, pertsona emantzipatuak gutxiengoa dira**

16-29 urteko gazte emantzipatuen ehunekoa % 26,8 da. 28 urtetik aurrera dira gazte emantzipatuak erdia baino gehiago.

- **Emantzipazio-zifra horiek Europako batezbestekoaren azpitik daude. Izan ere, Europan, batez beste, lau urte gutxiagorekin emantzipatzen dira gazteak**

Europan, gurasoekin bizi diren 16-29 urteko gazteen batezbestekoa % 66,1 da, eta Euskadin, berriz, % 71,5.

Bestalde, Europan, emantzipatzeko batez besteko adina 26,1 urte da, eta Euskadin, berriz, 29,9 urte.

- **Sei urteko aldea dago gazteek emantzipatzeko adin egokientzat jotzen duten adinaren eta emantzipazio-adin errealaren artean**

16-29 urteko gazteen ustez, 24 urte da emantzipatzeko adinik onena. Baina Euskadiko biztanleriaren emantzipazio-adina 30 urte da (29,9 hain zuzen); hau da, egokientzat hartzen duten adina baino sei urte geroago.

Izan ere, gazte gehienek emantzipatuta bizi nahi dute (% 87,9), baina % 26,8 soilik daude emantzipatuta. 25-29 urteko taldean (emantzipatzeko hartzen den adin egokitik gora daude talde horretakoak), emantzipatu nahi dutenen ehunekoa emantzipatuta daudenen ehunekoa halako bi da (% 92,1 eta % 46,0, hurrenez hurren).

- **Nolanahi ere, emantzipatutako gazteen ehunekoak gora egin du krisi ekonomikoaren aurreko urteekiko**

2008an, 16-29 urteko gazte emantzipatuen ehunekoa % 19,8 zen, eta 2015ean, berriz, % 26,8.

- **Emantzipatzeko arrazoi nagusiak bikotekidearekin bizitzeko gogoia eta independizatzeko gogoia izan dira**

Emantzipatutako gazteen % 43,5ek adierazi dute bikotekidearekin bizi nahi zutela. Horregatik, ez da harritzekoa emantzipatutako gazte gehienak bikotekidearekin bizitzea (% 64,5).

% 37,9k adierazi dute independizatzeko gogoatik jarri zirela beren kontura bizitzen.

Gazteen etxebizitzetan bizi diren pertsonen batez bestekoa 2,5 da.

- **Gazte gehienek, emantzipatzeko, etxebizitza alokairuan hartzen dute**

Gazteen % 73,6k bizi diren etxebizitza alokairuan dute, eta % 17,8k, berriz, erosi egin dute. Gainerakoek oinordetza edo dohaintza bidez jaso dute, edo beste modalitatearen baten bidez.

- **Alokairuaren modalitateak gora egin du azken urteotan, eta etorkizunerako aukeratzat sendotu da**

30 urtetik beherako gazte emantzipatu guztietatik % 61,0 zeuden alokairuan 2011n, eta % 73,6, berriz, 2015ean.

2011n, alokairuan bizi ziren gazteen erdiak (% 50,6) behin-behineko irtenbidetzat hartzen zuten aukera hori, erosi ahal izan arte; 2015ean, berriz, laurdenak baino zertxobait gehiagok adierazten dute arrazoi hori (% 26,0).

- **Alokairua aukeratzeko arrazoi nagusia kreditu batekin hipotekatu nahi ez izatea da**

Hori adierazi dute alokatutako etxebizitza batean bizi direnen % 42,5ek.

Arrazoi horrek indar handia hartu du azken urteotan: 2011n, alokairuan bizi zirenetatik % 26,0k aipatu zuen, eta 2015ean, berriz, % 42,5ek aipatu du.

- **Etxebizitza erosi duten gazteen ehunekoak behera egin duenez, gazte gutxiago daude hipoteka bat ordaindu beharreko egoeran**

Izan ere, hipoteka ordaintzeko duten gazteen ehunekoa aldatu egin da, % 26,4tik (2011) % 13,4ra (2015).

- **30 urtetik beherako gazte emantzipatuen etxebizitzak txikiagoak dira Euskadiko etxebizitza-parkearen batez besteko tamaina baino**

Gazteen etxebizitzaren batez besteko azalera 73,1 m<sup>2</sup> da. Euskal etxebizitza-parkearen batez besteko tamaina (86,9 m<sup>2</sup>) baino txikiagoak dira gazteenak.

- **Gazteen etxebizitza gehienek igogailua eta berokuntza dute, baina gutxi dute garajea edo trastelekua**

Emantzipatutako gazteetatik % 74,5ek diote etxebizitzek berokuntza dutela (banakakoa edo zentrala), eta % 71,0k, igogailua dutela, baina % 28,7k baino ez dute trastelekua, eta % 22,6k, garajea.

- **2015ean, gazte emantzipatuek hipoteka-maileguaren kuota edo alokairu-errenta ordaintzeko behar zuten batez besteko zenbatekoa 539 euro zen**

Alokairuan dauden pertsonen hilean 543 euro ordaintzen dituzte, batez beste, eta hipoteka ordaintzen ari direnek, berriz, 515 euro. Zenbateko horiek txikiagoak dira Euskadiko batez besteko alokairu-errenten zenbatekoak eta Euskadin urte horretan eratutako hipoteken batez besteko kuoten zenbatekoak baino.

Gazteek ordaintzen dituzten batez besteko errentak ez dira asko aldatu azken urteotan; hipoteka-kuotak, berriz, 100 euro baino gehiago jaitzi dira 2011tik 2015era.

- **Bizkaiko gazteek dituzte hipoteka-kuota edo alokairu-errenta ordaintzeko gastu handienak**

Bizkaian, emantzipatutako gazteen hileko batez besteko gastua 573 eurokoa da. Gipuzkoan, gastu hori txikiagoa da (513 euro), eta Araban, berriz, are txikiagoa (hilean 492 euro).

Arabako gazteek hilean horretarako gastu txikiagoak izatea lotuta egon daiteke lurralde horretan etxebizitza babestuen modalitatea hedatuago izatearekin.

- **Hipoteka edo alokairua ordaintzen ari diren lau lagunetik bat gehiegizko esfortzu ekonomikoko egoeran dago**

Hilero alokairu-errenta edo hipoteka-maileguaren kuota ordaindu behar duten gazte emantzipatuen % 25,0k etxeko diru-sarreren % 40 baino gehiago erabili behar dituzte gastu horiek ordaintzeko. Hori dela eta, gehiegizko esfortzu ekonomikoko egoeran daude, etxebizitza-gastuak ordaintzeko.

Gehiegizko esfortzu ekonomikoko egoeran dauden gazteen ehunekoak behera egin du 2011ko urteko ehunekoaren aldean. Urte hartan, alokairu-errenta edo hipoteka-kuota ordaintzen zuten gazteen herena zeuden gehiegizko esfortzu ekonomikoko egoeran (% 32,5). Beherakada horren arrazoietakoa batzuk dira hipoteka-kuoten zenbatekoak merkatu direla eta hileko gastuak dituztenen batez besteko soldatak gora egin duela.

- **Halaber, laurdenak baino zertxobait gehiagok zailtasunak dituzte etxebizitza-gastuak ordaintzeko**

Emantzipatutako gazteen % 28,6k aitortzen dute zailtasunak dituztela etxebizitzaren ohiko gastuei aurre egiteko: alokairu-errenta, hipoteka-kuota, argia, ura eta abar. Eta heren batek (% 33,2) aurreikusten du zailtasunak izango dituela gastu horiek ordaintzeko inkestaren osteko urtean.

Etxebizitza-gastuak ordaintzeko arazoak dituzten edo arazoak izango dituztela aurreikusten duten gazte emantzipatuen ehunekoak zertxobait behera egin du azken urteotan.

- **Emantzipatutako gazteen % 7,8k familiaren diru-laguntza jasotzen dute aldizka, eta % 9,4k, noizean behin**

Hauek dira laguntza handiena jasotzen duten kolektiboak: etxebizitza-gastuak ordaintzeko zailtasunak dituztenak, gehiegizko esfortzu ekonomikoko egoeran daudenak (diru-sarreraren % 40tik gora hipoteka-kuota edo alokairu-errenta ordaintzeko erabili behar izateagatik), eta diru-sarrera txikiak dituztenak (hilean 1200 euro baino gutxiago).

- **Etxebizitzaz aldatzea aurreikusten duten gazte emantzipatu gehienek nahiago dute etxebizitza alokairuan hartzea**

30 urtetik beherako gazte emantzipatuen % 26,0k urtebeteko epean etxebizitzaz aldatzeko asmoa dute. Pertsona horietatik gehienak alokairuan bizi dira gaur egun, eta gehiengoak dira, halaber, etorkizunean alokatzeko asmoa dutenak (% 72,8).

- **16-29 urteko hamar lagunetik batek esan du gurasoekin bizi dela, baina lehenago emantzipatuta egon dela**

16-29 urteko gazte guztietatik % 10,9k emantzipazio-esperientzia dute, nahiz eta gaur egun familiaren etxean berriz bizitzen ari diren.

Gurasoen etxera itzultzeko aipatzen dituzten arrazoi nagusiak ikasketak amaitu izana eta bikotekidearekin harremana amaitu izana dira.

- **16-29 urteko gazte guztien % 2,0k familiaren etxera itzuli behar izan zuten beren kontura bizi ondoren, arrazoi ekonomikoek bultzatuta**

Arrazoi ekonomiko horiek hauek izan ziren: lanik gabe geratzea edo emantzipatzeko hartu zuten etxebizitzako gastuei aurre egin ezin izatea.

Ehuneko hori zertxobait jaitsi da 2013tik. Urte hartan, 30 urtetik beherako gazteen % 3,1 zeuden egoera horretan.

- **Emantzipatu gabeko gazteen erdiak hiru urteko epean emantzipatzea aurreikusten dute**

Gurasoekin bizi diren gazteen % 52,2k hiru urteko epean emantzipatzeko asmoa dute.

Lehendik noizbait emantzipatuta egon direnek eta 25-29 urte dituztenek adierazten dituzte emantzipatzeko asmo handienak.

- **Gurasoekin bizi diren eta hiru urteko epean emantzipatzeko asmoa duten gazte gehienek nahiago dute etxebizitza alokatzea**

Hain zuzen ere, emantzipatzeko asmoa duten pertsona horietatik % 61,7k alokatzearen alde egingo lukete.

Emantzipatu gabeko gainerako pertsonen artean, epe laburrean emantzipatzeko asmoa ez badute ere, gehiagok egiten dute alokairuaren alde (% 49,1) etxebizitza erostearen alde baino (% 41,3).

Emantzipatu gabeko gazteen artean, hiru urteko epean emantzipatzeko aurreikuspena izan edo ez, azken urteotan, etxebizitza alokairuan hartzearen aldekoek gora egin dute, nabarmen: % 18,0 ziren 2011n, eta % 55,7, berriz, 2015ean.

Kreditu batekin hipotekatu nahi ez izatea da etxebizitza alokairuan hartzearen alde egiteko arrazoi nagusia. Alokairuan dauden gazte emantzipatuek ere arrazoi hori adierazten dute.

- **Emantzipatzeko zailtasun nagusia etxebizitza garesti egotea da, dela alokatzeko, dela erosteko**

Emantzipatutako gazteen % 62,6k eta emantzipatu nahi dutenen % 77,0k adierazi dute arazo horri aurre egin behar diotela.

Nolanahi ere, talde batean zein bestean, azkeneko urteekin alderatuta, gutxiago dira arazo hori aipatzen dutenak.

- **Halaber, emantzipatutako gazteen erdiak baino gehiagok diote emantzipatzeko arazoak izan dituztela, diru-sarrera propioak izateko edo hipoteka-kreditu bat lortzeko zailtasunen ondorioz**

16-29 urteko pertsona emantzipatuetatik % 57,1ek diote zailtasunak izan zituztela, emantzipazioari begira, diru-sarrera propioak izateko. Gurasoekin bizi, eta emantzipatu nahi dutenen artean, gehiagok adierazten dute arazo hori dutela (% 72,6).

Halaber, gazte emantzipatuetatik erdiak baino gehiagok (% 53,1) diote arazoak izan zituztela banku-kredituak lortzeko emantzipatzeko garaian. Emantzipatu nahi dutenen artean, gehiagok aipatzen dute zailtasun hori (% 65,4).

Bi zailtasun horiek gutxiago aipatzen dira 2015ean aurreko urteetan baino.

- **Gutxiengoa dira familiaren oposizioa edo familiaren etxeko erosotasunak galdu nahi ez izatea emantzipatzeko arazoa izan direla diotenak**

Emantzipatutako gazteen % 4,2k diote emantzipatzean familiaren oposizioari aurre egin behar izan ziotela. Eta % 3,8k diote familiarekin bizitzen zuten erosotasuna galdu nahi ez izateak beren emantzipazioa atzeratu zuela edo zailtasunak eragin zituela.

Gurasoekin bizitzen dauden baina emantzipatu nahiko luketenen artean, gehiago aipatzen dira zailtasun horiek, baina hala ere, gutxiengoa dira. Talde horretan, % 19,7k aitortzen dute ez dituztela galdu nahi familiaren etxean

dituzten erosotasunak, eta horrek emantzipazioa atzeraraztea eragiten diela. Eta gutxiago dira familiaren oposizioagatik emantzipatzen ez direla diotenak (% 8,3).

- **Gazte gehienek ez dute izena ematen etxebizitza-zerbitzu publikoetan**

Emantzipatutako pertsonetatik % 59,9k ez dute inoiz izena eman etxebizitza-zerbitzu publikoetan. Gurasoekin bizi direnen artean, gehienek (% 90,7) ez dute inoiz izena eman horrelako zerbitzuetan.

- **Gazte emantzipatuen % 3,6 soilik dira etxebizitza babestu baten titularrak**

% 1,7ri etxebizitza publiko bat esleitu zieten, baina uko egin behar izan zioten, etxebizitzaren gastuei aurre egin ezin zirelako edo kreditu bat lortu ez zutelako.

Etxebizitza publiko baten titularrak edo esleipendunak diren gazte emantzipatuen ehunekoak behera egin du 2013tik 2015era, % 10,1etik % 3,6ra, hain zuzen.

- **Emantzipatzeko etxebizitza babestua hartu duten gazteen ehunekoak behera egin du**

Etxebizitza babestu batean bizi diren gazte emantzipatuen ehunekoa (% 5,8) handiagoa da etxebizitza publikoen esleipendunen ehunekoa baino (% 3,6). Izan ere, lehen aipatu bezala, gazte gehienak bikotekidearekin emantzipatzen dira, eta kasu gehienetan, etxebizitzaren esleipenduna edo titularra bikoteko kideetako bat da.

Ehuneko hori dezente handiagoa zen aurreko urteetan: 2011n % 10,5 eta 2013an, % 13,9.

- **Etxebizitza babestuan bizi diren gazteen ehuneko handiena Arabakoa da (% 10,5), eta txikiena, berriz, Bizkaikoa (% 2,3 baino ez)**

Aztertutako hiru urteetan, Arabak zituen etxebizitza babestuan emantzipatutako gazteen ehuneko handienak, eta Bizkaia zituen ehuneko txikienak.

## 9.2. 16-29 URTEKO PERTSONEN ETA 30-34 URTEKO PERTSONEN ARTEKO ALDERAKETA

- **30-34 urteko pertsonen lan-egoera eta egoera ekonomiko hobea dute 30 urtetik beherakoek baino**

30-34 urteko adin-talde horretan, gehiengoa dira lanean ari direnak (% 69,0). Lan egiten dutenen artean, gehienek lanaldi osoan jarduten dute (% 77,2), erdiak baino gehiagok kontratu mugagabea edo aldizkako kontratu finkoa dute (% 61,0), eta hileko batez besteko soldata 1.242 eurokoa da.

30-34 urteko pertsonen taldean, gehienak (% 73,3) beren diru-sarreretatik eta/edo bikotekidearen diru-sarreretatik bizi dira, eta hileko diru-baliabideei erreparatzen badiegu, ikusten da gehienek (% 54,6) hilean 900 eurotik gora dituztela. 16-29 urtekoen taldean, % 22,6k soilik dituzte hileko zenbateko horretatik gorako diru-baliabideak.

- **30-34 urteko pertsona gehienak emantzipatuta daude**

Adin-talde horretan, pertsona emantzipatuak % 74,3 dira. Ehuneko hori ia hiru aldiz handiagoa da 30 urtetik beherako gazte emantzipatuen ehunekoa baino (% 26,8).

- **Hala ere, adin-talde horretan, emantzipatuta bizi nahi duten pertsona guztiak ez daude emantzipatuta**

Adin horretako pertsonen % 92,9k emantzipatuta bizi nahiko lukete. Emantzipatuen ehunekoarekin konparatuz gero, ia hogeituneko aldea dago; hau da, adin horretako bost lagunetik batek emantzipatu nahi bai, baina ezin du.

Hala ere, emantzipatzeko gogoaren eta emantzipazio errearen arteko aldea, ehunekotan, txikiagoa da 16-29 urtekoen taldean baino.

- **30-34 urteko pertsona emantzipatuen artean, gehiago dira etxebizitza erosi dutenak alokatu dutenak baino**

Talde horretan, % 48,0 erositako etxebizitzan bizi dira, eta % 43,5, berriz, alokatutako etxebizitzan bizi dira; hau da, gehiagok egiten dute erostearen alde alokatzearen alde baino, 30 urtetik beherakoen artean ez bezala.

Hori dela eta, ikusten da 30-34 urteko pertsona emantzipatuen taldean, % 43,1ek hipoteka bat dutela guztiz ordaindu gabe, eta 30 urtetik beherakoen taldean, berriz, ehuneko hori % 13,4 da.

Hala ere, bi adin-taldeetan joera berdina dago, eta alokairuak gora egin du azken urteotan, erosteko aukeraren kontura.

- **Alokairuan bizi direnen artean, alokairuaren alde egiteko arrazoi nagusia kreditu batekin hipotekatu nahi ez izatea da, 30 urtetik beherako gazteen taldean alokairuan bizi direnek adierazten duten arrazoi bera**

30-34 urteko pertsonen taldean, alokairuan bizi direnen ia erdiak (% 46,4) esaten dute kreditu batekin ez hipotekatzeko egin zutela alokatzearen alde.

Bi adin-talde horietan, azken urteotan, gero eta gehiago dira arrazoi hori adierazten dutenak.

- **Etxebizitza babestu batean bizi direnen ehunekoa bikoitza da, 30 urtetik beherako gazte emantzipatuen taldearen aldean**

30-34 urteko pertsona emantzipatuen taldean, etxebizitza babestu batean bizi direnen ehunekoa (% 11,2) 30 urtetik beherakoen taldeko ehunekoaren (% 5,8) bikoitza da.

Baina etxebizitza babestua hartu dutenen ehunekoak behera egin du bi adin-talde horietan.

- **30-34 urteko pertsona emantzipatuen etxebizitzak handiagoak dira eta hobeto hornituta daude 16-29 urteko gazte emantzipatuen etxebizitzak baino**

30-34 urteko pertsona emantzipatuak bizi direnen etxebizitzaren batez besteko azalera 76,5 m<sup>2</sup> da, 30 urtetik beherako etxebizitzaren batez besteko azalera (73,1 m<sup>2</sup>) baino zertxobait gehiago. Hala ere, txikiagoak dira Euskadiko etxebizitza-parkeko etxebizitzaren batez besteko tamaina baino.

30-34 urteko taldekoen etxebizitzek neurri handiagoan dituzte berokuntza (% 85,0), trastelekua (% 44,6) eta garajea (% 36,4), 16-29 urteko pertsonen etxebizitzek baino. Alde horiek daude bai Euskadi osorik hartuta, bai lurralde historiko bakoitza bere aldetik hartuta.

- **30-34 urteko hiru lagunetik bik hipoteka edo alokairua ordaintzeko gastuak dituzte hileroko**

30-34 urteko pertsonen % 64,4k guztiz ordaintzen amaitu gabeko hipoteka bat dute, edo alokairuan daude; beraz, hileroko ordaindu beharreko etxebizitza-gastu finko batzuk dituzte. Ehuneko hori askoz handiagoa da 30 urtetik beherako taldekoa baino. Talde horretan, hain zuzen, gutxiengoa dira (% 23,4) hileko gastu horiei aurre egin behar dietenak.

- **Hipoteka-kuota edo alokairu-errenta ordaintzeko hileko batez besteko gastua oso antzekoa da bi adin-taldeen artean**

30-34 urteko taldeko pertsonak ordaintzen dituzten hileroko alokairu-errentak zertxobait txikiagoak dira 16-29 urteko gazteek ordaintzen dituztenak baino. Aldiz, 30-34 urtekoek ordaintzen dituzten hipoteka-kuotak handiagoak dira 30 urtetik beherakoek ordaintzen dituztenak baino. Hipoteka-kuoten eta alokairu-errenten batezbestekoa eginez gero, ikusten da kontzeptu horiengatik hileko kuota 540 euro dela 30-34 urteko taldekoentzat, eta 539 euro, berriz, 30 urtetik beherakoentzat. Hau da, ia berdina dira.

- **Hipoteka edo alokairua ordaintzeko hileko gastu finkoak dituzten 30-34 urteko pertsona emantzipatuen laurdena gehiegizko esfortzu ekonomikoko egoeran daude gastu horiek ordaintzeko**

30-34 urteko pertsona emantzipatuen taldean, guztiz ordaintzen amaitu gabeko hipoteka duten edo alokairuan dauden lagunetik % 24,9k etxeko diru-sarreraren % 40 baino gehiago erabili behar dituzte gastu horiek ordaintzeko. Egoera horri gehiegizko esfortzu ekonomiko esaten zaio.

Ehuneko hori eta 30 urtetik beherako taldeko ehuneko (% 25,0) ia berdina dira.

- **30-34 urteko pertsona emantzipatuen % 21,7k zailtasunak dituzte etxebizitzaren ohiko gastuak ordaintzeko**

Gastu horietan, hipoteka-kuotaz edo alokairu-errentaz gain, jabekideen erkidegoaren kuota, argia, ura, gasa eta abar sartzen dira.

Eta antzeko proportzioa dira (% 20,6) urtebeteko epean gastu horiei aurre egiteko zailtasun ekonomikoak izango dituztela aurreikusten dutenak. Zailtasunak izango dituztela aurreikusten dutenen ehuneko horrek behera egin du aurreko urteekiko. Beraz, badirudi konfiantza handiagoa dagoela etxeko egoera ekonomikoak hobera egingo duela.

Gaur egun zailtasun ekonomikoak dituztenen edo etorkizunean zailtasun ekonomikoak izango dituztela uste dutenen ehunekoak txikiagoak dira 16-29 urteko taldean baino.

- **30-34 urteko pertsona emantzipatuetatik % 2,7k laguntza ekonomikoa jasotzen dute aldizka familiarengandik**

Ehuneko hori txikiagoa da 30 urtetik beherako gazte emantzipatuen taldeko ehunekoa baino (% 7,8), eta, gainera, behera egin du azken urteotan.

- **30-34 urteko bost pertsona emantzipatutatik batek urtebeteko epean etxebizitzaz aldatzeko asmoa du**

Talde horretako % 19,6k etxebizitzaz aldatzeko asmoa dute, urtebete baino lehenago. Ehuneko hori zertxobait txikiagoa da 16-29 urtetik beherakoen taldeko ehunekoa baino (% 26,0).

Etxebizitzaz aldatzeko asmoa dutenek nahiago dute etxebizitza alokatu (% 62,1) erosi baino (% 33,6). Joera bera dago 16-29 urtekoen taldean.

- **Gurasoekin bizi diren 30-34 urteko pertsonen ia erdia emantzipatuta bizi izan dira noizbait**

Adin horretan, gurasoekin bizi direnak guztizkoaren % 24,7 dira.

Eta horietatik % 45ek diote lehenago beren kontura bizi izan direla.

Guztira, 30-34 urteko pertsonen % 85,4k emantzipazio-esperientzia dute (gaur egun emantzipatuta daudelako edo iraganean egon direlako), eta ehuneko hori askoz handiagoa da 16-29 urtekoen taldeko ehunekoa baino (% 37,7).

- **Gurasoekin bizi direnen gehiengoak hiru urteko epean emantzipatzea aurreikusten du. Talde horretan ere, etxebizitza alokairuan hartzeko aukera gora egiten ari da**

Jatorriko familiaren etxean bizi diren 30-34 urteko pertsonen taldean, % 73,0k diote hiru urte igaro baino lehenago emantzipatzeko asmoa dutela. Emantzipatzeko aurreikuspenari buruzko ehuneko hori handiagoa da gurasoekin bizi diren 16-29 urteko pertsonen taldean baino (% 52,2).

Pertsona horien artean, ia berdinak dira etxebizitza alokatzearen alde zein erostearen alde egiten dutenen zifrak. Emantzipatzeko asmoa duten 30 urtetik beherakoen taldean, berriz, alokairuaren aldekoak gehiengo ziren.

Nolanahi ere, emantzipatzeko asmoa dutenen 30-34 urteko pertsonen taldean, alokatzearen aldeko aukerak asko egin du gora, emantzipatzeko asmoa dutenen 16-29 urtekoen taldean bezala.

- **Gurasoekin bizi diren 30-34 urteko hamar lagunetik hiruk ekarpen ekonomikoa egiten diote familiaren ekonomiari**

30-34 urteko pertsona emantzipatu gabeetatik % 30,6k etxean dirua ematen dute aldizka, familiako gastuak ordaintzen laguntzeko.

Ehuneko hori bi aldiz handiagoa da 30 urtetik beherako gazte emantzipatu gabeen taldeko ehuneko baina (% 14,1), baina azken urteotan behera egin du, nabarmen.

- **Emantzipatzeko zailtasun nagusiak berdinak dira 30-34 urtekoen taldean eta 16-29 urtekoen taldean, baina neurri txikiagoan eragiten dute adin handieneko taldean**

30-34 urteko pertsona emantzipatuen erdiak baino gehiagok (% 55,2) diote etxebizitza garesti egoteak emantzipatzeko zailtasunak eragin zizkiela, baina gutxiago dira, hala ere, 30 urtetik beherako taldean arazo hori izan zutenak baino (% 62,6).

Arazo horren atzetik, diru-sarrera propioak izateko arazoa dago, eta gero, kreditu-erakundeen mailegu bat lortzekoa (30-34 urteko pertsona emantzipatuen % 46,7k eta % 44,0k aipatu dituzte arazo horiek, hurrenez hurren). 30 urtetik beherako taldean ere, arazo horiek emantzipatzeko zailtasunen sailkapeneko bigarren eta hirugarren lekuan daude, baina 16-29 urte dituzten taldean, erdiak baino gehiagok aipatzen dituzte.

- **30 urtetik 34 urtera bitarteko tartean, emantzipatutako pertsona gehienak egon dira izena emanda etxebizitza-zerbitzu publikoren batean**

30-34 urteko pertsona emantzipatuek gehiago erabili dituzte etxebizitza-zerbitzu publikoak (% 55,5) 30 urtetik beherako gazte emantzipatuek baino (% 39,6).

- **Etxebizitza publiko baten titularren ehuneko handiagoa da 30-34 urteko pertsona emantzipatuen artean 30 urtetik beherako artean baino**

30-34 urteko pertsona emantzipatuetatik % 8,6ri esleitu zaie etxebizitza publiko bat eta horren titularrak dira. 30 urtetik beherako artean, berriz, % 3,6ri esleitu zaie horrelakorik; beraz, bi ehuneko horiek alderatuta, bikoitza baino handiagoa da 30-34 urteko taldeari dagokiona.

Etxebizitza publiko baten esleipendun izanik, etxebizitzari uko egin behar izan ziotenen ehuneko handiagoa (dela etxebizitza ordaindu ezin zutelako edo hipoteka-mailegu bat eman ez zutelako) handiagoa da 30-34 urteko emantzipatuen artean (% 4,1) 30 urtetik beherako artean baino (% 1,7).

### 9.3. LABURPENA

16-29 urteko gazteen laurdena baino zertxobait gehiago dago emantzipatuta, nahiz eta adin-tarte horretako gazte gehienek beren kontura bizi nahi duten. Izan ere, sei urteko atzerapena dago gazteek emantzipatzeko adin egokientzat jotzen duten adinaren eta batez besteko emantzipazio-adinaren artean.

30 urte bete baino lehen emantzipatzen diren gehienak alokairu-modalitatean emantzipatzen dira, batik bat kreditu batekin hipotekatu nahi ez dutelako. Hori ez da harritzekoa, enpleguari eta laneko ezegonkortasunari buruzko datuak eta gazte landunen soldata mileuristak kontuan hartuta.

Etxebizitza alokairuan hartzeko aukera gero eta indar handiagoa hartzen ari da gazteen artean. Izan ere, gero eta gazte emantzipatu gehiago bizi dira alokairuan, eta horrez gain, gero eta gutxiago hartzen dute aukera hori erosi

bitarterako behin-behineko irtenbidetzat. Emantzipatu gabe daudenen gehiengoak ere alokairuaren modalitatea hautatuko luke, eta jada modalitate horretan emantzipatutako gazteen arrazoi berdinak adierazten dituzte.

Gazteek kontratatutako hileko alokairu-errentak eta hipoteka-maileguen kuotak 500 eurotik 600 eurora bitartekoak dira. Hileko gastu horiek ordaindu behar dituztenen laurdenak etxeko diru-sarreraren % 40 baino gehiago erabili behar dituzte horretarako. Hori dela eta, gehiegizko esfortzu ekonomikoko egoeran daude. Azken urteotan, gehiegizko esfortzu ekonomikoko egoeran dauden gazteen ehunekoak behera egin du.

Gazteek emantzipatzeko garaian duten zailtasun handiena etxebizitzaren prezioa garesti egotea da. Zailtasun horren atzetik daude diru-sarrera propioak izateko arazoa eta banku-erakundeek gazteei hipoteka-mailegu bat emateko jartzen dizkieten oztupoak. Hiru arrazoi horiek adierazten dituzte bai emantzipatutako gazte gehienek, bai eta, neurri handiagoan, gurasoekin bizitzen ari eta emantzipatu nahi duten gazteek ere.

30 urtetik beherako gazte gehienek ez dute inoiz izena eman etxebizitza-zerbitzu publikoetan. Gutxiengoa dira etxebizitza publiko baten gazte titularrak eta aipatu behar da etxebizitza publiko bat zozketa bidez esleitu zitzairen gazteetatik heren batek uko egin behar izan ziotela etxebizitza hartzeari, gastuari aurre egin ezin ziotelako edo hipoteka-mailegua eman ez ziotelako.

30 urtetik aurrera, lan-egoerak hobera egiten du, lana egonkorragoa da eta soldatak zertxobait handiagoak dira, eta emantzipatutako pertsonen kopuruek ere gora egiten dute (lau lagunetik hiru dira). Hala ere, hipoteka edo alokairua ordaintzeko gehiegizko esfortzu ekonomikoko egoeran dauden pertsona emantzipatuen ehunekoa berdina da bi adin-taldeetan.

30-34 urteko pertsona emantzipatuen artean, zertxobait gehiago dira etxebizitza erosi dutenak alokairuan daudenak baino, baina azken urteotan, etxebizitza alokairuan hartzeko aukerak ere gora egin du adin-talde horretan. Gurasoekin bizi diren eta emantzipatzea aurreikusten dutenen artean ere, gora egin dute alokatzearen aldekoek eta erostearen aldekoen parera iritsi dira.

30-34 urtekoen taldean handiagoa da etxebizitza babestuetan bizi direnen ehunekoa 30 urtetik beherakoen taldean baino (hamar lagunetik bat), baina adin handieneko taldean ere jaitziera egon da etxebizitza babestuetan bizi direnen ehunekoari dagokionean.



# Bibliografia

211. zenbakidun EHAA, 2012ko urriaren 31koa. AGINDUA, 2012ko urriaren 15ekoa, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, etxebizitza-eskatzaileen erregistroari eta babes ofizialeko etxebizitzak nahiz araubide autonomikoko zuzkidura-bizitokiak esleitzeko prozedurei buruzkoa [online]. Web orri honetan eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2012/10/1204811e.pdf> [Kontsulta: 2017/01/31]
- BILBAO GAZTAÑAGA, Miren; LONGO IMATZ, Oskar eta CORCUERA BILBAO, Nieves (2016): *Gazteak eta enplegua Euskadin 2015* [online] Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia = Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco, Vitoria-Gasteiz. Web orri honetan eskuragarri: [http://www.gazteukera.euskadi.eus/contenidos/informacion/gazteak\\_bilduma/eu\\_liburuak/adjuntos/Juventud\\_empleo%202015\\_e.pdf](http://www.gazteukera.euskadi.eus/contenidos/informacion/gazteak_bilduma/eu_liburuak/adjuntos/Juventud_empleo%202015_e.pdf) [Kontsulta: 2017/02/09]
- CORCUERA BILBAO, Nieves; BILBAO GAZTAÑAGA, Miren eta LONGO IMATZ, Oskar (2016). *Euskadiko Gazteen Panoramika. Gazteen Adierazleak 2015* [online]. Web orri honetan eskuragarri: [http://www.gazteukera.euskadi.eus/contenidos/informacion/tableau\\_datu\\_base\\_15/eu\\_def/adjuntos/Indicadores\\_%202015\\_e.pdf](http://www.gazteukera.euskadi.eus/contenidos/informacion/tableau_datu_base_15/eu_def/adjuntos/Indicadores_%202015_e.pdf) [Kontsulta: 2016/12/20]
- Estatistika Institutu Nazionala (INE), *Hipoteka-exekuzioei buruzko estatistika* [online]. Web orri honetan eskuragarri: [http://www.ine.es/dynqs/INEbase/es/operacion.htm?c=Estadistica\\_C&cid=1254736176993&menu=resultados&secc=1254736195326&idp=1254735576757](http://www.ine.es/dynqs/INEbase/es/operacion.htm?c=Estadistica_C&cid=1254736176993&menu=resultados&secc=1254736195326&idp=1254735576757) [Kontsulta: 2016/12/19]
- Etxebizitzaren Euskal Behatokia (2016): *Higiezin merkatua EAEn, 2015. Laburpen-txostena*. Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila [online] Web orri honetan eskuragarri: [http://www.garraioak.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/ovv\\_adm\\_sintesis15/eu\\_ovv\\_admi/adjuntos/informeSintesis2016-EU.pdf](http://www.garraioak.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/ovv_adm_sintesis15/eu_ovv_admi/adjuntos/informeSintesis2016-EU.pdf) [Kontsulta: 2016/11/21]
- Etxebizitzaren Euskal Behatokia: *Etxebide Etxebizitzaren Euskal Zerbitzuaren ebaluazioa. Erroldan izena emanda dauden etxebizitza babestuaren eskatzaileei egindako inkesta 2015* [online] - Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila (2016). Web orri honetan eskuragarri: [http://www.garraioak.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/ovv\\_per\\_demandaetxebide2015/eu\\_ovv\\_opi/adjuntos/Inscritos%20Etxebide%202015eu.pdf](http://www.garraioak.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/ovv_per_demandaetxebide2015/eu_ovv_opi/adjuntos/Inscritos%20Etxebide%202015eu.pdf) [Kontsulta: 2017/01/31]
- Etxebizitzaren Euskal Behatokia: *EAEko alokairu-politikaren ebaluazio-txostena 2015* [online]. Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila (2016). Web orri honetan eskuragarri: [http://www.garraioak.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/ovv\\_adm\\_alquiler2015/eu\\_ovv\\_admi/adjuntos/evaluacion\\_alquiler\\_2015\\_eu.pdf](http://www.garraioak.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/ovv_adm_alquiler2015/eu_ovv_admi/adjuntos/evaluacion_alquiler_2015_eu.pdf) [Kontsulta: 2017/01/31]
- EUROSTAT [online]: Data: Database: Database by themes: Population and social conditions: Youth (datu estatistikoak eta definizioak). European Commission, 2016. Web orri honetan eskuragarri: <http://ec.europa.eu/eurostat/data/database> [Kontsulta: 2016/10/27]

*Euskadiko gazteak* [linean]. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia = Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco, 2000 Lau urtean behingo seriea. Web orri honetan eskuragarri: [http://www.contenidos.servicios.jakinaplus.ejgvdns/r58-7651x/eu/contenidos/informacion/euskadiko\\_gazteak/eu\\_liburuak/liburuak.html](http://www.contenidos.servicios.jakinaplus.ejgvdns/r58-7651x/eu/contenidos/informacion/euskadiko_gazteak/eu_liburuak/liburuak.html) [Kontsulta: 2016/10/27]

EUSTAT: Taula estatistikoak: *Etxebizitzak* [on line] Web orri honetan eskuragarri: [http://eu.eustat.eus/banku/id\\_3700/indexLista.html](http://eu.eustat.eus/banku/id_3700/indexLista.html) [Kontsulta: 2016/12/30]

Gazteen Euskal Behatokia (2014): *Euskadiko gazteen enplegua eta emantzipazioa 2011-2013 aldian* [online] Web orri honetan eskuragarri: [http://www.gazteukera.euskadi.eus/contenidos/informacion/emantzipazioa/eu\\_def/adjuntos/txostena\\_emantzipazioa\\_15\\_e.pdf](http://www.gazteukera.euskadi.eus/contenidos/informacion/emantzipazioa/eu_def/adjuntos/txostena_emantzipazioa_15_e.pdf) [Kontsulta: 2016/10/23]

LÓPEZ OLLER, Joffre (2016): *Etxebizitza-emantzipazioaren kostua Euskadin 2015* [online]. Bilbo, Gazteen Euskal Behatokia (koord.). Web orri honetan eskuragarri: [http://www.gazteukera.euskadi.eus/contenidos/informacion/emantzipazioa/eu\\_def/adjuntos/emantzipazioa\\_16\\_e.pdf](http://www.gazteukera.euskadi.eus/contenidos/informacion/emantzipazioa/eu_def/adjuntos/emantzipazioa_16_e.pdf) [Kontsulta: 2016/12/23]

# Grafiko eta taulen aurkibidea

## GRAFIKOEN AURKIBIDEA

|               |  |    |
|---------------|--|----|
| 1.1 grafikoa. | 16-29 urteko gazteen okupazio nagusia, adin-taldean arabera (%).....   | 16 |
| 1.2 grafikoa. | 16-29 urteko gazteen diru-sarreraren jatorria (%) .....  | 17 |
| 1.3 grafikoa. | 16-29 urteko gazteen diru-sarreraren jatorria, adin-taldean arabera (%).....   | 18 |
| 1.4 grafikoa. | 16-29 urteko gazteen banaketa, hilean duten diru-kopuruaren arabera (%).....   | 19 |
| 1.5 grafikoa. | 16-29 urteko pertsonen diru-sarrera propioei buruzko adierazleen bilakaera (%) .....   | 20 |
| 1.6 grafikoa. | Gazte landunen batez besteko soldataren eta hilean 900 €-tik gora dituzten pertsonen ehunekoaren bilakaera. 30 urtetik gorakoaren eta beherakoaren arteko alderaketa. ....                             | 22 |
| 1.7 grafikoa. | Lanean ari diren gazteen eta beren diru-sarreretatik eta/edo bikotekidearen diru-sarreretatik bizi diren gazteen ehunekoaren bilakaera. 30 urtetik gorakoaren eta beherakoaren arteko alderaketa (%) . | 23 |
| 2.1 grafikoa. | Gurasoekin bizi diren 16-29 urteko gazteak. Alderaketa Euskadiren eta EBren artean (%).....  | 26 |
| 2.2 grafikoa. | Euskadiko hipoteka-kuoten eta alokairu-errenten zenbatekoen bilakaera, eta 16-29 urteko taldean lanean ari diren gazteen eta gazte emantzipatuen ehunekoaren arteko alderaketa. ....                   | 27 |
| 2.3 grafikoa. | 16-29 urteko pertsona emantzipatuak, adin-taldeka (%) .....  | 28 |
| 2.4 grafikoa. | 16-29 urteko pertsona emantzipatuen bolumenaren bilakaera, jaiotza-lekuaren arabera (%) .  | 29 |
| 2.5 grafikoa. | Emantzipatu nahi duten gazteen eta emantzipatuta daudenen ehunekoaren arteko aldearen bilakaera (%).....   | 30 |
| 2.6 grafikoa. | 30 urtetik beherako gazte emantzipatuen banaketa, norekin bizi diren kontuan hartuta (%) ..  | 31 |
| 2.7 grafikoa. | 16-29 urteko gazte emantzipatuen bizikidetzako egoeraren bilakaera (%).....  | 32 |
| 2.8 grafikoa. | Emantzipatutako pertsonak, adin-taldean arabera (%) .....  | 36 |

|                      |  |    |
|----------------------|--|----|
| <b>2.9 grafikoa.</b> | Emantzipatuta bizi nahi duten pertsonen eta emantzipatuta dauden pertsonen ehunekoaren arteko aldearen bilakaera (%) . . . . .   | 37 |
| <b>3.1 grafikoa.</b> | 30 urtetik beherako gazte emantzipatuen banaketa, etxebizitza hartzeko modalitatearen arabera (%) . . . . .  | 41 |
| <b>3.2 grafikoa.</b> | 16-29 urteko gazteek etxebizitza hartzeko modalitatearen bilakaera (%) . . . . .   | 43 |
| <b>3.3 grafikoa.</b> | Alokatutako etxebizitzan bizi diren 30 urtetik beherako gazte emantzipatuen banaketa, alokairua aukeratzeko eman dituzten arrazioen arabera (%) . . . . .  | 46 |
| <b>3.4 grafikoa.</b> | Etxebizitza hartzeko modalitatearen bilakaera 30-34 urteko pertsona emantzipatuen taldean (%) . . . . .  | 50 |
| <b>3.5 grafikoa.</b> | 30-34 urteko pertsonak jabetzako edo alokairuko etxebizitza babestuan, egoitzako lurralde historikoaren arabera (%) . . . . .  | 54 |
| <b>4.1 grafikoa.</b> | Etxebizitza guztien batez besteko azaleraren eta 16-29 urteko gazte emantzipatuen etxebizitzaren batez besteko azaleraren arteko alderaketa, lurralde historikoaren arabera (m <sup>2</sup> ) . . . . .  | 58 |
| <b>4.2 grafikoa.</b> | Etxebizitza-parke osoaren batez besteko azaleraren eta 16-29 urteko eta 30-34 urteko pertsona emantzipatuen etxebizitzaren batez besteko azaleraren arteko alderaketa, lurralde historikoaren arabera (m <sup>2</sup> ) . . . . .                              | 61 |
| <b>4.3 grafikoa.</b> | 16-34 urteko pertsonak emantzipatzeko hartzen dituzten etxebizitza libreen eta etxebizitza babestuen ekipamenduen arteko aldeak (%) . . . . .  | 64 |
| <b>5.1 grafikoa.</b> | Euskadiko batez besteko hipoteka-kuoten eta alokairu-errenten zenbatekoen bilakaera, eta 16-29 urteko gazte emantzipatuek ordaintzen dituzten zenbatekoekiko alderaketa (euro/hil) . . . . .   | 66 |
| <b>5.2 grafikoa.</b> | Alokairuan edo hipoteka-mailegua hartuta emantzipatutako 16-29 urteko gazteen banaketa, ordainketa horiek egiteko erabiltzen den diru-sarreraren ehunekoaren arabera (%) . . . . .   | 69 |
| <b>5.3 grafikoa.</b> | Alokairu-erregimenean edo hipoteka-mailegu bat eskuratuta emantzipatu diren 16-29 urteko gazteen taldean, batez besteko soldataren, batez besteko hipoteka-kuoten, batez besteko alokairu-errentaren eta gehiegizko esfortzu ekonomikoaren bilakaera . . . . . | 70 |
| <b>5.4 grafikoa.</b> | 16-29 urteko gazte emantzipatuen banaketa, familiarengandik jasotzen duten diru-laguntzaren arabera (%) . . . . .  | 73 |
| <b>5.5 grafikoa.</b> | Hipoteka edo alokairua ordaindu behar duten gazte emantzipatuen banaketaren bilakaera, ordainketa horiek norik egiten dituen kontuan hartuta. 16-29 urteko taldearen eta 30-34 urteko taldearen arteko alderaketa (%) . . . . .                                | 77 |
| <b>5.6 grafikoa.</b> | Alokairuan edo hipoteka-maileguaren bidez emantzipatutako 16-29 urteko gazteen eta 30-34 urteko pertsonen taldeen banaketaren alderaketa, ordainketa horiek egiteko erabiltzen diren diru-sarreraren ehunekoaren arabera (%) . . . . .                         | 78 |
| <b>5.7 grafikoa.</b> | 30-34 urteko pertsona emantzipatuen taldean, etxebizitza-gastuak ordaintzeko zailtasunak dituztenen edo urtebeteko epean zailtasunak izango dituztela aurreikusten dutenen ehunekoaren bilakaera (%) . . . . .   | 79 |

|                       |   |     |
|-----------------------|---|-----|
| <b>5.8 grafikoa.</b>  | 16-29 urteko eta 30-34 urteko pertsona emantzipatuen banaketaren arteko alderaketa, familiarengandik jasotzen duten diru-laguntzaren arabera (%) . . . . .  | 81  |
| <b>6.1 grafikoa.</b>  | 16-29 urteko gazteen banaketa, emantzipazio-egoeraren arabera (%) . . . . .   | 86  |
| <b>6.2 grafikoa.</b>  | 16-29 urteko gazte emantzipatu gabeen banaketaren bilakaera, etxebizitza alokatzearen alde ala erostearen alde dauden kontuan hartuta (%) . . . . .   | 89  |
| <b>6.3 grafikoa.</b>  | 16-29 urteko gazte emantzipatu gabeek etxeko gastuetarako egiten duten ekarpena, okupazio nagusiaren arabera (%) . . . . .  | 91  |
| <b>6.4 grafikoa.</b>  | 16-29 urteko eta 30-34 urteko gazteen banaketa, emantzipazio-esperientziaren arabera (%) . . . . .  | 92  |
| <b>6.5 grafikoa.</b>  | Etxebizitza erostearen edo alokatzearen alde daudenen ehunekoen bilakaera, 16-29 urteko eta 30-34 urteko taldeetako pertsona emantzipatu gabeen artean (%) . . . . .  | 93  |
| <b>6.6 grafikoa.</b>  | 16-29 urteko eta 30-34 urteko pertsona emantzipatu gabeen taldeetan, etxean aldizka dirua ematen dutenen ehunekoaren bilakaera (%) . . . . .  | 94  |
| <b>7.1 grafikoa.</b>  | Emantzipatuta bizi nahi duten eta emantzipatuta dauden pertsonen ehunekoen arteko aldea 16-29 urtekoen taldean, adin-taldeen arabera (%) . . . . .  | 98  |
| <b>7.2 grafikoa.</b>  | Batez besteko emantzipazio-adina European . . . . .   | 99  |
| <b>7.3 grafikoa.</b>  | 16-29 urteko pertsonen taldean, emantzipaziorako egokientzat hartzen den adinaren eta Euskadiko biztanleriaren emantzipazio-adin errealaren arteko aldea, sexuaren arabera (%) . . . . .  | 100 |
| <b>7.4 grafikoa.</b>  | Egoitzako etxebizitzaren aukera gogokoenaren bilakaera emantzipatu gabeko gazteen artean (%) . . . . .  | 100 |
| <b>7.5 grafikoa.</b>  | 30 urtetik beherako pertsona emantzipatuen taldean, etxebizitza garesti egotea emantzipatzeko zailtasuna izan zela adierazi dutenak, lurralde historikoaren arabera (%) . . . . .   | 101 |
| <b>7.6 grafikoa.</b>  | 30 urtetik beherako pertsona emantzipatuen taldean, diru-sarrera propioak izateko zailtasuna emantzipatzeko oztopoa izan zela adierazten dutenak, sexuaren eta adin-taldeen arabera (%) . . . . .   | 103 |
| <b>7.7 grafikoa.</b>  | 30 urtetik beherako pertsona emantzipatuen taldean, banku-kredituak lortzeko zailtasuna emantzipatzeko traba izan zela adierazten dutenak, sexuaren, adin-taldeen eta hileko diru-baliabideen arabera (%) . . . . .   | 105 |
| <b>7.8 grafikoa.</b>  | 30 urtetik beherako pertsona emantzipatuen taldean, familiaren oposizioa emantzipatzeko traba izan zela adierazten dutenak, adin-taldeen eta jaiotza-lekuaren arabera (%) . . . . .   | 106 |
| <b>7.9 grafikoa.</b>  | 16-29 urteko gazte emantzipatuen eta emantzipatu gabeen banaketa, kontuan hartuta ea inoiz izena eman duten etxebizitza-zerbitzu publikoren batean, etxebizitza sozial bat edo babes ofizialeko etxebizitza bat lortzen saiatzeko, dela jabetzan, dela alokairuan (%) . . . . . | 109 |
| <b>7.10 grafikoa.</b> | Emantzipatu nahi dutenen eta emantzipatuta daudenen arteko aldea 2015ean. 16-29 urteko eta 30-34 urteko taldeen arteko alderaketa (%) . . . . .   | 111 |

|                       |  |     |
|-----------------------|--|-----|
| <b>7.11 grafikoa.</b> | 16-29 urteko eta 30-34 urteko pertsona emantzipatuek emantzipaziorako adierazitako arazo nagusiak (%).   | 112 |
| <b>7.12 grafikoa.</b> | 16-29 urteko eta 30-34 urteko pertsona emantzipatuen banaketaren alderaketa, etxebizitza-zerbitzu publikoekiko harremanaren arabera (%).   | 113 |
| <b>8.1 grafikoa.</b>  | 16-29 urteko gazte emantzipatuak, etxebizitza erosita edo alokatuta, egoitzako lurralde historikoaren arabera (%).   | 116 |
| <b>8.2 grafikoa.</b>  | Alokairuan emantzipatutako 16-29 urteko taldean, alokatzearen alde egiteko adierazitako arrazoien bilakaera (%).   | 118 |
| <b>8.3 grafikoa.</b>  | 16-29 urteko pertsona emantzipatuen taldean, etxebizitzaz aldatzeko aurreikuspena, eta erostearen edo alokatzearen arteko hautaketa.   | 119 |
| <b>8.4 grafikoa.</b>  | Gurasoekin bizi diren 16-29 urtekoen taldean, etorkizunean emantzipatzean alokairuaren alde egiteko adierazitako arrazoien bilakaera (%).  | 121 |
| <b>8.5 grafikoa.</b>  | Etxebizitza hartzeko modalitatearen bilakaera, 16-29 urteko eta 30-34 urteko pertsona emantzipatuen artean (%).  | 121 |
| <b>8.6 grafikoa.</b>  | Alokairuan emantzipatutako 16-29 urteko eta 30-34 urteko pertsonen taldean, kreditu batean hipotekatu nahi ez izatea alokairua hautatzeko arrazoitzat aipatzearen bilakaera (%). | 123 |

## TAULEN AURKIBIDEA

|   |    |
|---|----|
| <b>2.1 taula.</b> 16-29 urteko taldean, emantzipatu nahi duten eta adin horretan emantzipatu diren gazteen arteko aldea, sexuaren, adin-taldean eta okupazioaren arabera (%) .....                                    | 30 |
| <b>2.2 taula.</b> 16-29 urteko gazte emantzipatuak norekin bizi diren, sexuaren, adin-taldean eta jaiotza-lekuaren arabera (%) .....  | 33 |
| <b>2.3 taula.</b> 16-29 urteko gazte emantzipatuen etxebizitzetan bizi den pertsona-kopurua, aitortutako bizikidetzako egoeraren arabera (%) .....  | 34 |
| <b>2.4 taula.</b> Emantzipatzeko arrazoiaren bilakaera (%) .....  | 35 |
| <b>2.5 taula.</b> Emantzipatzeko arrazoiak, sexuaren, adin-taldean eta jaiotza-lekuaren arabera (%).....  | 35 |
| <b>2.6 taula.</b> Emantzipatutako pertsonak norekin bizi diren. 30 urtetik gorakoan eta behekoan alderaketa (%) .....   | 38 |
| <b>2.7 taula.</b> 30-34 urteko pertsona emantzipatuak norekin bizi diren, sexuaren eta jaiotza-lekuaren arabera (%) .....   | 38 |
| <b>2.8 taula.</b> Emantzipatutako pertsonen emantzipatzeko adierazitako arrazoiak. 30 urtetik gorakoan eta behekoan arteko alderaketa (%) .....   | 39 |
| <b>2.9 taula.</b> 30-34 urteko pertsonen emantzipatzeko adierazitako arrazoiak, sexuaren eta jaiotza-lekuaren arabera (%) .....   | 40 |
| <b>3.1 taula.</b> 30 urtetik beheko gazte emantzipatuek etxebizitza hartzeko modalitatea, sexuaren, adin-taldean, egoitzako lurralde historikoaren eta jaiotza-lekuaren arabera (%).....                              | 42 |
| <b>3.2 taula.</b> 16-29 urteko gazteen bizikidetzako egoera eta emantzipatzeko arrazoiak, etxebizitza hartzeko modalitatearen arabera (%).....  | 44 |
| <b>3.3 taula.</b> 30 urtetik beheko gazte emantzipatuek etxebizitza jabetzan hartzearekin lotutako aukerak, jaiotza-lekuaren, gizarte-klase subjektiboaren eta hileko diru-baliabideen arabera (%).....               | 45 |
| <b>3.4 taula.</b> Gazte emantzipatuen banaketaren bilakaera, etxebizitza hartzeko modalitatea eta etxebizitza hori libre edo babestua den kontuan hartuta (%) .....   | 48 |
| <b>3.5 taula.</b> Etxebizitza babestuetan bizi diren gazte emantzipatuen ehunekoaren bilakaera, egoitzalurrearen arabera (%).....   | 49 |
| <b>3.6 taula.</b> Etxebizitza hartzeko modalitatearen alderaketa, 30 urtetik gorako eta 30 urtetik beheko taldeen artean, 2015ean (%) .....   | 50 |
| <b>3.7 taula.</b> Etxebizitza hartzeko modalitatea 30-34 urteko emantzipatuen taldean, egoitzako lurralde historikoaren, jaiotza-lekuaren, gizarte-klase subjektiboaren eta hileko diru-baliabideen arabera (%) ..... | 51 |
| <b>3.8 taula.</b> Jabetzarekin lotutako etxebizitza hartzeko modalitatearen bilakaera 30-34 urteko pertsona emantzipatuen taldean (%).....  | 52 |

|                   |   |    |
|-------------------|---|----|
| <b>3.9 taula.</b> | Etxebizitza babestuan bizi diren 30 urtetik gorako eta beherako pertsona emantzipatuen ehunekoen bilakaera eta alderaketa, etxebizitzaren edukitza-erregimenaren arabera (%) . . . . .  | 53 |
| <b>4.1 taula.</b> | Etxebizitza-parke osoaren ehunekoaren eta 16-29 urteko gazte emantzipatuen etxebizitzaren ehunekoaren arteko alderaketa, berokuntza eta/edo igogailua izateari dagokionez, lurralde historikoaren arabera (%) . . . . .   | 59 |
| <b>4.2 taula.</b> | 30 urtetik beherako gazte emantzipatuen etxebizitzaren ekipamenduak, jaiotza-lekuaren, gizarte-klase subjektiboaren eta etxebizitza hartzeko modalitatearen arabera (%) . . . . .   | 60 |
| <b>4.3 taula.</b> | 16-29 urteko eta 30-34 urteko pertsona emantzipatuen etxebizitzaren ehunekoen arteko alderaketa, berokuntza, igogailua, trastelekua eta/edo garajea izateari dagokionez, lurralde historikoaren arabera. Etxebizitza-parke osoaren batezbestekoarekiko alderaketa (%) . . . . .   | 62 |
| <b>4.4 taula.</b> | 30-34 urteko pertsona emantzipatuen etxebizitzaren ekipamenduak, jaiotza-lekuaren, gizarte-klase subjektiboaren, hileko diru-baliabideen eta etxebizitza hartzeko modalitatearen arabera (%) . . . . .  | 63 |
| <b>5.1 taula.</b> | 16-29 urteko gazte emantzipatuen hileko etxebizitza-gastuak (alokairu-errentaren edo hipoteka-kuotaren zenbatekoa), egoitzako lurralde historikoaren, jaiotza-lekuaren, gizarte-klasearen eta hileko diru-baliabideen arabera (euroak) . . . . .                                  | 67 |
| <b>5.2 taula.</b> | Hipoteka edo alokairua ordaindu behar duten 30 urtetik beherako gazte emantzipatuen banaketaren bilakaera, ordainketa horiek nork egiten dituen kontuan hartuta (%) . . . . .   | 68 |
| <b>5.3 taula.</b> | 16-29 urteko gazte emantzipatuen taldean, dela alokairuan dela hipoteka-mailegu baten bidez, gehiegizko esfortzu ekonomikoko egoeran daudenak, egoitzako lurralde historikoaren, jaiotza-lekuaren, gizarte-klase subjektiboaren eta hileko diru-baliabideen arabera (%) . . . . . | 71 |
| <b>5.4 taula.</b> | Etxebizitza-gastuak ordaintzeko zailtasunak dituzten edo izango dituztela uste duten 16-29 urteko gazte emantzipatuak, egoitzako lurralde historikoaren, jaiotza-lekuaren, gizarte-klase subjektiboaren eta hileko diru-baliabideen arabera (%) . . . . .                         | 72 |
| <b>5.5 taula.</b> | Familiaren diru-laguntza jasotzen duten 16-29 urteko gazte emantzipatuak, etxebizitza-gastuei aurre egiteko zailtasunen, gehiegizko esfortzu ekonomikoko egoeraren, gizarte-klase subjektiboaren eta hileko diru-baliabideen arabera (%) . . . . .                                | 74 |
| <b>5.6 taula.</b> | Hipoteka-kuoten eta alokairu-errenten zenbatekoen bilakaera, eta 16-29 urteko gazte emantzipatuen, 30-34 urteko pertsona emantzipatuen eta Euskadiko biztanleria orokorraren arteko alderaketa (€) . . . . .  | 75 |
| <b>5.7 taula.</b> | 16-34 urteko pertsona emantzipatuen hileko etxebizitza-gastuak (alokairu-errentaren edo hipoteka-kuotaren zenbatekoa), egoitzako lurralde historikoaren, gizarte-klase subjektiboaren, etxebizitzaren tamainaren eta hileko diru-baliabideen arabera (euroak) . . . . .           | 76 |
| <b>5.8 taula.</b> | Alokairuan edo hipoteka bidez emantzipatutako 30-34 urteko pertsonen taldean, gehiegizko esfortzu ekonomikoko egoeran daudenak, egoitzako lurralde historikoaren, jaiotza-lekuaren, gizarte-klase subjektiboaren eta hileko diru-baliabideen arabera (%) . . . . .                | 78 |
| <b>5.9 taula.</b> | 30-34 urteko pertsona emantzipatuen taldean, etxebizitza-gastuak ordaintzeko zailtasunak dituztenak edo izango dituztela uste dutenak, jaiotza-lekuaren, gizarte-klase subjektiboaren, hileko diru-baliabideen eta etxebizitza hartzeko modalitatearen arabera (%) . . . . .      | 80 |

|                    |   |     |
|--------------------|---|-----|
| <b>5.10 taula.</b> | Etxebizitza libre edo babestuan emantzipatutako 16-34 urteko pertsonen arteko aldeak, etxebizitza-gastuak, gastuok ordaintzeko zailtasunak eta familiarengandik jasotako diru-laguntza kontuan hartuta (2015).  | 82  |
| <b>6.1 taula.</b>  | Lehenago emantzipazio-esperientziarik izan bai baina emantzipatu gabe bizi diren 16-29 urteko gazteen banaketa, emantzipatuta bizi zireneko bizikidetz-egoeraren eta familiaren etxera itzultzeko arrazioen konbinazioaren arabera (%)                                | 87  |
| <b>6.2 taula.</b>  | 16-29 urteko gazte emantzipatu gabeen emantzipazio-aurreikuspenak, aurretiko emantzipazio-esperientziaren, adin-taldean eta okupazio nagusiaren arabera (%)   | 88  |
| <b>6.3 taula.</b>  | 16-29 urteko gazte emantzipatu gabeen taldean, etxebizitza erosi ordezkari aldatzearen alde egiten dutenek adierazitako arrazoiak, adin-taldean, okupazio nagusiaren, jaiotza-lekuaren, gizarte-klase subjektiboaren eta egoitzako lurralde historikoaren arabera (%) | 90  |
| <b>7.1 taula.</b>  | Lurralde historikoetako etxebizitzaren prezioen arteko aldeak 2015ean (eurotan)   | 102 |
| <b>7.2 taula.</b>  | Emantzipatzeko zailtasun gisa, etxebizitza alokatzeko edo erosteko garesti egotearen inguruko aipamenen bilakaera (%)   | 102 |
| <b>7.3 taula.</b>  | Diru-sarrera propioak izateko arazoa emantzipaziorako oztopotzat aipatzearen bilakaera (%)  | 104 |
| <b>7.4 taula.</b>  | Banku-kreditu bat eskuratzeko zailtasuna emantzipaziorako oztopotzat aipatzearen bilakaera (%)  | 105 |
| <b>7.5 taula.</b>  | Familiaren oposizioa emantzipaziorako oztopotzat aipatzearen bilakaera (%)  | 107 |
| <b>7.6 taula.</b>  | Familiarekin bizitzen izaten den erosotasuna galdu nahi ez izatea emantzipaziorako oztopotzat aipatzearen bilakaera (%)   | 107 |
| <b>7.7 taula.</b>  | 16-29 urteko gazteen banaketa, etxebizitza-zerbitzu publikoekiko harremana kontuan hartuta, egoitzako lurralde historikoaren eta gizarte-klase subjektiboaren arabera (%)   | 110 |
| <b>8.1 taula.</b>  | Etxebizitza erostearen eta alokatzearen aukeren bilakaera, 16-29 urteko gazte emantzipatuen artean, egoitzako lurralde historikoaren arabera (%)  | 117 |
| <b>8.2 taula.</b>  | Gurasoekin bizi diren 16-29 urtekoen taldean, etorkizunean emantzipatzeko alokatzeko aukeraren edo erosteko aukeraren alde egiten dutenen bilakaera, egoitzako lurralde historikoaren arabera (%)   | 120 |
| <b>8.3 taula.</b>  | Etxebizitza erostearen eta alokatzearen aldeko aukeren bilakaera, 30-34 urteko pertsona emantzipatuen taldean, egoitzako lurralde historikoaren arabera (%)   | 122 |
| <b>8.4 taula.</b>  | Urtebeteko epean etxebizitzaz aldatzeko asmoa duten pertsona emantzipatuak. 16-29 urteko eta 30-34 urteko adin-taldean aldatzeko, zenbait aldagai kontuan hartuta (%)   | 123 |
| <b>8.5 taula.</b>  | Etxebizitza erostearen edo alokatzearen alde daudenen ehunekoen bilakaera, emantzipatu gabeko pertsonen artean. 16-29 urteko eta 30-34 urteko adin-taldean arteko alderaketa (%)  | 124 |

